- Ferguson, Charles A. 2009. Simplified registers and linguistic theory. In Loraine K. Obler & Like Menn (eds.), *Exceptional language and linguistics*, 49-66. New York, NY: Academic Press.
- Gómez Seibane, Sara. 2008. *Concordancias de género en documentación vizcaína. Siglos xv-xvi*. Bilbao: Universidad de Deusto doctoral dissertation.
- Gondra, Ager. 2024. Ideological effects of language revitalisation and standardisation on traditional home language speakers: The case of Basque. *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 46(9). 1-15. <https://doi.org/10.1080/01434632.2024.2326506>
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta & Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco.
- Hualde, José Ignacio & Iñaki Gaminde. 1997. Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* 31(1). 211-245. <https://doi.org/10.1387/asju.8683>
- Laka, Itziar. 1996. *A brief grammar of Euskara, the Basque language*. [Leioa]: Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco.
- Lambert, Wallace, Richard C. Hodgson, Robert C. Gardner & Samuel Fillenbaum. 1960. Evaluational reactions to spoken language. *Journal of Abnormal and Social Psychology* 60(1). 44-51. <https://doi.org/10.1037/h0044430>
- Loewen, Shawn & Talip Gonulal. 2015. Exploratory factor analysis and principal components analysis. In Luke Plonsky (ed.), *Advancing quantitative methods in second language research*, 182-211. New York, NY: Routledge. <https://doi.org/10.4324/9781315870908>
- Loureiro-Rodríguez, Verónica & Elif Fidan Acar. 2022. The matched-guise technique. In Ruth Kircher & Lena Zipp (eds.), *Research methods in language attitudes*, 185-202. Cambridge: Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/9781108867788>
- Marten, Heiko F., Luk Van Mensel & Durk Gorter. 2012. Studying minority languages in the linguistic landscape. In Durk Gorter, Heiko F. Marten & Luk Van Mensel (eds.), *Minority languages in the linguistic landscape*, 1-15. London: Palgrave-MacMillan. https://doi.org/10.1057/9780230360235_1
- Meyerhoff, Miriam, Erik Schleeff & Laurel MacKenzie. 2015. *Doing sociolinguistics: A practical guide to data collection and analysis*. New York, NY: Routledge. <https://doi.org/10.4324/9781315723167>
- Munarriz, Amaia & M. Carmen Parafita Couto. 2014. ¿Cómo estudiar el cambio de código? Incorporación de diferentes metodologías en el caso de varias comunidades bilingües. *Lapurdum: Euskal ikerketen aldizkaria* 18. 43-73. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2494>
- Ondarroako historia zaleak. 2005. *Ondarroa 2004 urtekaria*. Ondarroako Udala.
- Osgood, Charles E. 1964. Semantic differential technique in the comparative study of cultures. *American Anthropologist* 66. 171-200.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2018. Mailegatze morfologikoa eta generoa euskaraz. *Fontes Linguae Vasconum* 127. 229-248. <https://doi.org/10.35462/FLV127.8>
- Parafita Couto, M. Carmen, Amaia Munarriz, Irantzu Epelde, Margaret Deuchar & Beñat Oyharçabal. 2015. Gender conflict resolution in Spanish-Basque mixed DPs. *Bilingualism: Language and Cognition* 18(2). 304-323. <https://doi.org/10.1017/S136672891400011X>
- Pérez-Tattam, Rocío, María José Ezeizabarrena, Hans Stadthagen-González & Virginia C. Mueller Gathercole. 2019. Gender assignment to Spanish pseudowords by monolingual

- and Basque-Spanish bilingual children. *Languages* 4(3). 58. <https://doi.org/10.3390/languages4030058>
- R Core Team. 2022. *R: A language and environment for statistical computing*. R Foundation for Statistical Computing. Vienna. <https://R-project.org>
- RAE and ASALE. 2009. *Nueva gramática de la lengua española*. Madrid: Espasa.
- Reguero Ugarte, Urtzi. 2024. *Ni la mitad te creas: mitos, verdades y algunas curiosidades más sobre el euskera*. Sevilla: Athenaica.
- Schleef, Erik. 2014. Written surveys and questionnaires in sociolinguistics. In Janet Holmes & Kirk Hazen (eds.), *Research methods in sociolinguistics: A practical guide*, 42-57. Oxford: Wiley Blackwell. <https://doi.org/10.1002/97811394260867>
- Trask, R. Larry. 2003. The Noun Phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*, 113-170. New York, NY: Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.113>
- Van Mensel, Luk. 2025. Minority languages and language ideologies. In Durk Gorter & Jasone Cenoz (eds.), *The handbook of linguistic landscapes and multilingualism*, 193-208. Hoboken, NJ: Wiley-Blackwell.
- Zabala, Igone & Itziar San Martin. 2012. Basque and Romance languages: Languages with different structures. In Pello Salaburu & Xabier Alberdi (eds.), *The challenge of a bilingual society in the Basque Country*, 51-71. Reno, NV: Center for Basque Studies.
- Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno, NV: Center for Basque Studies.
- Zuazo, Koldo. 2019. *Standard Basque and its dialects*. New York, NY: Routledge.
- Zubiri, Ilari & Entzi Zubiri. 2012. *Euskal gramatika osoa*. Bilbao: Ikasbook.

Appendix 1. Sentence completion task guises

Female antecedent

1. *Hau neski gizaj...* ‘This girl is poor’
2. *Hau neski katoli...* ‘This girl is catholic’
3. *Hau neski toto...* ‘This girl is fat’
4. *Hau neski txotxo...* ‘This girl is dumb’
5. *Hau neski maj...* ‘This girl is nice’
6. *Hau neski lantzo...* ‘This girl is stupid’
7. *Hau neski gua...* ‘This girl is pretty’
8. *Hau neski lis...* ‘This girl is smart’

Masculine antecedent (distractors)

1. *Hau mutile gizaj...* ‘This boy is poor’
2. *Hau mutile katoli...* ‘This boy is catholic’
3. *Hau mutile toto...* ‘This boy is fat’
4. *Hau mutile txotxo...* ‘This boy is dumb’
5. *Hau mutile maj...* ‘This boy is nice’
6. *Hau mutile lantzo...* ‘This boy is stupid’
7. *Hau mutile gua...* ‘This boy is pretty’
8. *Hau mutile lis...* ‘This boy is smart’

Appendix 2. Written matched-guise task guises

Female antecedent

1. *Hau neski gizaji re.* ‘This girl is poor [fem.]’
2. *Hau neski gizaju re.* ‘This girl is poor [masc.]’
3. *Hau neski katoliki re.* ‘This girl is catholic [fem.]’
4. *Hau neski katoliku re.* ‘This girl is catholic [masc.]’
5. *Hau neski totoli re.* ‘This girl is fat [fem.]’
6. *Hau neski totolu re.* ‘This girl is fat [masc.]’
7. *Hau neski txotxoli re.* ‘This girl is dumb [fem.]’
8. *Hau neski txotxolu re.* ‘This girl is dumb [masc.]’
9. *Hau neski maji re.* ‘This girl is nice [fem.]’
10. *Hau neski maju re.* ‘This girl is nice [masc.]’
11. *Hau neski lantzongi re.* ‘This girl is stupid [fem.]’
12. *Hau neski lantzoi re.* ‘This girl is stupid [masc.]’
13. *Hau neski guapi re.* ‘This girl is pretty [fem.]’
14. *Hau neski guapu re.* ‘This girl is pretty [masc.]’
15. *Hau neski listi re.* ‘This girl is smart [fem.]’
16. *Hau neski listu re.* ‘This girl is smart [masc.]’

Masculine antecedent (distractors)

1. *Hau mutile guapu re.* ‘This boy is handsome’
2. *Hau mutile sinpatiku re.* ‘This boy is kind’
3. *Hau mutile katoliku re.* ‘This boy is catholic’
4. *Hau mutile morenu re.* ‘This boy is dark-haired’
5. *Hau mutile listu re.* ‘This boy is smart’
6. *Hau mutile rubixu re.* ‘This boy is blond’
7. *Hau mutile maju re.* ‘This boy is nice’
8. *Hau mutile konfliktibu re.* ‘This boy is problematic’
9. *Hau mutile gizaju re.* ‘This boy is poor’
10. *Hau mutile parranderu re.* ‘This boy is a party animal’
11. *Hau mutile totolu re.* ‘This boy is fat’
12. *Hau mutile farreru re.* ‘This boy is a party-going’
13. *Hau mutile txotxolu re.* ‘This boy is dumb’
14. *Hau mutile feu re.* ‘This boy is ugly’
15. *Hau mutile lantzoi re.* ‘This boy is stupid’

Ipar Euskal Herriko hots dardarkariak: Hazparneko libertimendua aztergai¹ *Trills in the Northern Basque Country: The Libertimendua of Hazparne as a case study*

Oroitz Jauregi*, Irati Urreta Elizegi

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: This article investigates ongoing segmental variation in the production of trills in the Northern Basque Country. Specifically, it examines the apparent replacement of the alveolar trill by its uvular counterpart and assesses whether this sound shift has reached completion. Drawing on historical attestations that suggest such variation is not a recent phenomenon, the study provides a detailed account of the current state of the system, based on both empirical data and reference materials.

We analyze the pronunciation of trills among speakers from Hazparne (Lapurdi), using a corpus of performances by participants in the *Libertimendua* (carnival performance) aged between 16 and 30, recorded in 2024. The results show that while the uvular trill is predominant among young speakers in Hazparne, the alveolar trill continues to be employed in certain contexts and character portrayals during these performances. This suggests that young speakers from Hazparne are not only capable of perceiving the alveolar trill but can also produce it intentionally. Although it no longer features in their everyday speech, it remains an available and consciously accessible phonemic resource, functioning as an echo or reflection of a sound that persists within the community in specific forms and performance contexts.

KEYWORDS: Pronunciation; language variation; trills; *libertimendua*.

LABURPENA: Artikulu honetan, Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den dardarkarien aldakortasunari erreparatu diogu. Dardarkari ubularra dardarkari hobikaria ordezkatzeko ari da eta ikusiko

¹ Ikerketa *Gazte ahotsak* proiektuaren (US23/15) baitan burutu da. Eskerrak eman nahi genizkieke Miren Lourdes Oñederrari eta ASJU aldizkariako kanpoko bi ebaluatzaile anonimoei, artikuluan zehar egindako ohar eta ekarpenek testua aberastu dutelako.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Oroitz Jauregi. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). – oroitz.jauregi@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0001-7027-3387>

Nola aipatu / How to cite: Jauregi, Oroitz; Urreta Elizegi, Irati (2025). «Ipar Euskal Herriko hots dardarkariak: hazparneko libertimendua aztergai», *ASJU*, 59 (2), 23-40. (<https://doi.org/10.1387/asju.27523>).

Jasoa/Received: 2025-05-05; Onartua/Accepted: 2025-07-24. Online argitaratua / Published online: 2025-11-28.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



dugu ordezkatzea honezkero guztiz gauzatua den edo ez. Aldakortasuna ez dela berria erakusten duten lekukotasunak aipatzearekin bat, eskura ditugun erreferentzia eta baliabideekin egungo egoera islatu nahi izan dugu.

2024ko Hazparneko (Lapurdi) libertimenduko (16-30 urte arteko) zirtzilen jardunek osatutako corpusean Hazparneko hiztunek dardarkariak ubular edo hobikari ahoskatzen dituzten ikertu dugu. Emaitzek erakutsi dute Hazparneko gazteen artean dardarkari ubularra orokorra izanik ere, libertimendu emanaldiko zenbait egoera eta pertsonaia antzetzeko hobikaria erabiltzen dutela. Beraz, ezin uka daiteke Hazparneko hiztun gazteek dardarkari hobikaria hautemateaz gain, nahita ahoska dezaketela. Nabiz eta egunerokoan eurek ez erabili, berariaz ebaki dezaketen hotsa izaten jarraitzen du, komunitatean neurri eta modu batean presente dagoen hotsaren oihartzun edo ispilu gisa.

HITZ GAKOAK: ahoskera; hizkuntza aldakortasuna; dardarkariak; libertimendua.

1. Sarrera

Hots aldakortasuna edozein hizkuntza biziren fonologian gertatzen den fenomeno izanik (Kruszewski 1978), euskarazko hots sisteman ere hots aldaketak gertatzen ari direla erakusten duten datuak eta azterketak ditugu; besteak beste, hor daude Hualde (2003), Oñederra eta beste (2014), Ensunza (2015) eta Urreta (2025) lanak.

Artikulu honetan, euskarazko dardarkariak ditugu aztergai; hain zuzen ere, Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den hots aldaketa bati erreparatuko diogu. Dardarkari ubularra dardarkari hobikaria ordezkatzeko ari da eta ikusiko dugu ordezkatzeko honezkero guztiz gauzatua den edo ez. Oro har, Iparraldean dardarkariak duten egoera azalduko dugun arren, bereziki, Hazparneko (Lapurdi) hizkerari erreparatuko diogu, azterketarako erabiliko dugun corpusa Hazparneko libertimenduan oinarritzen baita. Hots aldaketek, batez ere, belaunaldi gazteen artean izan ohi dute indarra; lehengo formak irautekotan, adineko hiztunen artean irauten du (Labov 1999 [1994]: 47). Gure lanean 2024ko Hazparneko libertimenduan parte hartu duten 16-30 urte bitarteko gazteen jardunak aztertu ditugu, dardarkarien ahoskera nolakoa den ikusteko asmoz.² Libertimenduaren antzerki-parodia izaerak pertsonaia desberdinak gorpuzteko eta pertsonaia desberdinei ahotsa jartzeko egokiera eskaintzen duenez, antzezle horien jardunei jarri diegu arreta azterketa egiteko. Hain zuzen ere, dardarkari ubularrak hobikaria guztiz ordezkatu duen edo oraindik gazteongan dardarkari hobikariak lekurik ba ote duen jakin nahi izan dugu. Dardarkari ubular eta hobikariaren arteko aldakortasun fono-estilistiko eta sozio-fonologikoa deskribatzea da helburua, horrek hiztunen fonema sistemaren inguruko informazioa eman baitezake. Izan ere, dardarkari ubularrak hobikaria erabat ordezkatu badu, dardarkari hobikaria desagertu dela adierazi nahiko luke. Corpuseko datuek erakutsi digute Hazparneko libertimenduko gazteen ahoskeran dardarkari ubularra nagusitzen den arren, zenbait egoeratan dardarkari hobikaria ekoizten dutela. Gertaera horren azalpena ematen saiatuko gara artikuluaren.

Hasteko, 2. atalean, euskarazko hots dardarkarien deskribapena egingo da, antzina eta egun, dardarkarien sailean dauden hotsak aurkeztuta. Bereziki, Iparraldeko euskaran dardarkarietan gertatzen ari den hots ordezkatzeko aztertuko da; itxura guztien arabera euskara-frantsesa elebitasunaren eraginez, dardarkari ubularra dardar-

² 2024ko martxoaren 9an izan zen Hazparneko libertimendua.

kari hobikaria ordezkaten ari dela azalduko da eta ordezkatzearen bilakaeraren berri emango da. Ondoren, 3. atalean, lan honetan oinarri izan den corpusa eta metodologia aurkeztuko dira; Hazparneko libertimendua hartu dela oinarritzat azalduko da. Jarraian, 4. atalean, hiztun gazteek libertimenduko emanaldian dardarkariak nola ahoskatzen dituzten aztertuko da, belaunaldi berrien artean hots ordezkatzeari zertan den ezagutzeko. Azkenik, lanarekin ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko dira.

2. Hots dardarkariak euskal fonologian

Euskararen sistema fonologikoaz ondokoa irakur daiteke dardarkariei buruz euskal fonetika-fonologiaren lanik nagusienetakoa den Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* (1990 [1961]: 327):

Por lo que hace a las vibrantes, tanto los textos como otros testimonios nos garantizan que todos los dialectos vascos han conocido en tiempos modernos una oposición *r/R* entre dos fonemas de articulación apical. Todavía hoy se distinguen en la mayor parte de la zona de habla vasca como simple y múltiple, conforme a la terminología de Navarro Tomás, por el número de vibraciones de la punta de la lengua. El fonema */r/* tiene además una variante fricativa, sin vibración. (Mitxelena 1990 [1961]: 327)

Horrela, bada, azken hamarkadak arte bi dardarkari bereizi izan dira euskararen eremu osoko sistema fonologikoan, */r/* ttak-³ eta */r/* dardarkaria,⁴ biak ala biak hobikariak. Hots dardarkarien eta ttakaren arteko ezberdintasun nagusia dardara kopuruan datza; dardarkaritan organo artikulatzaileek irekitze eta ixte azkar eta errepikatuak egiten dituzte, airea kolpeka botaz:

One of the soft moveable parts of the vocal tract is placed close enough to another surface, so that when a current of air of the right strength passes through the aperture created by this configuration, a repeating pattern of closing and opening of the flow channel occurs. (Ladefoged & Maddieson 1996: 217)

Ttakaren kasuan, berriz, ez da organo artikulatzaileen ukitu errepikaturik gertatzen, bakar bat baino ez: “Another class of rhotic sounds are those which invariably have a single short closure” (Ladefoged & Maddieson 1996: 230).

Azaldu ditugun bi hots horiek (dardarkaria eta ttaka), oro har, bokalaratean erakusten dute aurkakotasuna euskaraz: *e[r]e* vs *e[r]e*, *o[r]o* vs *o[r]o*. Gainerako inguru-neetan dardarkaria ahoskatzen da; kontsonante aurreko silaba amaierako posizioan (*a[r]to*, *o[r]du*), kontsonante ondorengo posizioan (*t[r]en*, *b[r]oma*) eta hitz amaieran (*u[r]*, *ze[r]*).

Euskarazko dardarkarien erabilera orokorra aipatu duguna izan den arren, Iparraldean aldakortasun zantzuak nabari dira;⁵ antzina, eta ez hain antzina, euskararen eremu osoan nagusi zen fonologia sisteman ordezkatzeari antzeman daiteke dardarkarien sailean.

³ Ingeleseztan *tap* edo *flap* izenez ezagutua.

⁴ Ingeleseztan *trill* izenez ezagutua.

⁵ Mitxelenak (1990 [1961]: 328) aipatzen duen Zuberoako bokalarateko ttakaren galera ez dugu oraingoan aintzat hartuko.

3. Hots ordezkatea Ipar Euskal Herrian: dardarkari ubularra

Atal honetan, Iparraldean dardarkarien sailean gertatzen ari den hots ordezkate bat aztertuko da; hain zuzen ere, dardarkari ubularra dardarkari hobikaria ordezkatez ari dela azalduko da. Hots ordezkateak izan duen bilakaeraren berri ematearekin batera, lekukotasunak bilduta, egun, Ipar Euskal Herrian duen egoera ikertuko da, elebitasunaren eraginari arreta jarrita, dardarkari ubularrak euskal hiztunen hots sisteman duen lekua neurtu ahal izateko.

3.1. Hots ordezkatearen bilakaera

Munduko hizkuntzen artean dardarkari hobikaria da nagusi; hizkuntza gehienek (% 75ek) dardarkari bat baino ez dute eta hori, nagusiki, hobikaria izaten da (Ladefoged & Maddieson 1996: 217). Maddiesonek (1984: 81) adierazi zuen 316 hizkuntzen artean, lauk bakarrik zutela dardarkari ubularra: bataz hizkuntzak, frantsesak, alemanak eta ekialdeko armenierak (azken honek hurbilkari ubularra du). Urte batzuk geroago, 2013an, autore berak hizkuntza gehiago aztertu zituen (567, zehazki) eta 97 hizkuntzatan topatu zuen dardarkari ubularra (Maddieson 2013). Euskararen eremuan hitz egiten diren beste hizkuntzei dagokienez, gaztelaniak ttak hobikaria eta dardarkari hobikaria ditu; frantsesak, aldiz, dardarkari ubularra baino ez du. Zenbait hizkuntzatan dardarkari hobikariak ubularrek ordezkatu bide dituzte; esate baterako, Europa mendebaldeko hizkuntzetan fenomeno ezaguna da dardarkari hobikariak ubular bihurtzea, frantsesean kasu (Durand 2009: 143-144; Etchebest 2017: 45).⁶

Antzina frantsesez gertatu zen hots ordezkatea gertatu da Iparraldeko euskararen ere; eremu zabal batean, dardarkari ubularrak dardarkari hobikaria ordezkatu du edo ordezkaten ari da. Ordezkatea ez da hasi berria; besteak beste, Mitxelenak jada zenbait urte antzeman zuen hots aldaketa:

La oposición ha desaparecido o ha cambiado de carácter en tiempos recientes en poblaciones de habla labortana y bajo-navarra por la introducción del *grassement* francés. Donde esto sucede, las dos pronunciaciones apicales han podido confundirse en una única articulación interior o bien /r/ sigue siendo apical y /R/ se ha hecho posterior. (Mitxelena 1990 [1961]: 328)

Mitxelenaren arabera (1990 [1961]: 328), frantsesezko *grassement* delakoa, dardarkariaren ubulartzea alegia, gertatu da garai berrietan Iparraldeko euskararen; hau da, ttak-ak hobikari izaten jarraitu du eta dardarkaria ubular izatera igaro da, frantsesean bezala. Gaur egun, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan nagusitasuna du dardarkari ubularrak (Zuazo 1998: 211; Oñederra eta beste 2014: 88) eta lurraldeen artean, dirudienez, Lapurdiko euskara da ubularrak indar handiena duen eremua. Aldiz, Zuberoako euskara da dardarkari hobikariari gehien eutsi diona; nahiz eta hor ere ahoskera ubularra izan, hiztun helduen artean nagusitasuna ez da erabatekoa.

Berriagoak diren lanetan ere lekukotua da aztergai dugun hots ordezkatea. Besteak beste, Hualdek (2003: 32) adierazten du Lapurdiko eta Behe Nafarroako hiz-

⁶ Frantsesean beste aldaketa bat ere etorri zen dardarkaria ubular bihurtu ondoren, XVIII-XIX. mendeetan [ʁ] igurzari ubularra dardarkari ubularra ordezkaten hasi baitzen hainbat eremutan (Etchebest 2017: 48).

tun gehienek dardarkaria ubular ekoizten dutela. Epeldek (2004: 58), Larresoroko (Lapurdi) hizkeraren azterketa dialektologikoa egitean, aipatzen du /r/ ttak hobikaria eta /r/ dardarkari ubularra bakarrik topatu dituela. Artzelusek (2021: 134) Garazi ibarreko (Behe Nafarroa) hizkeretan ere dardarkari ubularra dela nagusi adierazten du. Urretak (2025) Baigorriko (Behe Nafarroa) ahoskera aztertzean dardarkari guztiak ubular ahoskatzen dituztela hitzunik jasotzen du. Zuberoako dardarkarien bariazio sozio-fonetikoaren azterketa egin duen Etchebest-ek (2017: 83) dio zubereran ere dardarkarien sailean ubularrak nagusitasuna duela. Gaminde eta bestek (2017: 60), azterketa akustikoa eginda, ondorioztatzen dute Hegoaldean dardarkari hobikaria ahoskatzen dela eta Iparraldean, berriz, ubularra; joera orokorra dela diote.

Aztergai dugun hots ordezkatzean ahoskune aldaketa gertatzen da, hau da, airearen estutze-irekitzea (dardara sortzen duena) hobian egin beharrean, ubulan egiten da: *he[r]i*, *u[r]te*, *t[r]en*, *ze[r]*.

Aldaketa berriago bat ere gertatzen ari delako zantzuak topa daitezke Iparraldeko hitzunen artean; hain zuzen ere, dardarkari ubularrak ttak hobikaria ordezkatzen dueneko ahoskerak entzun daitezke tarteka. Aurreko atalean adierazi dugu bokalar-tean bereizten direla, oro har, ttaka eta dardarkaria. Ipar Euskal Herriko hitzunen artean, ordea, euskararen gainerako eremuetan ttaka ahoskatuko litzatekeenetan, zenbaitetan, dardarkari ubularra ebakitzen da. Batetik, frantseseko mailegu batzuetako ahoskera dugu; hau da, azken garaietara arte bokalar-tean ttakaren bidez ahoskatu diren zenbait mailegutuan dardarkari ubularra ahoskatzen dute hitzunik, frantseseko ahoskera ubularra mantenduta; Baigorriko hitzunen ahoskerak dira honakoak: *ga[r]ajeko*, *pape[r]ez*, *tu[r]istak*, *ka[r]abineroak* (Urreta 2025: 307). Bestetik, euskal hitz batzuetan ere, bokalarteko kontsonantea ez da, euskaraz oro har bezala, ttak hobikari ebakitzen, dardarkari ubular baizik. *Oroitu* eta *buraso* hitzetako dardarkariak, adibidez, ubular ahoskatu ohi dituzte Iparraldeko hitzunik; nahiko orokortua dago hitz horiek ubularrarekin ahoskatzea: *o[r]oitzen*, *o[r]oitzapen*, *bu[r]asoen* (Urreta 2025: 308). Zuazok (2021: 30) ere bi hitz horiek dardarkari ubularrarekin bildu ditu Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskarari, baita Epeldek (2004: 56) Larresoroko euskarari ere.⁷ Gauzak honela, pentsa liteke, ziurrenik, hitzunik forma horiek dardarkari ubularrarekin dituztela lexikalizatuta. *Oroitu* eta *buraso* hitzez gain, Urretak (2025) Baigorriko hitzunen artean beste bi kasu bildu ditu, non bi euskal hitzetako bokalarteko kontsonantea ubular ahoskatu duten bi hitzunik: *a[r]azo*, *ga[r]apen*. Azken kasu horietan, ubularraren ahoskera ez da *oroitu* eta *buraso* hitzetakoa bezain orokortua. Esan nahi da ikerketan parte hartu duten gainerako hitzunik ez dituztela, oro har, dardarkari ubularrarekin ahoskatzen, ttak hobikariarekin baizik; 8 hitzuntatik bakarrak ebaki du *ga[r]apen*, gainerako guztiek *ga[r]apen* ahoskatu baitute, eta *a[r]azo* ere hitzun batek baino ez du ahoskatu; gainerakoek *a[r]azo* ebaki dute. Ondorioz, baliteke dardarkari ubularra, dardarkari hobikaria ordezkatzen aritzeaz gain, ttak hobikaria ere ordezkatzen hasi izana; hau da, bokalartean ttakaren eta dardarkariaren arteko neutralizazioa ere bide egiten hasi izana. Azken kasu honetan, ordezkatzea ez litzateke, dardarkari hobikariaren ordezkatzea bezala, ahoskuneari lotua ba-

⁷ Bi hitz horiekin batera honakoak jaso ditu Zuazok (2021: 30): *ko[r]opilo* 'korapilo', *muku[r]u*, *o[r]jatu* 'oratu, erabat zikindu'.

karrik (hobikari izatetik ubular izatera igarotzea), artikulazio moduan ere eragingo bailuke aldaketak (ttaka izatetik dardarkari izatera pasatzea). Artikulu honetan, hots ordezkatze hori aztertuko ez dugun arren, aurrera begira, sakonago aztertzeko ikerlerro interesgarria litzateke.⁸

3.2. Elebitasuna eta euskararen ahoskera

Goiko lerroetan aurreratu dugu Iparraldeko euskararen dardarkari ubularra hobi-karia ordezkatzen ari dela, frantsesez moduan. Gogoan izan behar da euskara gaztelaniaren eta frantsesaren menpe dagoen hizkuntza gutxitua dela eta honezkero ez dagoela euskal hiztun elebakarrik (aipatu hizkuntzak oraindik bereganatu ez dituzten haurrak salbu). Euskal Herriko hiru lurraldeetan (EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian) egin zen 1991ko lehen Inkesta Soziolinguistikoa euskaraz baino ez zekiten hiztun multzoa aipatzen zuen; biztanleriaren % 1 (23.500 lagun, gutxi gorabehera). Hala ere, % 76 erdaraz pixka bat hitz egiteko gai ziren. 1996ko bigarren Inkesta Soziolinguistikoa araberan, euskaldun elebakarrak erdira jaitsi ziren, biztanleen % 0,5 —12.400 lagun, gutxi gorabehera— (Coyos 2010: 142). Ordutik aurrerako inkestek, ordea, ez dute euskaldun elebakarrik aipatzen, guztiak elebidunak edo eleaniztunak dira; gutxienez, euskara-gaztelania elebidunak Hegoaldean eta euskara-frantsesa Iparraldean. Azken datuen berri izateko, ikus euskararen eremu osoko VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza eta beste 2016).

Hiztunen elebitasun egoera hau fonologiaren arloran ekarrita, ondoriozta daiteke ez dagoela euskal hiztunik gaztelaren edo frantsesaren eredu fonologikorik ez duenik. Horrek erdaren ahoskera (hotsak, besteak beste) nagusitzearen arriskua lekarke. Are gehiago kontuan izanda hizkuntza baten atalen artean (morfologia, lexikoa, etab.) ahoskera litzatekeela erdaren sarleku babesgabeena (Oñederra 2019: 942). Dagoeneko erdaren kolorea aski zabaldua dago zenbait euskal hiztunen ahoskeran; besteak beste, prosodiari dagokionez, adierazgarria da erdal erduen indarra, prosodia berri bat nagusitzerainokoa kasu batzuetan (ikus Oñederra 1998). Noski, erdaren eredu fonologikoen nagusitasuna hiztunaren biografia linguistikoa zenbait eragile-aren araberakoa izango da.

Egoera honetan erdal hotsak ere ari dira sartzen euskarara, hiztun askoren fonema inbentarioan lekua dute jada. Esaterako, gaztelaniako /θ/ igurzkarri hortzarte-koak indarra du Hegoaldeko euskararen. Azken hamarkadak arte, euskaraz txistukariak hobikari ahoskatu dira, bai igurzkariak, bai afrikatuak; honela, aurkakotasun gehien dituzten euskaratan honako sei fonemak bereizi izan dira, guztiak hobikariak (eta sabaiaurrekoak): /s/ igurzkarri hobikari apikaria, /ʃ/ igurzkarri hobikari lepokaria, /j/ igurzkarri sabaiaurrekoa, /tʃ/ afrikatu hobikari apikaria, /tʃ/ afrikatu hobikari le-

⁸ Aipatzekoa da, halaber, Etchebest-ek (2017) bere doktorego-tesian, Zuberoako dardarkarien sailean azaldu ditugun bi hots aldaketa horiez gain (dardarkari ubularrak dardarkari eta ttak hobikariak ordezkatzea), dardarkarien beste ahoskera batzuk ere bildu dituela. Aipatuenen artean, hor genuke [ʋ] igurzkarri ubularra, frantsesean gertatu bezala (ikus 6. oin-oharra), Iparraldeko euskaratan ere dardarkari ubularraren igurzkarietza gertatzen ari delako zantzuak eta azterketak baitaude. Guztira dardarkarien sailean 9 alofono jaso ditu azterketa akustikoa eginda. Kontuan hartzeko datua da, etorkizunera begira, Iparraldeko dardarkarien ahoskera azterterakoan; gure artikuluan ez gara gauzatze ezberdin horien azterketan sartuko, ikerlanaren helburu eta mugak gaindituko litzuzkeelako.

pokaria eta /tʃ/ afrikatu sabaiaurrekoa.⁹ Azkenaldian, ordea, gaztelaniako igurzkari hortzartekoa [θ] ere entzuten da Hegoaldeko hiztunen euskarazko jardunetan; bereziki, maileguetan eta izen berezietan erabiltzen da: *pro[θ]esu*, *so[θ]ial*, *Odrio[θ]ola*, *I[θ]askun*, *[θ]estoa* (Oñederra eta beste 2014: 80). Oñederra eta bestek (2014: 79) diote beste hizkuntza bateko fonemak (gaztelaniakoak eta frantseseakoak, bereziki, euskararen kasuan) nahiz eta maileguetan eta forma berezietan bakarrik agertu, hots horiek hiztunen fonema inbentarioan daudela. Hiztunek hautematen, memorian gordetzen eta berariaz ahoskatzen dituzten neurrian, euren baliabide linguistiko dira; izan ere, fonema, Donegan eta Stamperen (2009: 13) arabera, asmo, oharmen eta memoria unitatea da, berariaz ahoska, berariaz hauteman eta oroitu daitekeen hotsa, alegia. Horrela, bada, /θ/ hortzartekoak honezkero lekua luke Hegoaldeko zenbait euskal hiztunen fonema inbentarioan (Oñederra eta beste 2015: 516).

Hegoaldean, gaztelaniaren eraginez, hortzartekoa sartu den bezala, Iparraldean frantsesaren fonema inbentarioaren parte den /r/ dardarkari ubularra sartu da, 2. atleko autoreen aipamenei begiratuta, ubularren hots ordezkatzea lehenagokoa da eta indar handiagoa du, hortzartekoaren kasuarekin alderatuta. Iparraldeko euskal hiztunek, gutxienez, euskara eta frantsesa bereganatu dituztenez, euskarazko hots sistemaz gain, frantsesarena ere menderatzen dute eta, hortaz, frantseseko hots ubularra euren hizketara sartu bide da. Are gehiago, esan liteke dardarkari ubularrak lekua duela Iparraldeko euskal hiztunen fonema inbentarioan (Oñederra eta beste 2014, 2015); izan ere, ahoska eta hautematen duten neurrian, euren fonema inbentarioaren parte litzateke. Gertakari honek Iparraldeko hiztun askorengan /r/ hobikaria desagertzeko bidean jartzen du, ahoskera ubularra hobikaria ordezkatzen ari delako.

Hegoaldeko eta Iparraldeko ahoskeren arteko aldeak aski handiak dira, behar bada, geroz eta handiagoak (ikus, besteren artean, Oñederra eta beste 2015: 515), besteak beste, goiko lerroetan azaldu moduan, alde bakoitzean elebitasun egoera ezberdina dagoelako eta alde bakoitzeko erdarek eragin aski handia dutelako euskararen ahoskeran. Dardarkariaren ahoskera da, hain zuzen, Hegoaldeko eta Iparraldeko hizkeren arteko ahoskera ezberdintasun nabarmenenetakoa bat. 3.1. atalean ikusi dugu hainbat autoreen ekarpenek erakusten dutela joera orokorra dela Hegoaldean dardarkari hobikaria ahoskatzea eta Iparraldean ubularra nagusitzea. Hiztunek eurek ere joera orokor horren berri badute; izan ere, Hegoaldekoentzat dardarkari ubularra Iparraldeko euskararen ezaugarri da eta Iparraldekoentzat dardarkari hobikaria Hegoaldeko euskararen ezaugarri (Artzelus 2021: 135). Euskararen batasunerako izan dezakeen eragina gogoan, aztertzea merezi duen fenomeno litzateke, beraz.

3.3. Hots ordezkatzearen egungo egoera

Hots aldaketak ez dira hizkuntza edo hizkera batean egun batetik bestera gertatzen (Donegan & Nathan 2015: 440). Aldaketa gauzatzeko bidean, ohikoa izaten da hiztun-talde ezberdinek hots aldaketaren egoera ezberdinak erakustea; besteak beste, maiz adineko hiztunen jardunetan mantentzen dira lehengo formak (ahoskerak) eta

⁹ Mendebaldeko euskal hizkeretan ez da, oro har, txistukari apikarien eta lepokarien arteko bereizketarik egiten, apikariaren aldeko neutralizazioa gertatu da igurzkarien sailean (*[s]aldu*, *[s]ubiri*) eta lepokariaren aldekoa afrikatuen sailean (*a[ts]amar*, *hu[ts]a*).

gazteen hizketan forma berriak nagusitzen dira. Hala gertatzen da, hein batean, dardarkari ubularraren ordezkatzearen kasuan; egun, Iparraldeko eremu osoan ubularra aski zabaldua eta orokortua izan arren, bereziki, nagusitasuna du gazteen artean eta dardarkari hobikaria, mantentzekotan, adineko hiztunen artean mantentzen da.

Oñederra eta bestek (2014: 88-91) belaunaldi ezberdinen artean Iparraldeko euskararen dardarkari ubularraren ordezkatzeara zertan den aztertu zuten, NORANTZ datu-baseko ahoskeretan oinarrituta.¹⁰ Ondorioztatu zuten, batez ere, adineko hiztunek erabiltzen zutela hobikaria. Hain zuzen ere, honako emaitzak jaso zituzten: 15 hiztun adinekoen artean % 53,3k ebaki zuten [r], 12 hiztun helduen artean % 25ek eta 32 hiztun gazteen artean % 12,5ek baino ez. Aldiz, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago zerabilten ubularra: gazteen % 87,5ek ahoskatu zuten [R], helduen % 75ek eta adinekoen % 46,6k bakarrik.

Epeldek (2004) ere, Larresoroko (Lapurdi) euskara aztertzean, ondorioztatu zuen, hiztunen artean, oro har, ubularra izan arren nagusi, adineko hiztun batzuek hobikaria ahoskatzen zutela. Hain zuzen ere, adierazten du dardarkari ubularra dela zabalduena Lapurdiko ekialde osoan, baina Kanboko, Gereziatako (Lekorne) eta Ezpeletako berriemaile batzuek ez zutela ubularra ahoskatzen, hobikaria baizik; guztiak adin handikoak zirela nabarmentzen du. Frantsesez ari zirenean ere ez omen zuten ubularra ebakitzen (Epelde 2004: 284). Datu honek erakutsiko luke hiztun hauen fonema inbentarioan dardarkari hobikaria zegoela soilik.

Behe Nafarroara igarota, Caminok (2016: 194), Amikuze eskualdeko euskara aztertzean, ikusi zuen adineko hiztunen artean, dardarkari ubularraren adibideak entzun zitezkeen arren, gehienek hobikaria ahoskatzen zutela. Bide beretik, Egurtzegi eta Carignan-ek (2020) Amikuzeko 80-85 urteko hiztunek ahoskatutako dardarkariak aztertu zituzten akustikoki eta ondorioztatu zuten, nahiz eta batzuek ubularra ebaki tarteka, hobikaria ere ahoskatzen zutela. Artzelusek (2021: 135) Garazi ibarreko euskararen dardarkari ubularra dela nagusi bildu zuen; bereziki, gazteen artean gailentzen da ubularra eta hobikaria adineko hiztunen artean entzuten da. Adibidez, Hergaraiko eta Gamarteko adineko bi emakumek beti hobikaria darabilte aipatzen du. Urretak (2025: 307) Baigorri dardarkari ubularra bakarrik jaso du 20-60 urte bitarteko hiztunen artean, baina hiztun zaharragoen artean hobikaria ere bildu du; esaterako, azaltzen du 74 eta 76 urte zituzten bi gizon eta adin bertsuko emakume baten arteko solasaldian guztiak dardarkari hobikaria ahoskatzen zutela. Gainera, lan bereko Baigorriko hiztun gazteek aipatzen dute, eurek dardarkari hobikaria ez ebaki arren, euren inguruan entzutea ez zaiela arrotz egiten, batez ere adineko jendeak erabiltzen baitu. Hiztun gazte bat oroitzen da bere amonak *e[r]an* ahoskatzen zuela beti, inoiz ez *e[R]an*, baina jakitun da, egun, bereziki gazteen artean, dardarkari hobikaria galdu egin dela Iparraldean eta ubularrak hartu duela indarra (Urreta 2025: 309).

¹⁰ NORANTZ Ipar Euskal Herriko egungo lekukotasun mintzatuekin Baionako IKER (UMR5478) zentroan egin zen ahozko corpusa da. Proiektuaren izen ofiziala honakoa da: *Projet Norantz: Contact de langues et variation linguistique: création d'un observatoire des nouveaux parlers basques*. 2008ko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra arte iraun zuen proiektuak eta helbide honetan aurki daiteke: www.norantz.org (2025/05/02).

Zuberoako eremuan ere dardarkarien erabilera antzekoa antzematen da adin-talde ezberdinetan. Adineko hiztunen artean dardarkari hobikaria mantentzen da eta gazteen artean ubularra nagusitzen da (Etchebest 2017: 308-309).

Deigarria da bi dardarkariak (ubularra eta hobikaria) erabiltzen dituzten hiztunak ez direla asko; hau da, hiztun beraren hizketan bi dardarkariak entzutea ez da ohikoa (Artzelus 2021: 135). Kasu bakan batzuk baino ez dira jasotzen dardarkariak aztertu dituzten lanetan; esate baterako, Caminok (2016: 665) Ostankoko (Behe Nafarroa) 90 urteko hiztun baten kasua dakar, non jardun berean ubularra eta hobikaria, biak, ahoskatzen dituen aldizka, nahiz eta ubularra sarriago darabilen: *a[r]giaikin*, *pa[r]titzzen*, *a[r]unt* eta *egu[r]a*, *sa[r]tzeko*, *be[r]din*. Artzelusek (2021: 136) ere jaso ditu adibide batzuk; Ezterenzubiko (Behe Nafarroa) adineko emakume batek *kong[r]egazione*, *be[r]din* eta *kong[r]egazione*, *be[r]din* ebaki ditu, eta Irulegi-Anhauzeko (Behe Nafarroa) adineko gizon batek *e[r]ain duzu* eta *e[r]ain duzu* ahoskatu ditu. Dena den, aipatu ditugun kasuak gorabehera, oro har, hiztunek ubularraren edo hobikariaren alde egiten dute; hiztun berak ez ditu biak erabiltzen. Honen ondoan, azpimarragarria iruditzen zaigu Iparraldean hazi eta hezi diren eta Hegoaldeko gurasoak dituzten zenbait hiztunen kasua, horietarik zenbait dardarkari hobikaria zein ubularra erabiltzeko gai direlako, baina ziurrenik egokieraren eta solaskidearen arabera bata edo bestea erabiltzen dutelako.¹¹

Artikulu honetarako, bereziki, Hazparneko (Lapurdi) kasua interesatzen zaigu, herri horretako libertimendua baita aztergai (4. atala); zehazki, libertimenduan hiztun gazteek dardarkariak nola ahoskatzen dituzten aztertuko dugu. Hori horrela, Hazparneko euskaran dardarkarien egoera zein den ikertu dugu aurrez. Artikuluan zehar aipatu ditugun autoreen lanek erakutsi bezala, dardarkari ubularraren nagusitasuna, oro har, Ipar Euskal Herri osoko euskarara hedatua da; hortaz, Hazparnen ere dardarkari ubularrak hobikaria ordezkaturik luke edo ordezkatzeko ariko litzateke. Hala adierazten du Epeldek (2004: 284), Larresoroko hizkera eta Hazparnekoa konparatzen dituenean; dardarkarien sailean ez dago ezberdintasunik bi hizkeren artean, bietan dardarkari ubularra da nagusi.

Libertimenduko datuez haratago, eskuartean dugun ikerketa osatzeko, Mintzoak egitasmoan bildu diren Hazparneko hiztunen grabazioak ere aztertu ditugu eta ondorioztatu dugu, oro har, Iparraldeko gainerako hizkeretan lekukotzen den egoera bera dela Hazparnen.¹² 24 hiztunen grabazioak aztertu ditugu, ikusteko ea hiztunek dardarkari ubularra edo hobikaria ahoskatzen duten, eta grabazio guztietatik 9 hiztunek baino ez dute erabiltzen hobikaria; gainerako guztiek ubularra ebakitzen dute. Hain zuzen ere, dardarkari hobikaria ahoskatzen duten hiztunak adinekoak dira (80 urte ingurukoak) eta gazteagoak direnek ubularra darabilte beti. Aipatzekoa da, halaber, adinekoen artean ere askotan ubularra dela nagusi. Horrekin batera, Hazparneko libertimenduko aztertzeko garaian, libertimenduko parte hartzaileekin (hiztun gazteak) elkarrizketa erdi-gidatuak ere egin ditugu eta, hurrengo atalean xeheago azalduko den bezala, horietan beti dardarkari ubularra ebaki dute hiztunek.

¹¹ Azterketa gehiago behar duen gaia da aipatutakoa.

¹² *Mintzoak* Ipar Euskal Herrian ahozko memoria kolektiboaren inguruan egindako ikus-entzuzko grabaketak ezagutarazi nahi dituen egitasmoa da. Euskal Kultur Erakundearen (EKE) ekimen bat da eta www.mintzoak.eus webgunean dago eskuragarri (2025/05/02).

Gauzak horrela, sortzen zaigun galdera da ea Hazparneko euskaran dardarkari ubularrak dardarkari hobikaria guztiz ordezkatu duen, bereziki belaunaldi berrietan; alegia, hots ordezkatzea erabat gauzatu ote den eta, hortaz, hobikaria hiztunen fonema inbentariotik desagertu ote den. Horretarako, Hazparneko libertimenduan hiztun gazteek dardarkariak nola ahoskatzen dituzten aztertuko dugu. Atal honetan esandakoei jarraituz, pentsatzekoa da ubularra izango dela nagusiki gazteok ahoskatuko duten dardarkaria eta, dardarkari hobikaria erabiltzen badute, noiz, zein testuingurutan edo zein funtzioekin erabiltzen duten jakin ahal izango dugu.

4. Hazparneko libertimendua

Libertimendua ihauteri garaiko errepresentazioa da, dantza, bertsoak eta antzerkia tartekatuz osatzen dena. Herri izaera du, esan nahi baita herriko jendeak herriarentzat (edo ondoko herrirentzat) besta egiteko sortua dela, horregatik herriko gazte taldeek osatua da; adibidez, herriko dantza taldeak (baldin badago, bestela ondoko herriko dantzarietaz osatua) eta herriko gazte antzerkilariek hartzen dute parte. Ihauteria ospatzeko kalean egiten diren antzezenetan kritika da nagusi, herriko zein orokorragoa den egoera sozial, politiko, kultural, erlijioso eta orobat, eguneroko bizitzari kritika zorrotza agertzen da, betiere umorez.

Egun, Ipar Euskal Herriko zenbait herritan egiten da ospakizuna; badirudi galdia egon den tradizioa berreskuratzen ari dela. Azken urteetan indarra hartu duen ospakizun moldea da Behe Nafarroako eta Lapurdiko zenbait herritan; hala nola, Donibane Garazin zein Hazparnen eta Hegoaldeko herri batzuetan ere hasi dira libertimenduak ospatzen, esaterako, Añorgan (*dibertimendua* izenarekin) eta Iruñean (*Iruinkokoa* izenez ezaguna).

2024koa Hazparnen egiten den laugarren libertimendua da. Goizean goizik hasten da libertimendua kalerik kale, bertsolarien saio eta dantzarien dantzak herrian zehar eskainiz, herriko plazaren bat antzeztoki hartu arte. Antzerkia egiten duten pertsonaiei *zirtzilak* deitzen zaie (izen desberdinak izan ditzakete herri eta inguru ezberdinetan) eta esketx modukoak egiten dituzte dantzarien saio eta bertsolarien emanaldien artean. Gure azterketan libertimenduko zirtzilen hizketaldiei begiratuko diegu. Zirtzilaren izaeraz mintzo da Luku ondoko aipuan:

Zirtzila elea da eta desordena. Ele librea ekarri nahi du plazara, hitz anarkikoa, jatorrizko kaosaren erreinua berriz hedatu nahi du zibilizazio egonkorak antolatuta lekuetan [...]. Eroa da edo bufoia eta jantzieta hauen herexak atzemanen ditugu. Baina artetan haurren edo ertzoen erranak ebidentziak ateratzen beittuzte, gure kontradikzioen parean ezartzen gaituzte. Funtzio hori antzerki satiriko guztiek daukate beren baitan. (Luku 2014: 231-232)

Azaldu bezala, zirtzilek, bertsolarien eta dantzarien saioen tartean, antzerki esketxak izenda ditzakegunak egiten dituzte eta antzezelek pertsonaia desberdinak errepresentatzen dituzte; saioan zehar antzezele berak pertsonaia bat baino gehiago gorpuzten ditu (izan daiteke ohoin zein errege, presidente zein laborari edo beste edozein pertsonaia). Hazparneko 2024ko emanaldian 13 zirtzilek hartu zuten parte libertimenduan, guztiak hiztun gazteak, 16-30 urte bitartekoak.

4.1. Corpusa eta metodologia

Aurreratu dugu jada zirtzilen saioak direla artikulu honetan aztertuko ditugunak. Azpimarratu behar da ikerlariok aurrez ez genituela ezagutzen zirtzilen esketxak; beraz, corpusa egunean bertan emanaldian sortutakoa da, ez da aurrez prestatua. Hamahiru zirtzilek gorpuztutako pertsonaia desberdinen ahoskerak osatu du gure corpusa eta pertsonaia horien dardarkarien ahoskera da aztergai nagusia.

Zirtzilek lau agerraldi egin zituzten; lehenengoak 14:30 minutu irauten du, bigarrenak 19:30 minutu, hirugarrenak 15:40 eta laugarrenak 16:40; guztira 65:40 minutu. Agerraldietan gai desberdinak jorratzen dituzte; esaterako, lehenengo agerraldian Nafarroako Erresumara joan ondotik, Hazparneko herriko etxeak beste proiektu batzuk lehenesten dituelako, Hazparnen ostaturik ez egotea salatzen dute, edo Arberoako adineko pertsona bat joaten da eskolako umeengana urte amaierako besta antolatzen laguntzera. Bigarrenean, besteren artean, laborarien etxaldea zein arditegia saldu nahia salatzen da, garesti eta, batez ere, atzerriko erostunei saldu nahi zaielako, bertako gazteak aukerarik gabe utzita. Ondotik, lurren prezioa salatzuz, manifestazioa egiten da. Telebistako programa ezagun baten parodia ere egiten dute laborariek amodioa aurkitzeko. Hirugarren agerraldian zirtzilek bertso saio bat antzetzten dute, non Palestina-Israelen arteko gatazka, bideak oztopatzeagatik egingako epaiketa, libertimenduaren ikerketa eta, eurek asmatua den *Beskoitzsoro* filma oinarri hartuta, ikastolek izandako debeku eta istiluak diren gai behinenak. Azken agerraldiko gai nagusia, berriz, joko olinpikoak dira; jokoak Hazparnen egiteko proposamena antzetzten dute, proposatuko lituzketen joko berriak aurkeztuta (adibidez, talo jaurtiketa) eta zein baldintza bete beharko liratekeen agerian jarrita (beltz immigranteak esplotatu, etxegabeak kanporatu, eta abar); azkenik, joko olinpikoei boikota egingo dietela esanez amaitzen da emanaldia.

Zirtzilen saioen grabazioa egiteko, emanaldi osoa grabatzeko ezarritako bi kamera finko erabili ditugu irudia eta audioa gordetzeko.¹³ Hotsen nolakotasuna erabakitzerakoan ikertzaileon oharmena izan da oinarria.¹⁴

Esan bezala, libertimenduek herriko izaera dute abiapuntu eta helburu, hazpandarrek hazpandarrentzat (eta bisitarientzat) sorturiko errepresentazioak baitira. Hori horrela, ondoko atalean, batez ere Hazparneko hizkeraren ezaugarri fonologikoak bilduko ditugu, 5. atalean dardarkarien aferari heltzeko.

¹³ Grabazioak egiteko erabilitako kamera profesionalak Sony HDR-CX110E eta Panasonic AG-AC160 dira. Azterketa fonologikoak egiteko egokiena pertsonaia bakoitzak bere mikroa izatea bada ere, antzerki moldeagatik teknikoki erabat zail izan zen hala egitea. Alde batetik, kalean egiten den antzerkia denez, pertsonaiek ahotsaren modulazio oso bortitzak egiten dituzte, oihuka eta garrasika ere hitz eginez eta abestuz. Horrez gain, mugimenduan daude etengabe oinez, korrika, jauzika zein elkarren gainean salto eginez eta horrek, zailtasuna gehitzeaz gain, zirtzilentzat arriskua ere badauka, aparatu bat soinean eramanda min hartzeko aukera ere badagoelako. Horregatik, irudia eta audioa kalitate onez grabatzeko moduko kamera finkoak erabili ziren.

¹⁴ Azterketa akustikoa desiragarri balitz ere, kasu honetan ezin izan dugu egin, batez ere, grabazioen ezaugarriengatik. Bi ikertzaileen artean adostasuna egon da dardarkaria hobikari edo ubular gauzatzen den erabakitzeko, bi ahoskeren arteko desberdintasuna erlatiboki nabarmena delako, dardarkaria edo igurzakaria den hautematea baino nabarmenago, esaterako.

4.2. Herri hizkeraren isla

Libertimenduak herri antzerki emanaldi diren heinean, antzezenetan, oro har, herriko hizkeraren ezaugarriak erabiliko dituztela aurreikus daiteke. Hazparne Lapurdiko ekialdean kokatuta dagoen herria izanik, Zuazoren (2008: 157) sailkapen dialektologikoan Hazparneko hizkera nafar lapurtarraren barnean kokatzen da, sartaldeko eremuan, hain zuzen ere.¹⁵ Zuazoren (2008: 165) esanetan, “euskalki osoko bereizgarri gutxi dago”. Horrek ez du esan nahi, ordea, bereizgarri orokorrik ez duenik; ondotik, horietako zenbait aipatuko ditugu. Herriko hizkeraren ezaugarriak hainbat alderdi linguistikotatik azter daitezkeen arren, gure azterketa fonologiaren abiapuntutik egingo dugu, esan nahi baita ahoskeraren eremura mugatuko garela, batez ere.

Hazparneko euskarari buruzko atala osatzeko Epelderren 2004ko lana oinarri sendotzat hartzearekin bat, Zuazoren (2008) eta Caminoren (2022) lanak ere lagungarri egin zaizkigu, baita Duguinerena (2009) eta Padillarena (2009) ere. Epeldek, Larresoroko hizkeraren deskribapen osoa egiteaz batera, alboko herrietako hizkerekin alderatu ere egiten duenez, Larresoroko eta Hazparneko hizkeren arteko alderaketa egiten duen atal bat ematen du. Epelderren esanetan (2004: 278), “fonologiaren alorra da, ez bairik gabe, bi eremuen artean ezaugarri dibergente gehien eskaintzen duena”. Epelderren laneko atal hori erabiliko dugu Hazparneko hizkeraren ahoskerari dagozkion ezaugarri nagusi zenbait zerrendatzeko. Kontuan hartzekoa da, Epeldek (2004: 314) baieztatzen duen moduan, Hazparneko ezaugarriak, kasu honetan fonologikoak, ez direla eskusiboak edo hizkera horri dagozkionak soilik. Ondoren, horietako batzuk aurkeztuko ditugu eta libertimenduko adibideez jantziko ditugu.

- Euskarazko hizkera zenbaitetan bezala, /e/ eta /o/ arteko bokalez amaitutako hitzetan /a/ beheko erdiko bokala gehitzean, erdiko bokala igo egiten da; disimilazio bat gertatzen da. Adibidez, *etxea* > *etxia*, *otsoa* > *otsua*. Ekiadeko hizkeretan ohikoa denez, bokal bilkura goranzko diptongo bihurtzen da: *etx[ja]*, *ots[wa]*. Gure corpusean aurkitutako adibideak dira *batajatz[ja]* ‘bataiatzea’, *errap[ja]k* ‘errapeak’ eta *futbol[ja]n* ‘futbolean’.
- /u/-z amaitzen diren hitzei *-a* determinatzailea edo morfemaren bat erantserakoan, [ya] bokal bilkura ahoskatzen da; /u/-ren palatalizazioa gertatzen da. Hala ere, Epeldek (2004: 282) aitortzen du [y]-ren palataltasuna ez dela izango ziurrenik Zuberoan bezain palatalizatua: “esan behar da ez dela *ü* garbia hots hori, *u* eta *ü*-ren tarteko zerbait baizik” (2004: 283). Aurkezten dituen adibideen artean: *esküa*, *sagüa*. Duguinek (2009: 200) eta Padillak (2009: 188) ere jasotzen duten hots txandakatze honen inguruan Caminok (2022: 247) aipatzen duenez, “[e]gungo Ipar Euskal Herrian Hazparne hiria da bakarra *-u-a* hiatoa palatalizatzean *-üa* emaitza duena”; beraz, Hazparneko hizkeraren bereizgarritzat hartzen duela ondoriozta dezakegu. Libertimenduan aurkitutako adibidea da, esaterako, *izurrat[ya]* ‘izurratua’.

¹⁵ Hazparneko hizkerari buruz egin diren proposamen dialektologikoen inguruan interesa duenari Zuazoren lana (2008) gomendatzen zaio.

- /u/ atzeko bokal itxiari /e/ aitzineko arteko bokalak jarraitzen dionean, asimilazioz, arteko bokala itxi egin ohi dela irakur daiteke Epeldereren lanean, /i/ bihurtuz. Ondoren, asimilazioz, bi bokalen arteko nolakotasuna berdintzen da itxitasunean, adibidez *zúek* > *zúik* > *ziik*. Aipatu lanean irakur daiteke /ue/ bokal elkarketa dagoen guztietan gertatzen dela, adizkietan bereziki, adibidez *ni(i)n* ‘nuen’ (Epelde 2004: 280). Era honetakoak lirateke gure corpusean aurkitutako *duziila* ‘duzuela’ eta *behar hiin* ‘behar huen’.
- Epeldereren (2004: 281) arabera, sudurkari aurreko arteko atzeko bokala /o/ > [u] ixtea joera nagusia da Hazparnen: *úntsa* ‘ontsa’, *undár* ‘hondar’, *papillúna* ‘papillona’ eta *untzi* ‘ontzi’. 2024ko libertimenduan aurkitutako adibideak dira, esaterako, *sobera* [u]ntsa ‘sobera ontsa’ eta [u]ntsa zizte? ‘ontsa zarete?’.¹⁶
- Adizkien bokalei begiraturaz gero, aipagarria da Hazparnen NOR-NORK saileko adizkietan monoptongatzea gertatzen dela; esaterako, *nu* ‘nau’, *hu*, ‘hau’ eta *nute* ‘naute’. Gure corpuseko adibidea da *enuk hasiko* ‘ez nauk hasiko’.

Kontsonantei begira jarrita, artikulua honetan aztergai ditugun dardarkariez gain, bestelako bilakabide fonologiko batzuk aipatzen ditu Epeldek (2004):

- Euskal eremu osoan ohikoa den bezala (Hualde & Beristain 2019), Hazparnen ere lagunarteko egoeretan bokalarteko /b, d, g, t/ kontsonanteak galdu egiten dira maiz; esaterako, *baakit* ‘badakit’, *elgarretaatu* ‘elgarretaratu’, *berrooi* ‘berrogei’ (Epelde 2004: 282-283). Gure corpuseko adibideak dira, esate baterako, *diau* ‘diagu’, *eztuk arrapostuik?* ‘ez duk arraposturik?’, *iziarri maite* ‘izugarri maite’ eta *geo* ‘gero’.
- Hasperenari buruz, Epeldek dio hasperena Lapurdiko ekialde osoan erabiltzen dela, batez ere hitz jakin batzuetan; esaterako, *hil*, *haat* ‘harat’ edo *hau-hoi-hua* ‘hau-hori-hura’ erakusleetan. Hasperenaren erabilera ez dela sistematikoa eta orokorra gehitzen du, baina pertsona nagusiek gehiagotan erabiltzen dutela ere esaten du eta badirela kasuak non pertsona batek hitz bera hasperenarekin eta hasperenik gabe ere ahoska dezakeen. Gure corpusean hasperenik, oro har, ez dela erabiltzen esan dezakegu.
- Eremu honetan <j> [j] sabaikari ahostun ebakitzen da euskal jatorriko hitzetan eta mailegu zaharretan ([j]abe ‘jabe’, [j]akin ‘jakin’); gure corpuseko adibideak dira [j]oko ‘joko’ eta [j]aun ‘jaun’. Horrekin batera, aipatzekoa da mailegu berriagoetako <j> [ʒ] sabaiaurreko ahoskatzen dela, frantsesez ohi den bezala; adibidez, [ʒ]urnála (fr. *journal*). Mailegu berrietan, /i/ eta /e/ bokalen aurretik doan <g> ere sabaiaurreko ahostun ahoskatzen da maiz (Epelde 2004: 284); esaterako, *xofá[ʒ]a* (fr. *chauffage*). Gure corpusean azken hitz honen ahoskera aurkitu dugu.
- Euskarazko beste eremuekin izan ditzakeen desberdintasunei begira, bai Hazparnen eta bai inguruetan, kontsonanteen asimilazio-bustidurarik ez da gertatzen; adibidez, *mi[n]a*, *i[t]urri*, *mi[l]a* (Epelde 2004: 284). Gure corpusean ere asimilazio bustidurarik ez da gertatu: *bikai[n]*, *ziki[n]a*, *langi[l]eak*, *i[l]eak*, *oi[l]oak*.

¹⁶ Galdetu beharko litzateke bilakabide biziak ote diren edo, inoiz biziak izandakoak izanik ere, forma hauek fosilduak edo lexikalizatuak geratu ote diren.

—Kontsonante txistukariei dagokienez, Epeldek dio (2004: 285), Hegoaldeko hizkeretan eta sarri Zuberoan, [tʃ] afrikatu sabaiaurreko ebakitzen diren zenbait hitzen hasierako kontsonantea Hazparnen [ʃ] igurzkarri sabaiaurreko ahoskatzen dela; hala nola *xakúrra*, *xoría* eta *xapéla*. Gure corpuseko adibidea da: [ʃ]uriak.

Ezaugarri fonologikoetatik haratago, badira zenbait ezaugarri Hazparneko hizkeratik gaindi doazen arren, nafar lapurterari behintzat badagozkionak. Horieta-koak dira, esate baterako, xuketaren erabilera (Zuazo 2008: 151) eta galdera egiteko *-a* partikula erabiltzea (Zuazo 2008: 152). Gure corpusean badira bietariko adibideak, xuketa erabiltzen baita, esaterako, *untsa xira?*, *polita duxu* eta *xu xira Jaione?* esaldietan. Aurki daitezke *-a* partikula bidez sortutako galderak ere: *ez duzuia uste?* ‘ez duzu uste?’, *badakika?* ‘badakik?’ eta *eztea ostatu madarikatuik Hazparnen?* ‘ez da ostatu madarikaturik Hazparnen?’.

Atal honen hasieran adierazi dugun moduan, herritarrek herritarrentzat edo ingurukoentzat eginiko ekitaldia izanda, zentzuzkoa da herri hizkera islatu nahi izatea, herri hizkeraren markatzailetzat har daitezkeenak erabiltzea. Hori da atal honetan erakutsi nahi izan duguna.

5. Hots dardarkariak Hazparneko libertimenduan

Aurreko atalean adierazi gisan, Hazparneko libertimenduan zirtzilek ahoskatu dituzten dardarkariak aztertu ditugu, hazpandar hitzun gazteen artean dardarkari ubullarraren ordezkatzeta zertan den jakiteko. Guztiz gauzatu da ordezkatzeta eta, beraz, ez dute dardarkari hobikaria inoiz ebakitzen? Edo egoera jakin batzuetan ahoskatzen dute? Hala bada, noiz, zein testuingurutan edo zein funtzioarekin ahoskatzen dute hobikaria? Era horretako galderak erantzun nahi izan ditugu.

Libertimenduko parte hartzaileek, oro har, [ʀ] dardarkari ubularra ahoskatzen dute. Libertimenduko emanalditik kanpo parte hartzaileekin izandako solasaldiek ere hala berretsi dute; guztiek beti ubularra ebaki dute, inoiz ez [r] dardarkari hobikaria. Libertimenduko emanaldian bertan ere ahoskera ubularra izan da nagusi. Pertsonaia gehienak antzezteko ebakera ubularra erabili da; besteak beste, Hazparneko haurrak eta gazteak, auzapeza, herriko etxeko agintariak eta, oro har, goi-karguak antzezteko erabili da.

Hala ere, pertsonaia jakin batzuk gorpuzterakoan, dardarkari hobikaria ahoskatu da. Oro har, bere funtzioak kontuan hartuta, bi multzotan sailka daiteke dardarkari hobikariaren erabilera. Batetik, Hazparne inguruko adineko hitzunak edota laborariak antzezteko erabili da eta, bestetik, Hegoaldeko hitzunak gorpuzteko funtzioa izan du. Bi erabilera edo funtzio horiek azalduko ditugu jarraian.

5.1. [r] adineko eta laborari diren hitzunen ezaugarri gisa

Libertimenduko emanaldian Iparraldeko (Hazparne inguruko) adineko hitzunak edota laborariak antzeztean dardarkari hobikaria erabili dute. Hain zuzen ere, bi kasu ditugu. Batean Arberoa (Behe Nafarroa) adineko gizon bat ezaugarritzeko darabilte. Hazparneko ikastolako hurrek urte amaierako besta antolatu behar dute eta,

laguntzaile gisa, Arberoako adineko gizon bat ekartzen diete, esperientzia baitu bes-tetan parte hartzen. Horrela, adineko gizonak Arberoan egindako besta baten berri ematen die eredu gisa eta dardarkari hobikaria erabiltzen du beti: *ede[r]a*, *seu[r]*, *pe[r]tsona*, *mozko[r]aldia*, *fo[r]tuna*, *Donama[r]tiri*, *muku[r]u*. Gainera, nabarmendu egiten du dardarkari hobikaria ahoskatzen duela; indar handiagoz ebakitzen du hobi-karia gainerako hotsak baino.

Beste kasuan, berriz, laborari den hiztun bat antzeztean ahoskatzen dute hobika-ria. Laborariek amodioa behar dutela eta, telebista programa bat egiten dute (*Amo-dioa pentzean da* izenekoa), laborariek maitasuna aurkitzeko. Parte hartzaileetako bat laboraria da, traktore batekin maitemintzen dena. Laborariak bere gustuak adierazten ditu eta traktorearekin hitzordu bat izaten du; egoera horretan, dardarkari hobikaria darabil beti: *u[r]te*, *a[r]unt*, *e[r]opa*, *izia[r]i*, *bipe[r]*.

Esan liteke, bada, hiztun zaharrek eta, oro har, mundu edo ingurune tradi-zionalarekin lotzen dutela dardarkari hobikariaren ahoskera. Hazparneko hiztun gazteek, hortaz, nahiz eta eurek egunerokoan ez ahoskatu hobikaria, hots horren errealitatearen berri badute; hau da, jakitun dira egun oraindik ere hiztun batzuek erabiltzen dutela. Ideia hori bat dator 3.3. atalean adierazi dugunarekin; alegia, Iparraldeko euskaran dardarkari ubularrak hobikaria ordezkatu duela neurri handi batean eta, hobikariak irautekotan, bereziki adineko hiztunen artean irauten duela. Libertimenduko parte hartzaile gazteek ere adineko hiztunen (eta laborarien) artean entzun bide dute gehienbat hobikaria eta errealitate hori islatzen dute libertimen-duan. Laborari batzuei ere ezartzen diete hobikaria, azken batean laborantza mundua ikuspegi, bizimodu eta ohitura tradizionalarekin lotu bide delako. Halaber, pentsa liteke hobikariaren ahoskera hori nahiko ezaugarri nabarmena eta hiztun-talde ja-kin bati lotua dela eurentzat, libertimenduko pertsonaia batzuk ezaugarritzeko balio baitu.

5.2. [r] Hegoaldeko hiztunen ezaugarri gisa

Libertimenduan Hegoaldeko euskal hiztunak antzeztu behar dituzten guztietan, dardarkari hobikaria ahoskatzen dute parte hartzaileek; dardarkari hobikaria Hegoal-deko hots gisa identifikatzen dutenaren seinale litzateke (Artzelus 2021: 135). Lau Hegoaldeko pertsonaia agertzen dira emanaldian: kontzertu bateko bi laguntzaile, bertsolari bat eta ikertzaile bat. Guztiek [r] ahoskatzen dute kasu guztietan.

Lehendabiziko kasuan, kontzertu bat irudikatzen da, non abeslariak eta entzu-leak dauden. Tartean, kontzertuko sarreran dauden bi laguntzaile agertzen dira (txa-leko horiz jantzita), Hegoaldetik datozenak, eta sarrerez eta protokoloaz hitz batzuk esaten dituzte. Hegoaldekoak direla adierazteko, besteak beste, dardarkari hobikaria ahoskatzen dute: *kob[r]atzeko*, *beha[r]a*, *sa[r]era*, *p[r]otokoloa*, *abe[r]*.

Bigarren kasuan, bertso saio bat antzezten da, non lau bertsolarik hartzen duten parte. Gai batzuk ematen zaizkie (Palestina-Israel gatazka, Hazparneko gaztetxearen aurkako epaiketa, libertimendua bera, ikastoletako debekuak, etab.) eta bertsolariek bertsoak bota behar dituzte. Bertsolarietako batek Hegoaldeko hiztun bat gorpuzten du eta dardarkari hobikaria ebakitzen du: *be[r]iz*, *kuad[r]illa*, *edoze[r]*, *lapu[r]tzen*.

Azkenik, hirugarren kasuan, aipatu berri dugun bertso saioko gaietako bat liber-timenduen ikerketa izan da; hain zuzen ere, Gipuzkoatik datorren ikertzaile batek

Hazparneko libertimendua ikertzeko helburua du eta Hazparneko bolantek (dantzari-ek) libertimenduen ezaugarriak azaltzen dizkiote. Gipuzkoar ikertzaileak, bereziki, galderak egiten dizkie eta, horretarako, dardarkari hobikaria erabiltzen du: *nato[r]*, *ent[r]ebista*, *no[r]*, *Hazpa[r]nen*, *ona[r]tuko*, *ge[r]tatzen*.

Esan liteke, kasu guztietan, Hegoaldeko hiztunak direla adierazteko ezaugarri nagusietako bat dela dardarkari hobikaria; horrekin batera, besteak beste, gaztelaniako maileguak ere erabiltzen dituzte: *pues*, *guapoa*, *kuadrilla*, *aber*. Hobikariaren erabilera horrek baieztatzen du, neurri batean, 3.2. atalean aurreratu gisan, Hegoaldeko eta Iparraldeko hizkeren arteko aldeetako bat markatzen duten ezaugarri direla dardarkariak eta hiztunek ere hala bizi dutela. Dardarkari hobikaria Hegoaldeko hiztunen ezaugarri litzateke eta ubularra, aldiz, Iparraldekoen ezaugarri. Nahiko lotura finkatua eta zabaldua dela pentsa liteke, kontuan izanda hots bat edo beste erabiltzeak alde bateko edo besteko hiztuna identifikatzeko balio duela. Elebitasunak euskararen ahoskeran izan dezakeen eraginaren berri izateko eta horren inguruan gogoeta egiteko gertakari interesgarria da, baita hizkuntzaren estandarizazioari begira kontuan izateko alderdia ere.

6. Ondorioak

Artikulu honetan, euskarazko dardarkarien aferan Iparraldean dagoen dardarkariaren ahoskunearen aldakortasunari heldu nahi izan diogu, hain zuzen ere, dardarkari hobikariaren eta ubularraren artean dagoen aldakortasunari. 3.1. atalean erakutsi bezala, zenbait autorek jada duela zenbait urte egindako baieztapenen erakusgarri ekarri ditugu libertimenduetako antzezleen (zirtzilen) ahoskerak. Ukaezina da Iparraldean dardarkari ubularra nagusitzen ari dela, eta hiztun gehienengan erabat nagusitu dela dardarkari ubularra. Gure corpusean ikusi ahal izan dugu (5. atala) Hazparneko gazteen artean dardarkari ubularra orokorra dela; libertimendu emanaldiko zenbait egoera (eta pertsonaia) lirakeke salbuespen. Beraz, ezin uka daiteke Hazparneko hiztun gazteek dardarkari hobikaria ahoska dezaketela. Nahiz eta egunero koan eurek ez erabili, berariaz ebaki dezaketen hotsa izaten jarraitzen du. Esan liteke euren inguruan dardarkari hobikaria ahoskatzen delako errealitatea presente dagoela oraindik; ez da hots arrotza euren komunitatean, dardarkari ubularrak, neurri handi batean, hobikaria ordezkaturia badu ere. Hori horrela, pentsa liteke dardarkari hobikariak lekua duela lan honetako hiztun gazteen fonema inbentarioan; hiztunek berariaz ahoska, hauteman eta oroit dezaketen hotsa baita; fonema, alegia (Donegan & Stampe 2009: 13). Hala adierazten du libertimenduko zenbait pertsonaia (adinekoak, laborariak eta Hegoaldekoak) gorpuzterakoan, hiztun gazteok dardarkari hobikaria ahoskatzeak. Hiztunen hotsen biltegia osatzen duten fonema unitate guztiek ez dute erabilgarritasun eta gertagarritasun bera eta, Hazparneko libertimenduko gazteen ahoskerak aztertuta, dardarkari hobikaria gazteen hots biltegitik ez dela erabat desagertu ondoriozta dezakegu.

3.3. atalean adierazi dugu hots aldaketak ez direla egun batetik bestera gertatzen eta, baliteke, Hazparneko hiztun gazteen fonema sisteman dardarkari ubularrak hobikaria honezkero aski ordezkaturia izan arren, oraindik guztiz gauzatu gabe dagoen hots aldaketa izatea. Nolabait esan, dardarkari hobikariak badu hiztunongan oihartzuna eta isla, eta egoera jakin batzuetan, ziurrenik ahalegin bereziarekin, aktiba dai-

teke hobikaria. Aztergai dugun kasuan, berariaz egindako hautua izan da eta libertimenduko pertsonaia jakinak antzetzeko erabili da.

Hazparneko 2024ko libertimenduko datuak gogoan, aski argi geratzen da dardarkari hobikariaren erabilera hitzun zaharragoen ahoskerarekin lotzen dutela gazteek (5.1. atala). Jakitun dira, nolabait, helduen ahoskera desberdina dela eta, horregatik, adineko pertsonak gorpuzteko orduan dardarkari hobikaria ahoskatu dute. Era berean, dardarkariaren ahoskera hobikaria landa eremuarekin eta mundu tradizionalago batekin ere lotzen dute eta hala erabiltzen dute laborari baten papera egitean (5.1. atala). Honetatik gutzitik ondoriozta dezakegu, Hazparneko gazteen ikuspegitik, dardarkariaren aldakortasunaren ardatzean dardarkari hobikaria Iparraldeko adineko jendearen eta landa eremuko mundu tradizionalaren marka litzatekeela. Horrekin batera, Hazparneko gazteek dardarkari hobikaria Hegoaldeko hitzunen markatzat ere hartzen dute, hala gorpuzten baitituzte Hegoaldeko pertsonaien ahoskerak (5.2. atala). Izan ere, oro har euskal hitzunen artean Iparraldeko hitzunen dardarkari ubularrekin eta Hegoaldekoak dardarkari hobikariarekin identifikatzea aski lotura finkatua eta zabaldua dela esan daiteke dagoeneko.

Bibliografia

- Artzelus, Alex. 2021. *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna*. Gasteiz: EHUko doktorego tesia. <https://addi.ehu.es/handle/10810/51354>
- Camino, Iñaki. 2016. *Amiküze eskualdeko ^heskuara*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Camino, Iñaki. 2022. *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. Bilbo: EHU.
- Coyos, Jean Baptiste. 2010. Hizkuntza-ukipena. In Oihana Lujanbio (koord.), *Soziolinguistika eskuliburua*, 134-182. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritza.
- Donegan, Patricia & David Stampe. 2009. Hypotheses on Natural Phonology. *Poznan Studies in Contemporary Linguistics* 45(1). 1-31. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0002-x>
- Donegan, Patricia & Geoffrey Nathan. 2015. Natural Phonology and sound change. In Patrick Honeybone & Joseph Salmons (arg.), *The Oxford handbook of historical phonology*, 431-449. Oxford: Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199232819.013.007>
- Duguine, Maia. 2009. Hazparneko euskaraz bi hitz. *Euskera* 54(1). 193-210.
- Durand, Jacques. 2009. Essai de panorama phonologique: les accents du Midi. In Luc Baronian & France Martineau (arg.), *Le français, d'un continent à l'autre: Mélanges offerts à Yves Charles Morin*, 123-170. Québec: Presses de l'Université Laval.
- Egurtzegi, Ander & Christopher Carignan. 2020. An acoustic description of Mixean Basque. *Journal of the Acoustical Society of America* 147. 2791-2802. <https://doi.org/10.31219/osf.io/79ayb>
- Ensunza, Ariane. 2015. *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. Gasteiz: EHUko doktorego tesia. [http://hdl.handle.net/10810/16701\(2025/05/02\)](http://hdl.handle.net/10810/16701(2025/05/02)).
- Epelde, Irantzu 2004. *Larresoroko euskara*. Gasteiz: EHUko doktorego tesia. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Irantzu_Epelde_TESI.pdf\(2025/05/02\)](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Irantzu_Epelde_TESI.pdf(2025/05/02)).

- Etchebest, Xantiana. 2017. *Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa*. Université de Pau et des Pays de l'Adour & EHUko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10810/24870> (2025/05/02).
- Eusko Jaurlaritzza, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa. 2016. *VI. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskararen eremu osoa*. Donostia: Eusko Jaurlaritzza.
- Gaminde, Iñaki, Aintzane Etxebarria, Naia Eguzkiza, Asier Romero & Aitor Iglesias. 2017. Dardarkari anizkunaren aldakortasunaz. *FLV* 123. 29-64. <https://doi.org/10.35462/flv123.2>
- Hualde, José Ignacio. 2003. Phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 15-113. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Hualde, José Ignacio & Ander Beristain. 2019. Bi alofonia-gertakari Azpeitiko euskararen. In Aintzane Etxebarria, Aitor Iglesias, Hiart Legarra & Aitor Romero (arg.), *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*, 209-228. Bilbo: EHU.
- Kruszewski, Nikolai. 1978. On sound alternation. In Phillip Baldi & Ronald N. Werth (arg.), *Readings in historical phonology: Chapters in the theory of sound change*, 64-91. University Park, PA: The Pennsylvania State University Press.
- Labov, William. 1999 [1994]. *Principles of linguistic change: Internal factors*. Oxford: Blackwell.
- Ladefoged, Peter & Ian Maddieson. 1996. *The sounds of the world's languages*. Oxford: Blackwell.
- Luku, Antton. 2014. *Libertitzeaz*. Iruñea: Pamiela Etxea.
- Maddieson, Ian. 1984. *Patterns of sounds*. New York: Cambridge University Press.
- Maddieson, Ian. 2013. Uvular consonants. In Matthew S. Dryer & Martin Haspelmath (arg.), *WALS Online (v2020.4)*. Zenodo. <http://wals.info/chapter/6> (2025/05/02).
- Mitxelena, Koldo. 1990 [1961]. *Fonética histórica vasca (ASJUren Gehigarriak 4)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Oñederra, Miren Lourdes. 1998. Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak. *Euskera* 43(2). 439-449.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2016. Sobre seseo, yeísmo y otras cuestiones relacionadas con la pronunciación del español en el área vasca. In Dolors Poch Olivé (arg.), *El español en contacto con las otras lenguas peninsulares*, 83-102. Madril & Frankfurt: Iberoamericana Vervuert.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2019. Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz. *Euskera* 64(2-2). 939-957. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i64.44>
- Oñederra, Miren Lourdes, Oroitz Jauregi & Irantzu Epelde. 2014. Hitzunaren fonema inventarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania. *Lapurdum* 18. 75-95. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2504>
- Oñederra, Miren Lourdes, Agurtzane Elordui, Irantzu Epelde, Pilartxo Etxebarria, Oroitz Jauregi & Jasone Salaberria. 2015. Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du). *Euskera* 60(2). 499-531. <https://doi.org/10.59866/eia.v60i2.130>
- Padilla, Manu. 2009. Hazparneko euskara XVIII. mendeko testu argitaratugabe baten arbera. *Euskera* 54(1). 183-192.
- Urreta, Irati. 2025. *Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen*. Gasteiz: EHUko doktorego tesi argitaragabea.
- Zuazo, Koldo. 1998. Euskalkiak, gaur. *FLV* 30. 191-233. <https://doi.org/10.35462/flv78.1>
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2021. *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara*. Bilbo: EHU.

FAIR Mitxelena: aipamen-erlazioen erabilgarritasunerantz¹

FAIR Mitxelena: Towards the usability of citation relations

David Lindemann*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: We present experimental steps in the computational processing of the contents of Mitxelena's publications, and of the relationships they contain. Regarding the written work of Koldo Mitxelena (1915-1987), a philologist from Errenteria, we extracted citations from two Basque scholarly journals and collected them as citation relations in a database, on the one hand, and worked with the mentions of persons in Mitxelena's own work, on the other. We recorded the mentions of persons in their context, along with relationships involving the entities describing these people in the Wikidata knowledge graph. We have opened up new access paths for students and researchers to discover the work of Mitxelena. The results have been stored in an online database called *Inguma Wikibase*, which is accessible and reusable by anyone.

KEYWORDS: Linked Data; Wikibase; Koldo Mitxelena; citation relations.

LABURPENA: *Mitxelenaren argitalpenetako edukien eta horiek dituzten erlazioen prozesamendu konputazionalerako zenbait urrats egin dugu. Alde batetik, Koldo Mitxelena (1915-1987) Errenteriako euskalariaren lan idatziek euskarazko bi aldizkari zientifikotan dituzten aipuak erauzi eta aipamen-erlazio gisa datu-base batean jaso ditugu eta, bestetik, Mitxelenak berak bere lanetan aipatzen dituen pertsonak landu ditugu. Mitxelenaren laneko testuinguruarekin jaso ditugu pertsona horien aipamenak, Wikidata ezagutza-grafoan dituzten erlazioekin batera. Mitxelenaren lana ezagutzeko sarbide berriak ireki ditugu dagoeneko, ikasleentzat nabiz ikerlarientzat. Emaitzak Inguma Wikibase izeneko datu-basean jasota geratu dira, sarean, edonork ikusi eta berrerabiltzeko moduan.*

HITZ GAKOAK: *Datu Lotuak; Wikibase; Koldo Mitxelena; aipamen-erlazioak.*

¹ Hemen aurkezten ditugun emaitzetara heltzeko lanak «*Monumenta Linguae Vasconum* 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuak eta «*Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque (DLTB)*» (Eusko Jaurlaritza, IT1534-22) ikerketa taldeak sustatu dituzte.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** David Lindemann. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). – david.lindemann@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-8261-6882>

Nola aipatu / How to cite: Lindemann, David (2025). «FAIR Mitxelena: aipamen-erlazioen erabilgarritasunerantz», *ASJU*, 59 (2), 41-59. (<https://doi.org/10.1387/asju.27560>).

Jasoa/Received: 2025-05-19; Onartua/Accepted: 2025-09-09. Online argitaratua / Published online: 2026-02-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Euskal Filologiaren lanabesak euskarri digitaletan jasotzeak aukera berriak dakar-tza; lehen mailako iturriak (batik bat, euskarazko testu zaharrak) eta bigarren maila-koak (ikerketa-artikuluak) paperezko euskarritik ateratzeak edukiak metodo konpu-tazionalekin prozesatzea ahalbidetzen du, lehen eskuzko lana izaten zenari bidezidor eraginkorrak zabalduz. Bi alderditatik abiatu gara norabide horretan, eta honako hauek dira: ikerketa-artikulek euren artean aipamen-erlazioak dituzte, artikulu bati erantsita datozen bibliografia-ataletan islaturik geratzen direnak; erlazio horiek jaso-tzea izan dugu helburu, euskarazko bi aldizkaritako artikulu guztietakoak, zehazki. Bestalde, Koldo Mitxelenaren idazlan guztietan aipatzen diren entitateak (pertsanak, tokiak, erakundeak, etab.) landu ditugu. Artikulu honetan, datu horiek lortzeko eta Datu Lotuen paradigmaren² araberako datu-base batean jasotzeko beharrezkoak izan diren lanak aurkezten ditugu, zenbait emaitzarekin batera. Software libreaz baliatu gara beti ere; hau da, edonork errepika ditzake proposatzen ditugun urratsak, edo beste datu-multzo bati aplikatu. Aldi berean, lortutako emaitzek orokor bihurtzen ari den FAIR irizpide-sortari³ erantzuten diotela erakutsi nahi dugu. Euskal Filologiako datuak eskala handian digital eta FAIR bihurtzeko proiektua diseinatzeke ekarpena egitea da artikulu honen helburua.

2. FAIR irizpideak eta Euskal Filologiako datuak

FAIR (*findable, accessible, interoperable, reusable*) irizpide-sortak datu-multzoen ezaugarriak deskribatzen ditu (Wilkinson *et al.* 2016). Lehen eta bigarren mailako iturriak (testuak eta artikulu zientifikoak) eta ikerketa-emaitzak (hiztegiak eta abarre-koak) argitaratzeko orduan, irizpide haiek betetzea baldintza bihurtzen ari da Ho-rizon deialdietan adibidez,⁴ edo gomendatu egiten da, ANECAren ikerketa jardue-raren ebaluazioan, esaterako.⁵ Irizpideok, labur esanda, paperezko argitalpenaren bitartez ezin dira bete, eta argitalpen digitalek ere ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte, edukiak datu-multzo (*dataset*) gisa modu eraginkor batean prozesatu ahal izateko.

FAIR irizpideak betetzeko bide bat eta argitalpen digitalen formatu batzuk kua-litatiboki sailkatzeko balio duen eskema proposatzen du Berners-Lee autoreak (ikus Martin *et al.* 2013), *Five Star Open Data* eskema deiturikoa.⁶ Eskema hark lizentzia irekiko PDF argitalpen bati izar bakarra ematen dio, eta izarrek gehitzen dizkie pro-zesamendurako PDF argitalpena baino egokiagoak diren formatuei. Bost izarreko formatua *Linked Open Data* da, Datu Lotu Irekiak, non datu-multzoen edukiaren

² Datu Lotuen paradigma, hau da, *Semantic Web* teknologiak, zitazio-erlazioetan aplikatzean, zita-zio-grafo irekiak eraikitzeke tendentzia orokorretan oinarritzen gara (ikus, adibidez, Heibi *et al.* 2024). *Inguma* bildumako datuak modu honetan prozesatzeko proposamena Astigarraga *et al.* (2025) artiku-luan aurkeztu dugu; hemen aurkezten duguna egitasmo orokor horren parte da.

³ Ikus <https://www.go-fair.org/> ere.

⁴ Ikus <https://www.openaire.eu/how-to-comply-with-horizon-europe-mandate-for-rdm>

⁵ Ikus 2024ko baremoari buruzko dokumentua, https://www.aneca.es/documents/20123/263604/BAREMO_091224.pdf

⁶ Ikus <https://5stardata.info/en/>

elementu batek makinak uler dezakeen helbide uniboko eta betikoa duen (URI bat, *uniform resource identifier*, hau da, betiko *http* helbide bat). URIaz, elementu hura beste elementu batzuekin erlazionatuko da, makinak ulertzeko modukoa den hizkuntza bat erabiliz: hirukote semantikoa, subjektu, predikatu eta objektua dituen. Hemen *elementu* deitzen dioguna edozer izan daiteke; hori irudikatzeko, saia gaitezen FAIR irizpideak Euskal Filologiaren lanabesekin erlazionatzen, Datu Lotuen paradigmaren arabera jokatu.

- *Findable*, aurkigarria. Datu-multzo bat (testu historikoen bertsio digitala, hiztegiak, artikulua, tesia, ikerketa-emaiza edo antzekoa) identifikatzaile uniboko batez deskribatuko da. Identifikatzaile haren bitartez datu-multzo hura deskribatzen duten metadatueta heldu behar da. Adibidez, argitalpen bati lotutako DOI (*Digital Object Identifier*)⁷ batean klik egiten duen pertsonari fitxa bibliografikoa eskaintzen zaio, argitaratzailearen webgunean; helbide horretara eskaera egiten duen makina bati, ordea, metadatu egituratuak eskaintzen zaizkio, makinak ezagutzen duen bokabulario estandar baten arabera. Metadatuaren parte honako hauek dira: ohiko argitalpen-metadatuak (aipamena egiteko modukoak) eta edukien formatuari eta erabiltzeko lizentziari buruzko xehetasunak, lizentzia irekia izanda beti ere.
- *Accessible*, atzigarria. Datu-multzoaren identifikatzaileak baliabidearen edukietara bertara eraman behar du, edukia deskargatzeko helbide batetik. Edukia web-interfaze batez ikus badaiteke, horren sarbideko helbidea ere baliabidearen metadatuaren parte izango da. Horretaz gain makina batek datu-base galdeketa egitera konektatzeko interfazea (APIa) badago, haren berri emango da.
- *Interoperable*, elkarreaginkorra. Edukiak mikro-mailan identifikatzaileak izan behar ditu, datu-multzoaren elementuak beste baliabide batzuetako elementuekin erlazionatu ahal izateko. Hiztegi-sarrerara batek, adibidez, bere URIa izango du, kanpotik elementu horri berorri heldu ahal izateko, edo hirukote semantiko batean erabili ahal izateko. Artikulu baten egile bat, adibidez, bere ORCID zenbakiaz deskribatzen bada, egile beraren beste artikuluekin edo egile hori deskribatzen duten fitxa biografikoekin lot daiteke. Halaber, erreferentzia bibliografiko batek DOI bezalako identifikatzailea badu, pertsonen nahiz makinek argitalpena zuzenean jotzeko modua dute, eskuzko bilaketa egin eta emaitzak desanbiguatu beharrik gabe. Beste adibide bat: hiztegi-sarrerara baten adiera bat beste hizkuntza bateko lema baten adierarekin bat badator, beste haren itzulpen-ordaina dela hirukote semantiko batez adieraz daiteke: A_hiztegia_A1_adiera > itzulpena > B_hiztegia_B1_adiera. Hirurok URIz adieraziko dira: bi hiztegi-tako elementuak, eta “itzulpena” erlazioa. Elementuen URIek elementura bertara bidaliko dute, eta erlazioaren URIak erlazio hura deskribatzen duten datu batzuetara bidaliko du. Bi elementuen arteko erlazioak, propietateak ere deituak, bokabulario estandarrekoak izatea komeni da, datuak ezagutza-grafo handietan integratzea helburua bada, behintzat.
- *Reusable*, berrerabilgarria. Gorago jada aipaturiko lizentzia irekiaz gain, ondorengo hau ere kontuan hartzekoa da irizpide honi dagokionez: datuen kalita-

⁷ Ikus <https://www.doi.org/>

tea, jatorriari (*provenance*) buruzko metadatu xeheetan bermaturik. Hau da, modu egituratuan emango dugu baliabidearen barruan egiten ditugun baieztapenen sorreraren berri: nork, noiz, non eta nola den sortua deskribatzen ari garen hiztegi-sarrera hori, corpus-eduki, artikulu, sarrera bibliografiko edo beste-lako elementu hori.

3. Aurrekariak eta egungo egoera

Lehen mailako iturrien prozesamendu konputazionalari dagokionez, Estarrona *et al.* (2022) lana aurreratua dela esan daiteke. Anotazio morfosintaktikoak daukan euskarazko lehen corpus historikoa da haren emaitza. Lema, kategoria gramatikala eta analisi morfologikoari dagozkien etiketez hornitu dituzte testu zaharretako hitzak. Web atariko erabiltzaile-interfaze batean⁸ bilaketa aurreratuak egin daitezke honezkerok, eta emaitzak testuinguruan ikusi.⁹ Proiektuko lan-fluxua honako hau izan da: (1) *Armiarma* gordailutik hartutako testu zaharren bertsioa berrikusi dute, testu historikoaren bertsio batera heltzeko non jatorrizko testu-hitzak *OEH*ko grafari egokituta agertzen baitira (adib. *gucietan* > *guzietan*, Etxepare Hitzaurrea);¹⁰ (2) aurreko urratseko egokitzapena *Euskaltzaindiaren Hiztegian* zerrendatutako lemaren formaren arabera egokitu dute (*guzietan* > *guztietan*); (3) Euskara Baturako erabilgarri dagoen tresneriaz baliatuz, etiketatzea burutu dute, testu-hitzentzat lema, kategoria gramatikala eta analisi morfologikoa lortuz.

Testu historikoen edizioa euskarri digitalean aurkezteko, ordea, Bilbao *et al.* (2011) lana da aipagarriena. Lazarragaren eskuizkribuko atalak eskaintzen ditu web-interfaze batek¹¹ bertsio batean baino gehiagotan, eta, kasu guztietan, jatorrizko grafia “erdipaleografikoan” eta “gaurko” grafian. Bertsio ezberdinak PDF dokumentu banatan eskaintzen dira, edizioa prestatu dutenen oharrak testuan bertan txertatuta agertzen direlarik, oin-ohar gisa. Bestetik, grafia erdipaleografikoa gordetzen duen bertsio digitalaren formategia erauzi dute, bakoitza jatorrizko testuinguruarekin. Datu horiekin, konkordantzia ekoitzi dute, eta edizio digitalari gehitu.¹² Zerrendak dira, PDF formatuan, eta, ondorioz, testu-bilaketa sinpleak baino ezin dira egin. Zerrendan ageri diren jatorrizko grafia duten formak (adib. *guztiaquin*) ez daude gaurko grafiako formekin (adib. *guztiakin*) erlazionatuta; hau da, gaurko grafiako formak ezin dira bilaketetan erabili. Halaber, dagokion lemara doan, lemaren araberrako bilaketa ahalbidetuko lukeen loturarik ez dute zerrendako formek, ezta deskribapen morfosintaktikorik ere. Konkordantzia-zerrenden sarreretatik ez dago ediziora berera salto egiteko modurik, zerrendan agertzen diren dokumentu-kodeak edizioa duten PDF dokumentuetan eskuz bilatzen ez badira.

⁸ Atariak <http://bim.ix.a.es/> helbidea du.

⁹ Ikus proiektua aurkezteko posterreko irudiak: <https://www.clariah.eu/node/12>

¹⁰ Ikus https://eu.wikisource.org/wiki/Linguae_vasconum_primitiae#2 (Wikitekako bertsioa, grafia egokiturik) eta <https://www.ix.a.es/wikisource-bim/index.php/Orrialde:Etxepare-LVP.djvu/4> (Estarrona *et al.* (2022) lanerako erabilitako bertsioa, faksimilearekin batera).

¹¹ Ikus <https://www.ehu.es/monumenta/lazarraga/>

¹² Ikus <https://www.ehu.es/monumenta/lazarraga/hiztegia.html>

Arlo honetan puntakoak diren proiektuen metodologiari jarraituz (*Linking Latin*; ikus Passarotti & Mambrini 2021),¹³ testu-hitzak Euskara Batuko formategi eta lemategi batera lotzeko datu-eredu bat proposatu dugu beste lan batean (Lindemann & Alonso 2025); lan horretan, testu batean ageri diren entitate izendunak Wikidatarekin lotzeko eta lotura hori Wikibase batean jasotzeko proposamena ere egin dugu. Antzeko eredu bat azalduko dugu hemen, Mitxelenaren *Obras Completas* bildumak (Mitxelena 2011) dakarren izendegiko entitateak Wikibase batean erreprezentatzeari dagokionez.

Inguma Wikibase izeneko datu-basea aurreko proiektu txiki batean sortu genuen (Lindemann *et al.* 2023). Inguma¹⁴ datu-basearen kopia du, Datu Lotuen paradigmatari egokitutakoa; hau da, deskribatzen diren entitate guztiek URI (web-helbide) uniboko eta betikoa dute.

4. Koldo Mitxelenaren bibliografia eta aipamen-erlazioak bi aldizkaritan¹⁵

Koldo Mitxelenaren lan idatzien multzo oparoa, lan honetan aztergai duguna, aski sakabanatuta zegoela esan daiteke: 1665 argitalpen eta berrargitalpen zenbatu ditugu,¹⁶ hainbat aldizkaritan eta liburutan agertzen direnak; horien artean gehien-gehienak behin edo behin baino gehiagotan berrargitaratu izan dira. 2011. urtean Mitxelenaren *Obras Completas* (OC; Mitxelena 2011) agertu arte, 745 testu garrantzitsuenak bateratzen dituen bilduma, ez zegoen Mitxelenaren lana batera ikusteko iturririk.

Gure lehenengo urratsa Koldo Mitxelenaren idazlanen argitaraldi bakoitzari identifikatzailea esleitzea izan da. Wikibasean, idazlan bakoitzaren argitalpen-metadatuak *entitate*¹⁷ bati lotu dizkiogu.¹⁸ Bigarrenik, lan haietako bat aipatzen duten artikulua bildu eta datu-base berean erreprezentatu ditugu modu berean.¹⁹ Hirugarrenik, aipamen-erlazioak erreprezentatu ditugu, aipatzen duen artikuluaen metadatuak Koldo Mitxelenaren lanera doan erlazio bat gehituz. Bi iturritako artikulua hartu ditugu

¹³ Corpusetako testu-hitzak eta hiztegi-sarrerak elkarrekin lotzen ditu Linking Latin (LiLa) proiektuak; ikus <https://lila-erc.eu/>

¹⁴ <https://inguma.eus> helbidean Inguma web-ataria aurkitzen da.

¹⁵ Atal honetan aurkeztutako esperimntua UEU/Inguma talde gisa proposatu genion Erretereriako Udalak babestutako Humanitate Digitalen Guneari, eta erakunde hark emandako bekaren laguntzaz burutu genuen; elkarrekin aurkeztu genuen poster gisa CLARIAH-EUS III. workshopean, 2024ko azaroan (Lindemann *et al.* 2024). Egitasmoaren nondik-norakoak Astigarraga *et al.* (2025) artikuluan zehaztu genituen.

¹⁶ Ikus https://wikibase.inguma.eus/wiki/Ziterauzi_KM#Mitxelenaren_argitalpen_guztiak. Elixabete Perez Gazteluren bibliografia, Worldcat, DialNet eta Inguma izan dira iturriak.


¹⁷ Datu basean, entitate bakoitzak identifikatzaile unibokoa izango du, eta entitatea deskribatzen dituen *propietate-balio* bikoteak eranstzen zaizkio; adib., *A artikulua-noiz argitaratua-1975*, edo *A artikulua-aipatzen du-B artikulua*, ingelesezko SVO ordenari egokitutako *hirukote semantikoak* osatuz. Hirukote horiek grafo itxurako sarea osatzen dute.

¹⁸ Hemen Mitxelenaren bibliografia: https://wikibase.inguma.eus/wiki/Ziterauzi_KM#KM_Bibliografia

¹⁹ Ingumako edukiak dituenek, *Uztaroko* artikulua guztien eta *ASJU*ko euskarazko artikulua guztien sarrerak bazeuden aurretik Wikibasean.

aintzat urrats honetan: *ASJU*²⁰ aldizkaria eta *Uztaro*²¹ aldizkaria. Denera, 830 aipu-erlazio zehaztu ditugu, 725 aipu-erlazio *ASJU* aldizkariko 175 artikulutatik, eta 105 aipu-erlazio *Uztaro* aldizkariko 37 artikulutatik.²²

Gure ekimenez, *OC*ko testuak aurreko argitaraldiekin loturik geratzen dira Inguma Wikibase datu-basean (ikus bisualizazioa 1. irudian).²³ Gure Wikibasetik kanpo, 2011 baino lehenagokoez nahiz *OC*ko argitalpenek kasu gehien-gehienetan ez dute makinak interpreta lezakeen identifikatzaileak (DOI, *handle* edo antzekorik), aipatzen duen artikulua bibliografia-atalean agertu litekeena. Horrek aipamenera identifikazio eta kudeaketa automatizatua zaildu egiten du. Horri gehitu behar zaio aipamenera erredakzioan formatuen arau eta estilo aniztasuna, makinarentzako ulergaitza dena. Erregistroen identifikazioak eskuzko lan handia eskatzen du, ondorioz.



1. irudia

*OC*ko bildumako testuen aurreko argitalpenak

Hala ere, identifikatze-lan horretan laguntzeko metodo semi-automatiko bat frogatu dugu, GROBID tresnak²⁴ eskaintzen duena. Tresna hori PDF argitalpena egituratzen saiatzen da, lanaren atalak isolatuz (izenburua, egilea eta afiliazioa, laburpena, testu-gorputza eta bibliografia), eta bibliografia-atala sarreretan zatituz. Sarrera bakoitzaren barne-egitura ere zehazten saiatzen da, hau da, egileen izenak, argitalpena-

²⁰ Ikus <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/index>

²¹ Ikus <https://aldizkariak.ueu.es/index.php/uztaro>


²² Ikus https://wikibase.inguma.es/w/index.php?title=Ziterauzi_KM#Zitazio-erlazioak

²³ Iturria: https://wikibase.inguma.es/wiki/Ziterauzi_KM#OCC-ko_argitalpenen_aurrekoak

²⁴ Ikus <https://grobid.readthedocs.io/en/latest/>

ren izenburua, euskarria, orrialdeak, argitalpenaren urtea eta abarrekoak etiketetzen. DOI identifikatzailea ageri bada, tresnak ez du arazorik: DOI hori aurkituko du, eta Crossref²⁵ web-zerbitzuaren bitartez ebatziko du aipatutako argitalpena zein den, eta haren metatadua formatu egituratuan datu-base hartatik lortzeko moduan egongo da.²⁶ Kasu horretan, PDFtik irakurritako informazioa baztertuko du, eta Crossref datu-baseko informazioa erabili. Halako identifikatzaileak ematen ez denean, eta aurrean dugun datu-multzoan (*ASJU* eta *Uztaro* aldizkarietako artikuluetan Mitxelenaren lanei egiten zaizkien aipamenak) hori horrela da kasu gehien-gehienetan, GROBIDek proposatzen duen sarreraren zatiketak zuzena izan behar du, erabiltzaileak hortik abiatuta dagokion argitalpenaren identifikatzailea eskuz zehaztu ahal izateko (Google Scholar,²⁷ Dialnet,²⁸ Inguma,²⁹ OpenAlex³⁰ eta abarreko zerbitzuen bitartez).

GROBID tresnarekin froga batzuk egin ondoren, Mitxelenaren aipamenak aurkitzeko metodoa baztertu egin dugu, tresnak aipamen asko aurkitzen ez zituela ikusita. Hau da, aipamenak dituen testua eskuz aztertea beharrezkoa izango litzateke edozein kasutan. Bizkorragoa eta eraginkorragoa izan da, beraz, “Mitxelena” eta “Michelena” hitzak bi aldizkarietako artikulua guztietan automatikoki bilatzea, eta ondoren hitz horien agerpenak bisitatzeko, Mitxelenaren lanetako baten aipamena ote duten zehazteko. Aipamena aurkituz gero, aipatutako lanaren identifikatzailea bilatu dugu Wikibase-seko erabiltzaile-interfazea erabiliz. Wikibaseko interfazeak 2. irudian bezala erakusten du bilaketaren emaitza; aipatutako idazlanaren izenburua bilaketa-eremuan sartu eta agertzen diren iradokizunen artean egokia hautatuz ezartzen da erlazioa.



2. irudia

Aipamen-erlazioa eskuz definitzen, Wikibase interfazean

ASJU eta *Uztaro* aldizkarietako artikuluen nahiz Mitxelenaren argitalpenen metadatuak Wikibase berean ditugunez, bi aldizkari horietan Koldo Mitxelenak dituen aipamen guztiak Wikibaseko identifikatzaileak erabiliz errepresentatu ditugu. Horrela, aipamen-erlazio bakoitza, teknikoki, bi identifikatzaileen arteko erlazioa da, Wikibase beraren baitan, 1. taulan adibide batez irudikatzen dugun bezala.

²⁵ Ikus <https://www.crossref.org/>

²⁶ Ikus <https://api.crossref.org/works/10.1075/cilt.131.05mic> helbidean CrossRef datu-baseak Mitxelenaren liburu-atal baten inguruan dituen datuak.

²⁷ Ikus <https://scholar.google.com/>

²⁸ Ikus <https://dialnet.unirioja.es/>


²⁹ Ikus <https://www.inguma.eus/>

³⁰ Ikus <https://openalex.org/>

1. taula

Aipamen-erlazio bat hirukote semantiko gisa

Subjektua	Predikatua	Objektua
https://wikibase.inguma.eus/entity/Q23037	https://wikibase.inguma.eus/entity/P62	https://wikibase.inguma.eus/entity/Q44027
<i>Errenteriako euskararen koka-gunea</i>	<i>aipatzen du</i>	<i>En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)</i>



3. irudia

Aipamen-grafoaren bisualisazioa, aipuak OC-itemei baturik

Aipamen-erlazioak aipatutako argitalpenaren argitaraldi zehatzarekin lotu ditugu. Bestalde, argitalpen bakoitza *OC*ko argitalpenei lotu diegunez, Mitxelenaren testu bakoitzeko argitaraldiak dituzten aipu-erlazioak batzeko moduan gaude, *OC* argitalpena *pibot*-elementutzat hartuz, 3. irudiak³¹ erakusten duen bezala.

Horrela sortutako datu-multzoan zeharkako galdeketak egin daitezke; adibidez, Mitxelenaren lanen ibilbideak haien artean konparatzeko galdeketak, lan horiek aipatzen dituzten ikertzaileak eta aipatutakoaren nahiz aipatzen duen lanaren argitalpen datak aintzat hartuz.

Azkenik, Koldo Mitxelenaren lanen aipamenak dituzten artikuluen metadatuak eta *OC*ko lanen erreferentzien metadatuak Wikidatan gehitu ditugu, bi multzo hauen arteko aipamen-erlazioa barne (hau da, aipu guztiak *OC*ko argitaraldietara “birbidalita”).³² *Scholia*,³³ datu bibliografikoen kudeaketa bisualerako tresna, Wikidatako datuez elikatzen da eta bibliometriako oinarriko azterketak eskaintzen ditu. Horrela, esperimentuaren emaitza orokor batzuk erakuts ditzakegu.³⁴

5. Mitxelenak aipatzen dituen pertsonak: *OC* izendegiaren berregituratzea

Mitxelenaren lana atzigarriago eta argitalpenen barruko elementu batzuk aurkigariago bihurtzeko urratsak egin ditugu: Mitxelenak bere artikuluko ugarrietan aipatzen dituen pertsonak dira gaia. Idazlan batean, testuan zehar edota bibliografian, ageri diren pertsona-izenak aurkitu eta erazteko teknika automatikoak badaude; horri dagokion ataza *entitate izendunen erazketa* (*named entity recognition*, *NER*) izenpean da ezaguna. Hala ere, nekeza izaten da entitateak izendatzen dituzten hitzak testu batetik eraztea eta lortutako emaitzak zuzentzea, tresna automatikoaren emaitzak ez baitira erabat egokiak izango. Hau da, aipatzen diren entitate batzuk ez dira lortutako zerrendan egongo, eta, bestalde, zerrendako batzuk ez dira entitate-izenak izango. Lortutako zerrendak eskuz zuzentzea da aukera bat.³⁵

Kasu honetan, zorionez, ez dugu bide luze horretatik jo beharrik izan, 2011ko Mitxelenaren *Obras Completas* bildumak izendegi-eranskina baitakar (XV. liburukian datorren “Índice de nombres”). Hura eskuz ekoitzi egin zuten argitalpenaren arduradunek, antza denez, *Fonética Histórica Vasca* laneko izendegi eta indizea *OC* guztira hedatuz. Paperezko argitalpenean tokia aurrezteko beharra dela medio, izenak laburturik agertzen dira, baita agertokien zerrenda ere, izen bakoitzarekin batera ematen dena. 4 irudian ikusten den moduan, pertsona gehienak abizen bakarraz eta lehenengo hizkietara mugatutako ponte-izenez deskribatzen dira, eta agertokiak bolumenaren erromatar zenbakiaz eta orrialdearen arabierazko zenbakiaz. Horrek erabilgarritasun mugatua dakarkio erabiltzaileari: Laburtutako izenaz jakin behar du

³¹ Iturria: https://wikibase.inguma.es/wiki/Ziterauzi_KM#Aipuak_aipuaren_xedeari_dagokion_OOCC-ko_itemera_%22birbidalita%22

³² Hemen idatzitako erlazioen zerrenda: https://wikibase.inguma.es/wiki/KM_Wikidata_export#Wikidatan_idatzitako_aipu-erlazioak

³³ Ikus <https://scholia.toolforge.org/>

³⁴ Hemen eskuragarria: <https://scholia.toolforge.org/author/Q2457804#citation-statistics>

³⁵ Euskarazko Hizkuntza Eredu Handia (Pérez *et al.* 2025) horrelako esperimentuak egiteko erabilgarria denean, eta hori aurtengo urterako espero da, harekin esperimentuak egitea interesgarria izango da.

pertsonak identifikatzen, eta zein testutan eta zer testuingurutan pertsona hori aipatzen ote den jakiteko, adierazitako bolumenaren orrialdera jo beharko du, aurretik jakin gabe zer idazlan izango den orrialde horietan aurkituko duena. Bigarren arazoa konpontzea erraza da, lehenengoa, aldiz, ez hainbeste.

- | | |
|--|---|
| <i>GH</i> X, 443 n. 7; XIII, 64, 181, 272, 330 | Goitia, J. XIII, 454 |
| Giacomelli, G. I, 139 n. 67 | <i>Goiz-argi</i> XIII, 399, 415 |
| Gide, A. XIII, 370 | <i>Goizian goizik</i> (canción) XIII, 18 n. 32, 108 n. 7 |
| Giedion-Welcker, C. XIV, 322 | Goizueta, J. M. ^a XIII, 60, 175 |
| Giese, W. III, 39; VI, 350, 367; VIII, 87 n. 8, 287-288, 629, 659; IX, 103, 129, 161, 172; X, 444 | Gómez, G. XII, 98 |
| Gifford, D. J. VI, 27; VII, 650 n. 2; VIII, 6; IX, 337; X, 380; XI, 1, 1 n. 1, 7, 11, 336 n. 13, 345, 506 n. 2, 609; XII, 58, 202 n. 1; XIII, 17 n. 27, 106 n. 2 | Gómez, P. XIV, 162 |
| Gil, J. V, 284 n. 12 | Gómez Moreno, M. I, 363; III, 7, 18-19, 48, 51, 74, 80, 85 n. 1, 90, 96-98, 99 n., 103-104, 106, 108, 109 n. 14, 110, 112, 118 n. 27, 123, 130, 138, 155, 158, 161, 163-164, 166, 166 n. 13, 167, 167 n. 16, 169, 169 n. 19, 170, 170 n. 20, 171, 174, 174 n. 4, 175 n., 176, 177 n. 7, 178, 178 n. 11, 196, 214; IV, 6, 31, 75, 95, 112, 114, 161, 164; V, 71, 97, 122, 168, 168 n. 9, 169 n. 11, 172, 192, 218 n. 19, 226 |
| Gil, L. II, 49 n. 4; XI, 585 | |
| Gil Reicher, G. XI, 90, 98; XIII, 11, 21, 98, 112 | |
| Gili Gaya, S. VII, 394 | |
| Gilliéron, J. I, 161 n. 4, 207; VIII, 392, 415 n. 1; X, 192 | |

4. irudia

Obras completas, “Índice de nombres” (lagina)

Erabiltzaileak izenak desanbiguatzeko izan ditzakeen zalantzei konponbidea emateko, entitate izendun horiei izen hutsaz gainerako metadatuak gehitzeko, eta, aldi berean, aipamenen testuinguruetara bide zuzenago bat eskaintzeko asmoz, izendegia paperezko eredutik atera eta eraldaketari ekin diogu, Inguma Wikibase datu-basean integratzeko. Laneko urratsak honako hauek izan dira:

1. *Obras Completas* bildumako artikuluei dagozkien PDF fitxategiak TXT bihurtu eta orrialdeka zatitzea, orrialde bakoitza bere orrialde-zenbakiz aurki-garri geratzeko.
2. Izendegia duen PDF argitalpena TXT formatura bihurtzea.
3. Izendegia egituratzea, erregela bitartez, TXT dokumentuaren lerro bakoitzean izen bakarra eta bere agertokien kodeak izan arte. 2 861 izenetako zerrenda da emaitza. Gehien-gehienak pertsona-izenak dira, eta gutxi batzuk testu historiko (anonimoen) izenak (*Cantar de la quema de Mondragón* edo *Refranes y Sentencias* gisakoak), edo aldizkari-izenak (*FLV*, *RIEV*).
4. TXT fitxategiko lerroak banatzea, bi zutabetako taula ekoizteko, horrela lehen zutabean entitatearen izena, eta bigarren zutabean agertokien kodeak izateko. Orain, datu-multzoa makina bitartez interpretatzeko moduan gaude, maki-nari adierazita zutabe bakoitzean zer aurkituko duen. Horregatik, Berners-

Lee-ren eskemaren arabera, hiru izardun datu-multzo bihurtu dugu *OC*ko izendegia: datuek orain egitura dute, datu-kategoria biak (izenak eta agertokiak) banandurik agertzen direlako, bakoitza bere zutabeen.

5. Inguma Wikibase datu-basean, izen bakoitzerako entitate bat sortzea, eta izendegiko datuak hari eranstea; honako datu hauek, zehazki:

— Agertokiari dagokion idazlana (*OC*ko atala). Inguma Wikibasean *OC* bildumaren atal guztien metadatuak bagenituenez (ikus goiko 3. atala), erregela batek agertokiaren kodeak (bolumena, orrialdea) dagokion artikulua-ekin erlazionatu eta orrialde-zenbakiak dagokien artikulua-ren azpian jaso ditu, 5. irudiak erakusten duen moduan.

— Artikulu horri dagokion agertokiaren zerrenda (kodeak). Denera, *OC*ko atalek 13.218 aipu-erlazio dituzte, testu berean entitate berak dituen aipamenak aipamen bakartzat hartuta. Mitxelenaren lan bereko entitate bereko aipamen guztiak zenbaketan onartuz gero, ordea, 21.633 dira. 5. irudiko adibidean, lan berean 4 aldiz aipatzen du Mitxelenak Gómez Moreno.

El vasco y las lenguas antiguas de España y Francia

orrialdea(k)

V: 168, V: 168 n. 9, V: 169 n. 11, V: 172

testuingurua

[V: 168] Este endeble castillo de naipes se hundió, más que por el ataque de orden teórico —bien fundado, por otra parte— procedente de Zyhlarz, por el descubrimiento debido a don Manuel Gómez-Moreno de un nuevo sistema de lectura conforme al cual los signos ibéricos sólo en parte son alfabéticos —es decir, representación de vocales o consonantes aisladas—, lo que deja un residuo de 15 signos que corresponden a grupos de consonante más vocal.


5. irudia

Gómez Moreno izenaren aipamen bat testuinguruan (Wikibase)

— Mitxelenaren idazlan horretan, adierazitako orrialdean, izenak duen testuingurua. Dagokion izena duen esaldi osoa erauzten saiatzen da erregela bat, adierazitako orrialde zehaztetik (ikus *Gómez-Moreno* izenaren³⁶ aipamen bat Mitxelenaren “El vasco y las lenguas antiguas...” lanean, Wikibase interfazean erakusten den bezala, 5. irudian). Lehenengo saiake-

³⁶ Gómez Moreno deskribatzen duen entitateak honako helbidea du: <https://wikibase.inguma.eu/entity/Q46308>

ran, 21.633 aipu-erlazioetatik 19.407 testuinguruz hornitu ahal izan dira (% 89,7). Saiakera horretan, entitate gutxi batzuei baino ez zaie grafia alternatiboa duen bigarren izenik gehitu (adib., *Leizarraga*-ri *Leiçarraga* gehitu diogu). Bigarren saiakera egiteko, testuinguruua aurkitu gabe geratu diren entitateei sistematikoki gehitu diegu *O*Cko izendegian duten parentesi arteko ezizena (*Txillardegi*, *Orix*e, etab.), eta beste askori abizena grafia alternatibo batean gehitu diegu eskuz (*Álvarez*-i *Alvarez*, *Aquesolo*-ri *Akesolo*, eta *Artetxe*-ri *Arteche*),³⁷ bilaketa gehitutako izenekin errepikatzeko. Oraingo honetan, aipamenen % 91,8 testuinguruarekin deskribatuta dago datu-basean; 131 izen (% 4,5) geratzen dira testuinguru bat ere aurkitu gabe, tartean pertsona-izenak ez diren asko.




6 .irudia

Open Refine aplikazioan, *Iturriaga* abizenarentzako iradokizunak

³⁷ Ikus https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_entitateak_izen_alternatiboekin

6. Izena Wikidatan edo euskarazko Wikipedian bilatzea, adierazitako pertsona deskribatzen duen Wikidata entitatea zehazteko. *Open Refine* aplikazioa³⁸ erabili dugu, izen literalak Wikidatako entitateekin lotzeko eskaintzen duen metodo semi-automatikoa eskaintzen duena, baita Wikidatako eta euskarazko Wikipediaren online interfazeak ere. Open Refine kasu honetan mugaturik geratu da oso, ponte-izenik gabe anbiguotasun gehiegi baitago hainbat eta hainbat abizenetan (ikus 6. irudian maiztasun handiko *Iturriaga* abizenarentzako lotura-iradokizunak). Hala ere, maiztasun gutxiko abizenek lotzeko hautagaiak Open Refine bitartez bizkor aurkitzea posible izan da (adib. *Haritschelhar, J.*).³⁹ Euskarazko Wikipedian izenak bilatzea eraginkorra izan da maiztasun handiko abizenen kasuetan (*Barbero, Wagner, Iturriaga*), abizen bereko hautagai gutxiago ematen duelako Wikidata baino, eta euskalaritzarekin lotura duen hautesleak euskarazko Wikipedian bere izeneko orrialdea izango duelako. Wikipedian deskribatzen den entitate orok bere identifikatzailea du Wikidatan, baina Wikidatan deskribatzen diren entitate guztiek, ordea, ez dute Wikipedian artikulua. Bilaketa bizkortzeko, egokiena izan da pertsonaren ponte-izenak (eta bigarren abizena) *OC*ko agertokietan aurkitzea; kasu gehienetan testuingururen batek izen osoa ematen du, entitatea desanbiguatzen duena. Horretarako, Wikibasen jasotako testuinguruak taula-formatuan deskargatu ditugu, izen osoa edo desanbiguate-atazan lagungarria izan daitekeen bestelako informazioa bertan bilatu ahal izateko; Wikidatako identifikatzaile egokia lortutakoan, taulan bertan anotatu dugu, gero Wikibasean jasotzeko. Oro har, izen osoa lortuta, pertsona deskribatzen duen Wikidata-entitatea aurkitu egiten da; ikus 7. irudian Wikidatako interfazeko bilaketa-emaizetan emaitza bat hautatzeko unea.



7. irudia

Wikidataren erabiltzaile-interfazean bilaketa-emaizak,
entitate egokia eskuz hautatzeko

7. Emaitzak ikusarazteko datu-base galdeketak definitzea. SPARQL lengoia erabiliz, Wikibaseko edukiak lor daitezke. Galdeketa batek baldintzak eta aldagaiak ditu; baldintzak betetzen dituzten hirukote semantikoek osatuko dute emaitza. Gainera, emaitza hori hainbat bisualizio-eratan erakuts daiteke, taulak, mota

³⁸ Ikus <https://openrefine.org>

³⁹ Jean Haritschelhar edo Haritxelhar: <http://www.wikidata.org/entity/Q3068794>

anitzeko grafikoak eta mapak tartean. Oraingo honetan, ondorengoak definitu ditugu, eta ikerketa-galderaren arabera, berriak definitu ditzake edonork. (3) adibidekoak, adibidez, Mitxelenak gehien aipatzen dituen pertsonak erakusten ditu: aipatuena, Azkue, eta haren ondoren, Larramendi eta Schuchardt.

- (1) OCko izendegiko entitateen agerpenak testuinguruan 1 (testuak baturik).⁴⁰
- (2) OCko izendegiko entitateen agerpenak testuinguruan 2 (erlazioak banan-banan).⁴¹
- (3) OCko izendegiko entitateen agerpenak (barra-grafikoa).⁴²
- (4) OCko izendegiko entitateen agerpenak (grafo bisualizazioa).⁴³
- (5) OCko lanetan zenbat izendun entitate aipatzen diren.⁴⁴

6. Pertsonak Wikidatan

Eskuarlean dugun gaiari dagokionez, hau da, Koldo Mitxelenaren lana ezagutzeko bideak zabaltzeari begira, pertsonak deskribatzen dituzten Wikidatako entitateek balio gehigarria dakarte, OC bezalako paperezko argitalpenaren mugak gainditzen dituena. Jarraian aurkeztuko dugunak txosten hau idazteko unean ditugun datuak ditu oinarri; oraindik, OCko izendegiko pertsonetako batzuk baino ez daude Wikidatarekin lotuta. Zehazki, izendegiko 2.855 entitateetatik, 454 baino ezin izan ditugu Wikidatarekin lotzeko, hau da, % 16. Mitxelenaren lanean 7 aipamenetik gora duten guztiak multzo horretan daude. % 16 ratio hori handitzeko asmoa dugu ahal bezain laster, aukera izanez gero, % 100era eramateko. Eskuzko lana eskatuko du asmo horrek, pertsona-izenak, goian azaldu bezala, anbiguoak izaten direlako, ponte-izen osoak ez baditugu batez ere. Hala ere, uste dugu 454 horien gainean jada emaitza interesgarri batzuk ditugula, lanean jarraitzea justifikatzeko lain. Hasteko, datu esanguratsu bat: 454 horiek Wikidatarekin lotzeko, bederatzi entitate baino ez dugu Wikidatan sortu behar izan (% 2), beste guztiak (% 98) aurretik sortuak baitziren.⁴⁵

Wikidatako pertsona-entitate bakoitzak, besteak beste, pertsona hori deskribatzen duten Wikipedia artikuluetara du lotura. Artikulu horien eduki entziklopedikoa ez dago hirukote semantikoetan egituraturik, eta horregatik ezin da datu-base galdeketen bitartez aztertu. Baina artikulua existitzen diren edo ez bada datu interesgarria, hizkuntza ezberdinetako Wikipedietan hutsuneak zenbatzeko, adibidez, eta horren arabera artikulua

⁴⁰ Ikus https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_entitateen_agerpenak_testuinguruan_1

⁴¹ Ikus https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_entitateen_agerpenak_testuinguruan_2

⁴² Ikus [https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_entitateen_agerpenak_\(barra-grafikoa\)](https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_entitateen_agerpenak_(barra-grafikoa))

⁴³ Ikus [https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_entitateen_agerpenak_\(grafo_bisualizazioa\)](https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_entitateen_agerpenak_(grafo_bisualizazioa))

⁴⁴ Ikus https://wikibase.inguma.eus/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_lanetan_zenbat_izendun_entitate_aipatzen_diren

⁴⁵ Hauexek dira sortu behar izan ditudanak: *G. N'Diaye, A. Legarda, M. Palomar Lapesa, J. J. Beloqui, T. H. Wilbur, J. J. M. Araquistain, I. Zumalde, F. Echebarria Ibarra, J. Arambillaga*. Baliteke pertsona horiek jada Wikidatan egotea, nahiz eta guk ez aurkitu. Horrela balitz, sortu berri dugun entitatea aurretik existitzen zenaekin batzea (bietatik bat egitea, eta baten URLa betiko bestera birbidaltzea) litzateke ohiko jokabidea.

sortzeko lehentasunak definitzeko. 2. taulak lau hizkuntzako Wikipedietan ageri diren lehen hamar hutsuneak zerrendatzen ditu, Mitxelenaren lanean duten aipamen-kopuruaren arabera ordenaturik. Euskal Filologiak Wikipedietan duen isla hobetzeko asmoz, horietatik has liteke artikulua sortzeko lana. Pertsonak Mitxelenaren lanean duten aipamen-kopurua Euskal Filologian duten garrantziaren adierazletzat onartzen badugu, ikusten da euskarazko Wikipedian entitate esanguratsuenek artikulua dutela, beste hiru-eretan aipatuenetarikoz batzuk ere deskribatu gabe geratzen diren bitartean.

2. taula

Wikipedietako hutsuneak (2025eko urtarrilean): pertsonak (Wikidatan duten izen lehenetsiaz) eta aipamen-kopuruak Mitxelenaren lanetan

Euskarazko Wikipedia	Gaztelaniazko Wikipedia	Ingelesezko Wikipedia	Frantsesezko Wikipedia
Jean-Michel Iribarren (36)	René Lafon (118)	Manuel Larramendi (144)	Nicolaus Landuchius (74)
José de Jesús María Araquistain (35)	Silvain Pouvreau (71)	René Lafon (118)	Esteban de Garibay y Zamalloa (72)
Johannes Hubschmid (30)	Karl Bouda (62)	Luis Villasante (81)	Karl Bouda (62)
Fidel Fita y Colomé (28)	Ángel Irigaray (60)	Nicolaus Landuchius (74)	Ángel Irigaray (60)
Ulrich Schmoll (27)	Julien Vinson (54)	Silvain Pouvreau (71)	Juan Antonio Moguel (56)
Alfred Ernout (25)	Juan Gorostiaga (44)	Karl Bouda (62)	Xabier de Lizardi (54)
Hans Vogt (25)	Gerhard Bähr (43)	Ángel Irigaray (60)	José María Lacarra (50)
Joseph Greenberg (22)	Seber Altube (42)	Joanes Etxeberri (60)	Rafael de Micoleta (49)
Michel Lejeune (21)	Christianus Cornelius Uhlenbeck (42)	Juan Ignacio de Izueta (56)	Justo Gárate (47)
Luciano Serrano (21)	José de Jesús María Araquistain (35)	José María Lacarra (50)	Pedro Añibarro (42)

Bestetik, Mitxelenak aipatzen dituen pertsonen datu biografikoak ikus daitezke, tartean bakoitzaren jaiotze-data, jarduera eta abarrekoak. Adibide gisa, aipatutako metadatu horiek biltzeko galdeketa ekartzen dugu hona, 8. irudiko taula ekoizten duena,⁴⁶ baita 9. irudia sortzen duena ere, aipaturiko pertsonen jaiolekuak erakusten dituen mapa.⁴⁷ Esan bezala, ikerketa-galderaren arabera, bestelako datu-base galdeketa defini daitezke.

⁴⁶ Ikus emaitza guztiak hemen: https://wikibase.inguma.eu/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_wikidatarekin_lerroatutako_pertsonen_buruzko_datu_batzuk

⁴⁷ Ikusi hemen: https://wikibase.inguma.eu/wiki/KM_OOCC_izendegi_eta_hiztegiak#OOCC-ko_izendegiko_wikidatarekin_lerroatutako_pertsonen_jaiolekuak

Q45316	Araquistain J. J. M. ^a	Q wd:Q132366 803	José de Jesús María Araquistain		1700ko urtarrilaren 1a	Itziar	apaiz katoliko; lexikografo
Q45317	Araquistain J. V.	Q wd:Q116866 14	Juan Benanzio Arakistain	euskal idazlea	1828ko urtarrilaren 1a	Deba	idazle; jabetza-erregistratzaile
Q45315	Araquistain L.	Q wd:Q207485 6	Luis Araquistáin		1886ko ekainaren 18a	Bárcena de Pie de Concha	idazle; politikari; diplomazialari; kazetari; eleberrigile


8. irudia

Entitateen metadatu batzuk, Wikidatatik ekarriak

7. Ariketaren emaitza: Mitxelenaren lanetako aurkibideak

Software librea erabiliz, Mitxelenaren lana ezagutu eta aztertzeko bide batzuk zabaltzea izan da aurkeztutako esperimntuen helburua, baita hura aberasteko ere: Mitxelenaren lanak dituen lotura batzuk esplizitu bihurtu ditugu makinak ulertzen duen eta era sistematikoan datu-base galdeketa bidez esplota daitekeen forma batean. Zehazki, aipamen-erlazioak prozesatu ditugu, bi norabidetan: bi aldizkaritako lanetatik Mitxelenarengana, eta Mitxelerarengandik beste pertsonengana, Euskal Filologiako lehen edo bigarren mailako iturrien egileengana. Ez dugu jakintza berririk sortu, baina bai egin dugu dagoen jakintza aurkigarriagoa, elkarreraginkorragoa, berrerabilgarriagoa.

Aipamen-erlazioak landu ditugu hemen, eta esperimntu bat baino ez da izan, hau da, ez ditugu datu-multzo handiak landu; inondik ere ez ditugu Mitxelena aipatzen duten idazlan guztiak batu, bi aldizkaritara mugatu baitugu esperimntua. *OC* izendegia ere ez dugu osorik Wikidatarekin lerrokatu oraindik, baina zazpi aipamenetik gora dituztenak baditugu, oinarri gisa.



9. irudia

Pertsonen jaiolekuak, Wikidatatik ekarriak

8. Ondorioak

Aurrera begira, antzeko metodologiaz egin litezkeen “FAIR-ifikazio” ariketa batzuk aipatzen saiatuko gara, Mitxelenaren idazlanen edukiak aztergai izanik. Baina urrunagora jo baino lehen, aipatu behar dugu *OCh*, izendegiaren antzera, hiztegi-eranskina ere badakarrela, Mitxelenak aztertzen dituen euskal hitzak zerrendatzen dituen, agertokiekin batera. Oso interesgarria izango litzateke hiztegi haren sarrerak agertokiko testuinguruarekin batera identifikatzea eta aurkigarri bihurtzea. Kasu honetan, tamalez, *OCh*ren PDF argitalpenak ez dakar erregela tribialen bitartez egituratu litekeen formaturik, sarrerak eta azpisarrerak baititu (eta azpisarrerak interpretatzeko, sarrera nagusiarekin duen erlazioa esplizitu bihurtu beharko litzateke). Edozein kasutan, hau da, indizea eraldatzeak eskuzko lana eskatzen badu ere, norabide horretan pentsatzen jarraitzeak merezi duela uste dugu.

Hemen aurkezten ditugun emaitzak beste euskalari askoren idazlanak indexatzeko berrerabil daitezkeela esan beharrik ez dago, idazlan horietan aipatuko dituzten entitate asko jada jasota ditugu eta. Entitateen identifikatzaileak berrerabiliko genituzke, noski. Horrela, zer entitate (zer pertsona ez ezik, zein lan, zein toki, etab. ere) zein euskalariren lanean eta non aipatzen den neurtu ahalko genuke.

Antzeko metodologiaz lantzeko beste arlo interesgarri bat Mitxelenak eta, printzipioz, euskalaritzan ari den edonork erabiltzen duen Hizkuntzalaritza eta Filologia arloetako terminologia jasotzea litzateke. Izendegiaren kasuan bezala, bi aukera dugu, eta biak konbina daitezke: (a) testuetan terminoen bila abiatzea, terminoen erauzketa automatikoaren bitartez, edo (b) aurrez definituriko termino-bilduma baten sarrerak testuetan bilatzea. Datu-basean, testuak deskribatzen dituzten entitateei ondorengo metadatuak gehituko genizkieke: zer termino agertzen den testuan eta zenbat instantzian, bakoitza bere agertokiari lotuta. Terminoak (unitate lexikoak) hizkuntzaz hizkuntza (gaztelaniaz eta euskaraz) lotuko genituzke izendutako *kontzeptuak* deskribatzen dituen entitate-multzo bat *pibot* gisa erabiliz. Bestetik, terminoek izendatzen dituzten kontzeptuen artean erlazioak ezarri ahalko lirateke, erlazio kontzeptualak, alegia (adibidez: *ergatibo* eta *kasu gramatikal* terminoiez izendatutako kontzeptuek duten erlazioa, edo *aitzin-euskara* eta *berreraiketa*). Horrelakorik egiteko lan-fluxuak inplementatu izan ditugu beste nonbait.⁴⁸ Euskalaritzako argitalpenak helburu horiekin prozesatzea etorkizun hurbileko proposamena izan daiteke. Hainbat ikerketa-galdera erantzuten lagunduko lukeen baliabidea izango litzateke emaitza; honako galderak, esaterako: noiztik erabiltzen den termino jakin bat, zeintzuk diren termino horren itzulpen-ordainak, edo nork erabiltzen duen, eta beste zein terminorekin batera.

Aipatu bezala, PDF formatuko iturriak erabili ditugu aurkeztutako esperimentuan: *ASJU* eta *Uztaro* aldizkarien testu osoak, alde batetik, eta *OC*ren PDF bilduma, bestetik. PDF euskarriak mugak ditu: aldizkarian idazten duenak bazekien zehazki Mitxelenaren zer lan aipatu duen, eta *OC*ko indizea egin duenak bazekien zehazki zer entitate aipatzen duen Mitxelenak zer testutan. Informazio hori, ordea, anbiguo geratu da PDF euskarrian. Horrelako galerak ekiditen saiatzea zuzena litzateke, identifikatzaile unibokoak erabiliz. Mitxelenaren lanak aldizkari-artikulu batean aipatzean horrela egiteko, Inguma Wikibaseko identifikatzaileak erabiltzea aukera bat da, edota Wikidatakoa, aipatzen dena *OC*koa bada. Gaur egun *OC* bezalako bilduma argitaratzean, atal mailako DOI identifikatzaileak hasiera batetik esleitzea bide egokia litzateke, horiek aipamena egitean erabili ahal izateko.

Edizioak prestatzeari begira, horrelako ondorioa plazaratzen dugu: egile-hiztegia, pertsonen indizea, edo beste edozein motatako indizea paperezko argitalpena eskatzen duen formatuan mugatu beharrean datu-base batean jasoko bagenu, erabilgarritasun handia lortuko genuke hasiera batetik, entitateen anbiguotasunik gabe, testuingurua eskuz bilatzeko beharrik gabe, datu-base galdeketa aurreratuak ahalbidetzeko eraldaketa-lanik burutu behar izan gabe. Datu Lotuen paradigmak, gainera, elkarreraginkortasuna bermatzen du, lan honetan erakusten saiatu garen moduan.

⁴⁸ Azkenik, ENEOLI proiektuan (*European Network on Lexical Innovation*). ENEOLI Wikibase, proiektuan erabiltzen duguna, honako helbide honetan dago: <https://eneoli.wikibase.cloud>. Aurretik, *Elexis* Horizon proiektuan, ikus <https://lexbib.elex.is/>

Erreferentzia bibliografikoak

- Astigarraga, Aitzol, David Lindemann & Marije Bidaguren. 2025. Ziterauzi: euskarazko artikulu akademikoetatik zitazioak erazteko tresna-katea. In Begoña Altuna, Jon Alkorta, Xabier Arregi, Jose Mari Arriola, Ainara Estarrona, Aritz Farwell, Joseba Fernandez de Landa, Xabier Goenaga & Mikel Iruskietia (arg.), *CLARIAH-EUS. Zientzia Sozialak eta Humanitate Digitalak gaur egun*, 87-99. [Leioa]: EHU. <https://doi.org/10.5281/zenodo.15052532>
- Bilbao, Gidor, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Monoule & Blanca Urgell. 2011. Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa, v.1.2*. Gasteiz: EHU. <https://www.ehu.eus/monumental/lazarraga/>
- Estarrona, Ainara, Izaskun Etxeberria, Ander Soraluze, Ricardo Etxepare & Manuel Padilla-Moyano. 2022. The first annotated corpus of historical Basque. *Digital Scholarship in the Humanities* 37:2. 391-404. <https://doi.org/10.1093/llc/ffqab066>
- Heibi, Ivan, Arianna Moretti, Silvio Peroni & Marta Soricetti. 2024. The OpenCitations Index: Description of a database providing open citation data. *Scientometrics* 129(12): 7923-42. <https://doi.org/10.1007/s11192-024-05160-7>
- Lindemann, David & Mikel Alonso. 2025. Testu historikoak wiki-plataformetan, Datu Lotu gisa. In Begoña Altuna, Jon Alkorta, Xabier Arregi, Jose Mari Arriola, Ainara Estarrona, Aritz Farwell, Joseba Fernandez de Landa, Xabier Goenaga & Mikel Iruskietia (arg.), *CLARIAH-EUS. Zientzia Sozialak eta Humanitate Digitalak gaur egun*, 101-115. [Leioa]: EHU. <https://doi.org/10.5281/zenodo.15052564>
- Lindemann, David, Aitzol Astigarraga, Marije Bidaguren, Emilio Delgado, Galder Gonzalez & Kepa Sarasola. 2023. Inguma eta Wikidata uztartuz, euskarazko zientziaren eza-gutza-graforantz. In David Lindemann (arg.), *Miren Azkarateri esker onez*, 193-210. [Leioa]: EHU. <https://doi.org/10.5281/zenodo.7902516>
- Lindemann, David, Marije Bidaguren & Aitzol Astigarraga. 2024. Koldo Mitxelenaren Zitazio-Graforantz. CLARIAH-EUS III. workshopen aurkeztutako posterra. Bilbo, 2024-11/21. <https://doi.org/10.5281/zenodo.14221905>
- Martin, Sébastien, Muriel Foulonneau & Slim Turki. 2013. 1-5 Stars: Metadata on the openness level of open data sets in Europe. In Emmanouel Garoufallou & Jane Greenberg (arg.), *Metadata and semantics research*, 234-245. Berlin: Springer. https://doi.org/10.1007/978-3-319-03437-9_24
- Mitxelena, Koldo. 2011. *Obras completas (ASJUren Gehigarriak 54-68)*, 15 lib. Donostia & Gasteiz: "Julio Urkixo" Euskal Filologi Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia & EHU (Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluzen argit.).
- Passarotti, Marco Carlo & Francesco Mambrini. 2021. Linking Latin: Interoperable lexical resources in the LiLa Project. In Erica Biagetti, Chiara Zanchi & Silvia Luraghi (arg.), *Building new resources for historical linguistics*, 103-124. Pavia: Pavia University Press. <https://zenodo.org/records/5994271>
- Pérez, Naiara, Julen Etxaniz, Oscar Sainz *et al.* 2025. Latxa Euskarazko Hizkuntza-Eredua. *Ekaia* ale berezia 2025. 13-27. <https://doi.org/10.1387/ekaia.26338>
- Wilkinson, Mark D., Michel Dumontier, IJsbrand Jan Aalbersberg *et al.* 2016. The FAIR Guiding Principles for scientific data management and stewardship. *Scientific Data* 3. 160018. <https://doi.org/10.1038/sdata.2016.18>

Testu zaharretatik hizkuntzaren didaktikara: Iturriagaren fabulen (1842) edizio kritikiko modernoa¹

*From early texts to language didactics:
A modern critical edition of Iturriaga's fables (1842)*

Urtzi Reguero Ugarte*

Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

ABSTRACT: This work makes the case for the space classic texts should have in education and language teaching. Therefore, we present a critical edition of *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* (1842) written by Agustín Iturriaga. We have updated the orthography and added some explanatory notes to make it available for children in primary and secondary school.

We have also elaborated a short dictionary with dialectal words and listed some locutions and proverbs, in order to improve learners' level and fluency in Basque.

KEYWORDS: Fables; Iturriaga; critical edition; language teaching; philology.

LABURPENA: Lan honen asmoa da euskal testu klasikoek hezkuntzan eta, batez ere, hizkuntzaren didaktikan izan beharko luketen lekua aldarrikatzea eta ikasleen hizkuntza maila hobetzeko tresnatzat aurkeztea. Horretarako Agustín Iturriagaren *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos (1842) liburua*ren edizioa paratu da, ortografia gaurkotuan eta ohar argigarriekin, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek erabili ahal izateko.

Edizioarekin batera, hiztegia osatu da Iturriagaren testuetan agertzen diren hitz dialektalekin eta erabilera murriztua dutenekin. Era berean, esamolde, lokuzio eta errefracuak ere bildu ditut, ikasleen euskara maila hobetzeko eta adierazkortasuna handitzeko iturri izan daitezzen.

HITZ GAKOAK: fabulak; Iturriaga; edizio kritikoa; hizkuntzaren didaktika; filologia.

¹ Lan hau “*Monumenta Linguae Vasconum (VI): avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca*” (PID2020-118445GB-I00) proiektuaren eta Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia Ikerketa Taldea (DLTB; IT1534-22) ikerketa taldearen baitan egin da. Eskerrak eman behar dizkiet Ricardo Gómezi eta lan honen aurreko bertsioa irakurri eta ebaluatu duten kanpoko ebaluatzaile anonimoei testua hobetzeko egindako iruzkinengatik. Esan gabe doa huts guztiak nireak besterik ez direla.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Urtzi Reguero Ugarte. Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila - Hezkuntza eta Kiroi Fakultatea (UPV/EHU). Juan Ibañez de Sto. Domingo kalea, 1 (01006 Vitoria-Gasteiz). – urtzi.reguero@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0003-1549-0738

Nola aipatu / How to cite: Reguero Ugarte, Urtzi (2025). «Testu zaharretatik hizkuntzaren didaktikara: Iturriagaren fabulen (1842) edizio kritikiko modernoa». ASJU, 59 (2), 61-161. (https://doi.org/10.1387/asju.27561).

Jasoa/Received: 2025-05-20; Onartua/Accepted: 2025-11-12. Online argitaratua / Published online: 2025-11-18.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Ez dira gutxi hizkuntzaren jabeakuntzaz eta didaktikaz diharduten lanak, euskaraz zein beste hizkuntzetan (ik., adibidez, Mariscal & Gallo 2014; Ituero & Casla 2017; Gutierrez & Ezeizabarrena 2022; Fabregat *et al.* 2023, berri batzuk aipatzearen). Azken hamarkadetan hizkuntzaren enfoke komunikatiboa aldarrikatu da: hizkuntzaren irakaskuntza gramatika erakustera lerratu ordez, hizkuntza komunikazio tresna gisa erakustea proposatzen da (ik. Del Rio 1993; Del Rio *et al.* 2016; Bombini & Lomas 2019; Cassany 2021).

Los enfoques comunicativos de enseñanza del lenguaje ponen el énfasis en que los alumnos aprendan a comunicarse lo mejor posible dentro y fuera de la escuela. Su concepto de *adecuación* no intenta sustituir, sino ir de la mano del concepto de *corrección*, de modo que los docentes no persigan solo que los alumnos hablen *bien*, que no limiten la enseñanza de la lengua oral a su aspecto *formal o estructural*, sino que además tengan como objetivo educativo promover el desarrollo de las destrezas o *habilidades pragmáticas* interactivas que conviertan a los alumnos en hablantes competentes y comunicadores eficaces. Hablar bien no es solo hablar correctamente, algo importantísimo, sino también ser un comunicador eficaz. (Del Rio *et al.* 2016: 15)

Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022: 16) halaxe definitzen dute hizkuntza: “pentsamenduak gizaki baten gogotik beste batzuenara helarazteko erabiltzen da, eta tresna izugarri indartsua da edozein berri, sentipen, ideia eta burutazio solaskideekin partekatzeke”. Norberak bere buruarekin zein inguruko pertsonekin komunikatzeko erabiltzen den erreminta denez, hiztunen hurbileko egoerekin egunero ahoz, zeinuz zein idatziz erabiltzen diren erregistro formal zein informalekin lotzea da azken urteotan hizkuntzaren didaktikan egin den proposamen esanguratsuenetako bat (ik. arestiko aipua).

Bestalde, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren literatura* hitza bilatuz gero, hauxe irakurriko dugu: “Hitzaren bidezko adierazpenean, ahozkoan nahiz idatzian, oinarritzen den artea; era horretako idazlanen multzoa edo multzo jakin bat”. Zentzuzkoa bide da, beraz, pentsatzea arte horrek zer paper joko dezakeen arte hori bera gauzatzeko erabiltzen den hizkuntzaren didaktikan.

Mendozak (2007) ematen du horren erantzuna, eta aldarrikatzen du literatur tesuek hizkuntzaren benetako ereduak eskaintzen dituztela:

[L]o cierto es que la gran diversidad de ejemplos de uso que aparecen en el discurso literario ofrece amplias y eficaces posibilidades para asimilar un gradual aporte de *input* lingüístico y comunicativo en un proceso de aprendizaje que emplee materiales literarios. (Mendoza 2007: 10-11)

Aurrerago ideia bera defendatzen du:

La diversidad de recursos lingüísticos que muestran las producciones literarias es la base para muchas propuestas que enriquecen la competencia comunicativa a través de la recepción de las creaciones escritas. La literatura sirve de fuente y recurso adecuado para ampliar los conocimientos interculturales y pragmáticos, aunque estas facetas no se hayan tenido muy en cuenta hasta poco tiempo. (Mendoza 2007: 13)

Azken urteetan hainbat irakaslek kezka izan dute ikasleen euskararen kalitateaz, eta hizkuntzak adierazkortasuna ere galdu duela esan izan da (Mounole 2024). Gazte-

laniak eta frantsesak euskararen duten eragina bistakoa da eta zenbait egitura zuzenean bi hizkuntza horietatik kalkatu dira maiz (ik. Garzia 2005). Hiztun on eta komunikatzaile eraginkorrek lortzea izan behar du hezkuntza sistemaren eginkizun, besteak beste, eta hor hizkuntzaren didaktikan diharduen irakasleak badu lana: bateko, hizkuntza lan-tresna duten heinean, beren hizkuntza etengabe landu behar dute (Mitxelena-ren metafora baliatuz, aizkora zorrotz mantendu behar dute) ezagutza hizkuntza horren bidez transmititu behar dutelako eta, besteko, beren ikasleen hizkuntza maila jasotzeko, hobetzeko ahalegina egin behar dute. Haiena lehenengo, ikasleena gero.

Manterolak eta Idiazabalek (2009: 54) dioten bezala, hizkuntzaren didaktikaz ari garenean “helburu aurrerakoiak garbi izatea ezinbestekoa da: euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz, frantsesez nahiz ingelesez) hitz eginez atera behar luke ikasleak eskolatik” eta, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren arabera (77/2023 dekretua), hiztun elebidunak sortu behar ditu eskolak. Orotara hamabi erronka finkatzen ditu dekretuak, eta horietatik bat da hau: “Euskara erabilera eta euskal kulturarekiko jakin-mina garatzea guztion ondasunean duten eragina baloratzea”.

Helburu hori lortzeko, euskaraz idatzi edo euskarara itzuli diren testuak baliabide egokiak izan daitezke ikasleen hizkuntza maila lantzeko, hobetzeko eta adierazkortasuna eskuratzeko. Azken finean literatura-obretan elkarrizketa informalak, narrazioak, deskribapenak, esamoldeak, baliabide linguistikoak eta lexiko aberats(ago)a agertzen dira. Ezbairik gabe, hizkuntza ikasten edo lantzen jarraitzeko literatura-testuak baliabide ezin utzizkoak dira, betiere ikasleen hizkuntza maila eta eskaintzen den testuarena kontuan harturik. Hori dela eta, lan honetan Agustín Iturriagak 1842an argitaratu zituen fabulen edizio eguneratua paratu da eta bertan agertzen diren hitz, adizki eta esamoldeen zerrenda gehitu da.

Hau da lanaren egitura: hasteko lanaren helburuak (§ 2) finkatu eta aurrerariak eta justifikazioa (§ 3) azaltzen dira. Gero, Agustín Iturriaga nor zen eta zer baliabide duen esplikatzen da (§ 4) eta ondoren 1842ko fabulen edizioa osatzeko baliabideak irizpideak aurkezten dira (§ 5). Lanaren atal nagusia edizioak betetzen du (§ 6) eta ondoren datoz hiztegia (§ 7), esamoldeak (§ 8) eta adizkitekia (§ 9).² Ondorioek (§ 10) ematen diote bukaera lanari.

2. Lan honen helburuak

Euskal literatura idatzia 1545ean hasten da, Etxeparek argitaratu *Linguae Vasconum Primitiae* poema liburuarekin. Maiz esan izan da XVI. eta XIX. mende artean euskaraz idatzitako testu gehienak elizgizonek idatzitako obra erlijiosoak direla; kristau-ikasbideak edo dotrinak dira batez ere. Bada, ordea, Álvarez-Uriak (2024: 9) dioten bezala, “testu laiko eta literario interesgarriak gure hizkuntzan”. Gure idazle klasiko horiek ezagutzea, aztertzea, irakurtzea eta lardaskatzea kulturara gerturatzea da, hura ezagutzea eta hizkuntza lantzea.

Gaur egungo eskoletan klasikoak irakurtzeari buruz, Rodríguez-Miñambres, Otegi eta Etxanizek (2019: 17) diote urrunegi gerta dakiekeela, batez ere “gizarte

² Egiari zor, ebaluatzaile anonimo baten iradokizuna izan da adizkien zerrenda ere gehitzea, eta lana aberasten duelakoan nago.

globalizatu eta aldakorrean artearen eta literaturaren tradizioaren jabe ez diren irakurleei". Zailtasun horri beste bat ere gehi diezaiokegu: euskal idazle klasikoaren artean gutxi dira ikasleek dituzten edizio fidagarri moderno eta gaurkotuak; horietako bat da Axularrena (Urgell 2015; Salaberri Muñoa 2017).³ Jatorrizko testua gehiegi ukitu gabe, baina gaurko irakurleak behar ditu klasikoaren bertsio eguneratuak. Ez naiz ari, baina, testuak egokitzeaz bakarrik, baizik eta gaurko grafiara aldatu eta testua ulertzen eta interpretatzen laguntzen duten ohar didaktikoz horniturik dauden edizio moderno eta gaurkotuez. Horiek, ezberrik gabe, testu haiekiko distantzia linguistikoa, kulturala eta kontzeptuala gainditzen lagunduko dute; ik. Rodríguez-Miñambres, Otegi eta Etxanizek (2019: 15) duten kezka.

Hori guztia kontuan izanda, lan honek helburu bikoitza du:

Lehen da Agustín Iturriagak 1842an argitaratu zuen *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* liburuan agertzen diren fabula edo ipuinen edizio kritiko modernoa egitea. Iturriagak liburu horretan guztira berrogeita bederatzia fabula edo alegia bildu zituen (§ 6), eta "zalantzarik ez da batere Samaniego dela Iturriagaren alegien eredu eta iturri emankorrena: bost kenduta gainerako guztiak arabarraren bildumatik daude jasoak" (Ruiz Arzalluz 1995: 672).

Lehen argitalpen hartatik beste zenbait edizio izan ditu Iturriagaren liburuak. Areago, Manterolak (1880) bere kantu bilduma osatzeko orduan Iturriagaren paperen artean eskuz izkiriaturik aurkitu zituen liburuan argitaratutako fabulez gain beste sei argitaragabe. Lan honetarako horiek ez ditugu kontuan hartu. 1842ko hori da Iturriagak ezagutu zuen argitalpen bakarra. Bigarrena 1884an atera zen *Ipuyac eta beste moldaera batzuec Guipuzcoaco izqueran neurtubac* izenburuarekin Eusebio Lopezenean. Edizio hark ilustrazio batzuk ere baditu. 1932an hirugarren argitalpena izan zuten fabulek, Imanol Lekuonak prestatutako edizioarekin eta *Iturriagaren ipuiak* izenburuarekin. Ezagutzen den azkena Auspoa sailean atera zen Antonio Zabalaren gidaritzapean 1967an, *Ipuiak* izenburuarekin.

Iturriagaren edizio guztiak atera ziren euskara batuaren lehen arauak finkatu aurretik; beraz, edizio horiek ez dituzte egun darabilgun estandarren irizpideak jarraitzen eta ez bide dira egoki hizkuntza ikasten eta lantzen ari direnekin erabiltzeko, ortografia lantzeko eta ikasteko orduan nahasmena eragin dezakeelako. Jatorrizko argitalpenean oinarritzen den edizio honetan, aldiz, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleek testuaren edizio eguneratua eskuragarri izango dute ikasleekin landu ahal izateko.

Bigarren helburua da edizioaren ondoren fabuletan agertzen diren esamoldeen eta egun erabilera murrizta edo dialektala duten hitzen eta aditz formen zerrendak (§ 7, § 8 eta § 9) eskaintzea. Iturriagak bere liburua argitaratu zuenean ere osatu zuen euskara-gaztelania hiztegia. Desberdina da lan honek dakarrena, helburua ere bestelakoa baitu. Hiztegi hori osatzeko, Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* baliatu ditut, eta irizpide nagusia izan da erabilera murrizta edo dialektala dutenak jasotzea. Betiere, ikaslearen ezagutza lexikoa eta dialektala aberastea da zerrenda horien helburua. Bigarrenean jaso diren esamolde eta eserak hizkun-

³ Halaxe gogorarazi dit ebaluatzaile anonimo batek.

tzaren adierazkortasuna indartzeko eta hizkuntzari bizia emateko ere baliagarri dira —ik. Garziak (2008: 234 eta hh.) esaten duena—.

Fabulen edizioak eta esamoldeen, hitzen eta aditzen zerrendek ez lukete lanaren akabua izan nahi, horietatik abiatu unitate edo sekuentzia didaktikoak edo ikas-egoerak diseinatu nahi dira, ikaslea euskarara eta bere literaturara hurbiltzeko.

3. Aurrekariak eta justifikazio teorikoa

Hizkuntza irakasteko literatura testuak erabiltzea ez da gai berria. 1987an Collie-k eta Slater-ek argitaratu zuten *Literature in the language classroom* liburuan zenbait arrazoi eman zituzten hizkuntza irakasteko orduan literatura erabiltzeko (1987: 3-6) eta gerora beste zenbait autorek ere aldarri bera egin dute.

Kontuan izan behar den lehenengo alderdia da literatur testua benetako material linguistiko eta estetiko delako (Mendoza 2007: 11). Testuek erreferentzia linguistikoak eta estilistikoak dituzte, egoera komunikatibo desberdinak eta egoera horietan erabiltzen den hizkuntzaren lagina eskaintzen dute. Lazar-ek (1993: 6) defendatzen duenez, literatura hizkuntza ez dago erabat bereizita beste hizkera molde batzuetatik, beste esparru batzuetan, zuzenbidean demagun, dagoen bezala. Edonola ere, zenbait ezaugarri maiztasun handiagoz ager litezke, hala nola metaforak, aliterazioak edo errimak: “Literary language is therefore not completely separate from other forms of language. This obviously has some implications for the use of literature in the language classroom” (Lazar 1993: 8).

Testuak hizkuntza aldetik aberatsak izateaz gain, kulturalki ere aberasgarriak dira: norbere kulturaren, zein besterenean sakontzeko tresna ere izan litezke testuak (Collie & Slater 1987).

Arrazoi horiengatik, atzerriko hizkuntza bat ikasteko orduan, maiz proposatu izan da literatur testuak erabiltzea: ingelesaren eta gaztelaniaren didaktikan egin izan dira halako proposamenak (ik., besteak beste, Mendoza 2007; Lasagabaster 2014: § 5; Palacios 2017; Molino & Mier 2018 eta, euskaldun elebarkarrek gaztelania lantzeko, Laiz 2008).

Euskararen kasuan, saiakeraren bat edo beste egin da. Beaskoetxeak eta Iruskietak (2019) *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuinaren irakurketa ozen esanguratsuak lau urteko haurren hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunean izan duen eragina aztertu dute, ipuina Bizkaiko euskarara moldatuta. Badira, jakina, ipuinen, kondairen, kantuen eta haur-literaturarekin uztarturiko gainerako generoen erabilerari buruzko lan gehiago ere, baina gehienak haurren gaitasun literarioa garatzeko helburuz egindakoak dira, eta ez konpetentzia linguistikoak lantzeko, nahiz eta zeharka hori ere egiten den.

Euskal Herriko hezkuntzaz eta hizkuntzaren didaktikaz ari garela, bada kontuan hartu behar dugun beste faktore bat: gure ikastetxeetako haur askorentzat, euskara bigarren hizkuntza da. EUSTATEk 2022ko urriaren 27an argitaratutako datuen arabera, 2021eko urtarrilaren 1era bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan 390.973 (% 18) pertsonak zuten euskara lehen hizkuntza, 1.534.029 (% 70) lagunek gaztelania, 153.795ek (% 7) biak eta 114.402k besteren bat (% 5). Esan nahi baita, ikasleentzat % 80k bigarren hizkuntzan ikasten du eta hori, hezkuntzan lanean dabilenak kontuan izan behar du.

Vilak (2024) gogorarazten duen bezala, hezkuntza sistemaren ardura da ikasleek beren hizkuntza lantzeko aukera izateaz gain (zeinahi delarik ere gizartean hizkuntza horrek duen indarra eta prestigioa), irakaskuntzarako baliatzen den hizkuntza ere modu egoki eta eraginkorrean garatzea. Horretarako, beste hizkuntza batzuetako esperientziak erakutsi dute testu literarioak tresna bikainak direla ikasleen gaitasun komunikatiboak lantzeko (Mendoza 2007).

Horiek horrela, galde liteke edozein testu motak balio ote lezakeen hizkuntza erakusteko ala ezaugarri bereziren bat behar ote duen hautatzen den testuak. Lazar-ek (1993) dioenez, kontuan hartu behar da hizkuntza ikasten ari diren horiek daukaten hizkuntza maila. Ez da gauza bera Europako Erreferentzia Markoaren arabera A, B edo C mailan egotea (Europako Kontseilua 2001).

Hizkuntza lantzeko baliabideetan testu literarioak sartu behar direla aldarrikatzen du Mendozak (2007: 39) eta kontuan hartu beharreko printzipio hauek proposatzen ditu:

1. Testu literarioa komunikazio unitate bat da.
2. Ikasle-irakurleek dituzten aurrezagutzak kontuan hartu behar dira.
3. Testuaren esanahia ulertu eta eraikitzeko prozesuan lagungarri izango dira jarduera kognitiboak.
4. Testua ulertzeko ikasleek aurrezagutzen eta jarduera kognitiboen arteko lotura egin beharko dute.
5. Irakurketaren bidez gaitasun komunikatiboak eskuratzeko, erabilera pragmatiko eta kulturalak ezagutzeko eta horietaz gozatzeko, irakurlearen eta testuaren arteko interakzioa bultzatu behar da.
6. Hautatutako testuak ikasmaterial funtzioa duten dokumentu linguistikoak dira.
7. Planteamendu didaktikoak edukiak eta ezagutza komunikatibo eta funtzionalak uztartu behar ditu.
8. Edukien sekuentziazioa gaitasun komunikatiboen eta funtzio pragmatikoen arabera finkatzen da.

Bestalde, Palaciosek (2017: 193) bere egiten ditu Sanz Pastorren hitzak eta adierazten dute literatur testu bat irakurtzea ekintza komunikatiboa dela eta hizkuntza erabiltzeko gaitasun handia erakusten duela:

Sanz Pastor (2000: 25) asevera que «leer un texto literario es una actividad comunicativa —útil, además de placentera— que implica un alto grado de dominio de las destrezas escritas, de conocimiento del código lingüístico y de conocimiento del mundo». (Palacios 2017: 193)

Areago, irakurtzea den ekintza komunikatibo horretan, egoera soziolinguistiko desberdinetako adibide andana aurki daitezke, hain dira desberdinak testu eta genero literarioak. Halaxe dio Palaciosek, atzerritarrei gaztelania irakasteaz ari dela:

De hecho, en los textos literarios se pueden encontrar múltiples ejemplos para ilustrar y explicar hechos sociolingüísticos a los estudiantes extranjeros de español. (García González y Coronado González 1989). (Palacios 2017: 193)

Unean irakatsi nahi dena zer den, hainbat izan daitezke testu literario bat baliabide didaktiko moduan hautatzeko irizpideak (ik. Mendoza 2007: 74-76), eta betiere curriculumak eskatzen duen gaitasun edo konpetentziekin lotu behar dira.

Testuen izaeraz eta zailtasunaz ari direla, Rodríguez-Miñambresek, Otegi eta Etxanizek (2019: 10) halaxe diote:

Irakurle gaituak prestatu behar ditu eskolak (Moreno, 2011), eta, helburu horrekin, irakaskuntzako curriculumetan bi arlo bereizten dira irakurmenean: irakurtzeko gaitasuna, ikas-prozesuan aurrera egin eta ezagutzaren gizartean parte hartzeko aukera ematen duena, eta literatura-gaitasuna, testuekiko gozamen estetiko eta gustua gartzekoa (Palou eta Fons, 2016). Adinean aurrera egin ahala, askotariko testuak ezagutu behar dituzte ikasleek, gero eta zailtasun handiagokoak, eta komeni da, orobat, urteetan zehar belaunaldiz belaunaldi zabaldu diren testuak ere ezagut ditzaten. Zentzu horretan, beharrezkoa da idazlan klasikoak eta tradizionalak ezagutzea, herri baten jakturiaren transmisiorako bide diren aldetik.

Eta aurrerago halaxe diote (2019: 23):

Euskal klasikoak behar ditugu, eta beste kulturetako klasikoak geureganatu ere bai. Horrenbestez, argi dago klasikoen irakurketa bultzatu beharra dagoela eskolatan. Lan horiekiko elkarrizketak bideratzen baditugu, klasiko oro bizi-esperientzia bilakatzera lor dezakegu. Bestela, gure pentsamendua gero eta pobregoa izango da; ez dugu garapenik izango, ez pertsona, ez gizarte moduan. Klasikoak behar ditugu giza kohe-sioa eta nortasuna eraikitzen joateko. Zeregin horretan, beraz, eskolek eratu behar dituzte irakurketa plan eraginkorrak —zein obra, zertarako, nola— datozen belaunaldiek literatur ibilbide hezigarria egin dezaten.

Maiz, ordea, testu klasikoak ez daude irakurle arrunten, ikasleen edo irakasleen eskura, eta horiek eskuragarri izateko, elkarlana eta diziplinartekotasuna beharrezko bide dira. Testu horiek gaur egungo irakurlearentzat atondu behar ditu filologoak, ondoren, hezkuntza arloan eta hizkuntzaren eta literaturaren didaktikan lan egiten duen irakasleak balia ditzan.

Aurreratu denez, lan honetan XIX. mendean Agustin Iturriagak idatzitako euskarzko fabula edo ipuinen edizioa eskaintzen da, Lehen Hezkuntzako azken zikloan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baliabide didaktiko moduan erabiltzeko.

Gurean ez dira gutxi ahozko tradizioetik jasotako testu bildumak; ik., besteak beste, Igerabide (2022), Paya (2013) edo Etxanizen (2009) lanak. Horietan ahozko literatur testuak jasotzen dira: errefrauek eta esaera zaharrak, asmakizunak, aho-korapiloak, bertso eta koplak, ahozko tradizioko kondairak, besteak beste. Horietako batzuk XX eta XXI. mendeetan jaso eta erabili izan dira, baina bada zaharragorik ere: Igerabidek berak (2022: 45), esaterako, 1615eko maitasun olerki bat dakar: *zure begui ederroc, / ene lastana, / cativaturic nave, / librea ninçana*.

Berariaz ekarri dugu Igerabideren lagin hori hona. Igerabide, bilduma osatzeko, leial izan zaio jatorrizko grafiari, testu bakoitza jatorrizko grafian ematea hobetsi du. Guk ordea egungo ortografia arauak jarraituz atondu ditugu fabulak, hizkuntzaren ikasketan errazteko. Ez da zalantzarik Euskal Herriko ikasleak euskal literatur tradizioa erakarri behar ditugula; bestela, esanda, euskal idazle klasikoak ikasleei gerturatu behar dizkiegu, baina ikasketa prozesuan daudenentzat egokiagoa bide da ereduak ortografia gaurkotuan eskaintzea.

Ahozko generoko testu bildumak ugari badira ere, ez da hala gertatzen tradizio idatziko testu bildumekin: halako gutxi ditugu eskura. Álvarez-Uriak (2024) berriki atera duen liburuan euskal literaturaren historia berrikusten du emakume idazleen

ekarpenak kontuan hartuta. Antologia lana ere bada eta garaian garaiko euskal emakume idazleen laginak bildu ditu, grafia gaurkotu gabe.

4. Agustin Iturriaga eta bere fabulak hautatzeko arrazoiak

Agustin Iturriaga⁴ 1778an jaio zen Hernanin eta bertan hil zen 1851n. Urte luzez apaiz aritu zen bere herrian, baina pentsaera ilustratu-liberaleko irakasle, pedagogo eta idazle ere izan zen (Zalbide 2007; Beldarrain 2010).

Gorabehera handiko garaiak bizi izan zituen Iturriagak: Konbentzioaren Gerra (1793-1795), Independentziako Gerra (1808-1813), Hirurteko Liberal-konstituzionala (1820-1823), Lehen Karlistaldia (1833-1839).

Gizarte egoerarekiko, hizkuntzarekiko eta euskararen etorkizunarekiko kezka bide zuen Iturriagak. 1805 eta 1817 bitartean apaiz ez ezik, irakasle ere aritu zen Hernanin eta 1817-1818tik aurrera ikastetxe bat sortzea erabaki zuen, zigorrik gabeko metodologia berritzailean oinarritua. Iturriaga kezkatua zegoen etxetik euskaldun ziren umeez gaztelania gaizki ikasten zutelako; bere ustez, eskolan euskara lantzen ez zutelako zeukatzen maila apala gaztelaniaz (Urgell 2018: 675; Zalbide 2007: 74-75).

Iturriagaren asmo eta kezkek hain izan zuten entzute handia, non Gipuzkoako Batzarrek euskararen aldeko politika egiteko erabakia hartzean Agustin Iturriagari eskatu zioten ikasmaterial elebidunak prestatzeko (Zalbide 2007: 14; Urgell 2018: 568).

1830ean Gipuzkoako Batzarrek Sustapen Elkarteak eratu zuten “Ameriketako koloniak galdu izanagatik sortu zen egoera ekonomiko larriari aurre egiteko asmoz” eta euskara “gorde eta ilustratzeko” (Urgell 2018: 569). Elkarteak Iturriagari eskatu zion euskararen egoerari buruzko txostena idazteko (ik. Zalbide 2007).

Hurrengo hamarkadan, hizkuntzaren irakaskuntzari loturiko hiru lan argitaratu zituen Iturriagak: *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1841), *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842a) eta *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* (1842b). Zabalkunde handia izan zuten azken bi lan horiek, batez ere fabula edo ipuinen liburuak, Diputazioaren aginduz herrietan banatu baitziren.

Ikerlan honek azken liburu horretako testu guztien —salbu eta hiztegiaren— edizioa dakar. 1842ko fabulen liburu horretan biltzen dira berrogeita bederatzi alegia, hitzaurre gisako “Euskal Herriko gazteriar” bertsoa hasieran, eta akabuan Jainkoaren existentzia erakusten saiatzen den zenbait bertso, Virgilioren “Artzain koplak” eglogaren zati baten itzulpena, San Inazioaren martxa, Ezpata dantza eta hiztegia ditu. Guztia, hiztegia izan ezik, bertsoan idatzia.

Edizioa paratzeko, jatorrizko bertso argitaratuaren edizio digitalizatu baliatu dut, baina eskura izan dut Auspoak 1967an atera zuen edizioa ere (Iturriaga 1967).

Iturriagak dakartzan fabulak ez dira, inondik ere berak sortuak, berak euskarara ekarriak baizik. “Iturriagak ere molde herrikoien arabera hizkuntzaz eta metri-kaz berregin zituen hala Samaniegoren alegiak nola Virgilioren eglogak (Ruiz Ar-

⁴ Jaiotza agirian Agustin Ignacio María Pascual Ugalde Iturriaga Amitezarobe izenez ageri bide da, baina bere ohiko sinadura Agustin Iturriaga bide zen eta hori erabiliko dut nik ere lan honetan.

zalluz 1995)” (Urgell 2018: 639). Mitxelenak (2001 [1961]: 53) dioen bezala, sekreturik gabeko bertsozaintza erraz eta herrikoia baliatu zuen, eta, Zalbideren (2007: 21) arabera, “hizkuntza apala funtzio berri eta jasoetara hedatuz indartu behar zen euskara. Ordura arte erdara jaun eta jabe izandako goi-mailako esparru batzuetara sarbidea eskaini behar zitzaion baserriarren euskara jator baina mugatuari. Kultura europarra euskaraz eskuratzeko apustua egiten zuen Agustinek, bere *Fabula*-ipuinin eskaintzazko bertsoan”.

Martosek (2007: 12) dioenez, ipuin eta kondairak herrialde batetik bestera, hizkuntza batetik bestera, idatzitik ahozpora higitzen dira; orobat gertatzen da fabulekin. Europako kultura eta literatura tradizioan ezagun diren alegiak eskaintzen ditu Iturriagak, ozenki irakurtzeko edo kantatzeko moduan gainera (ik., haurrei altuan irakurtzeak dakartzan abantailez, Bueno *et al.* 2023).

Lasagabasterrek (2014) dekalogo bat dakar hizkuntzaren irakaskuntzan literatura testuek duten balioa aldarrikatzeko. Izatez, ingelesa atzerriko hizkuntza gisa ikasten ari direnen kasuan erabiltzeaz ari bada ere, euskararen irakaskuntzara egokitu daiteke proposamen hori. Ondoko lerroetan Lasagabasterren sei puntuak laburbildu eta dagokigun esparrura egokitu dira Iturriagaren fabulen edizioa justifikatzeko:

1. Testu originalak dira, ez dira egokituak. Hiztun gaituak izateko gisa horretako testuak ere ezagutu behar ditu hiztunak. Iturriagaren fabulen edizio berriarekin, euskara biziaren lagina izango dute eskura ikasleek; areago, testu horietan esamolde adierazkorrak eta euskarak dituen erregistroak aurkituko dituzte, baita euskalki batean idatzitako testu baten eredia ere.
2. Kultur ezagutza aberasten dute testuok. Iturriagaren fabulen kasuan XIX. mendeko edo, areago, lehenagoko ikusmoldea ezagutzeko eta hori nola aldatu den ikusteko aukera du irakurleak. Rodríguez-Miñambresen, Otegik eta Etxanizek (2019: 10) gogorarazten dutenez, “klasikoek ere hori bera egiten dute: kultura baten sustraietara eramaten gaituzte, eta urteen joanean eraiki den gizarte bateko partaide izaten laguntzen digute. Gizakiok identitate bat eraiki dugu ohituren, tradizioen, jokabideen gainean; elkar ulertzeko erreferentzia multzo bat”. Iturriagaren fabulak irakurtzean, euskal testu eta autore klasikoengana hurbilduko dira irakurleak; euskarazko ondare kulturala eta literatura unibertsaleko klasikoak izango dituzte eskura ikasleek.⁵ Horrekin batera, gizarteko ohiturak nola aldatu diren ere ikusiko dute.
3. Testu literarioaren bidez, ikaslea irakurketan inplikatzeko da, testua ulertu eta interpretatu behar duelako. Hemen, noski, irakasleak paper garrantzitsua jokatzen du, interpretatzen zailago diren pasarteetan laguntzeko.
4. Literatur gaitasuna lantzen da. Kasu honetan fabulak zer diren, zein egitura duten, pertsonaiak nolakoak diren ikasiko lukete ikasleek, besteak beste. Are gehiago, testu generoa eta baliabideak ere ezagutuko lituzkete. Iturriagaren fabuletako bertso-lerroek silaba kopuru konkretua dute eta pareek errima egi-

⁵ Istorio klasikoak edo horien bertso ezberdinak ezagutzea ere interesgarri da: “Cuando normalmente se habla de ‘cuento popular’ se hace como si éste fuera un concepto unívoco o uniforme. Nada más lejos de la realidad. A poco que penetramos en el abigarrado mundo de las tradiciones populares de cualquier comunidad, observamos un sinfín de formas y modalidades distintas” (Martos 2007: 17).

ten dute; hortaz, bertso idatzietara hurbiltzeko aukera eskaintzen dute fabula hauek. Hitzaurrean zortzikoaren erritmoa jarraitu duela azaltzen du Iturriagak: *ez det uste derala / egin lan alferra / ipuiak ifintzean / gure zortzikoan, / kantatzeko, / nahi bada, / harturik gogoan*. Aukera eskaintzen du, beraz, tradizioko musika erritmoak ere ezagutzeko.

5. Hizkuntza aldetik aberasgarriak dira eta ikasle/irakurlearen hizketa aberats dezakete. Lan honen akabuko hiztegian eta, batez ere, esamolde eta esaren zerrendan agertzen diren hitz eta egiturek eguneroko jarduna aberastu eta hizkuntza biziagotzen dute.
6. Pentsamendu kritikoa garatzeko lagungarri izan daitezke testuok. 2. puntuari aipatutako aldaketei eta hobetutako alderdiei buruz gogoeta egin dezake irakurle/ikasleak.

Etxanizek (2011: 73) gogorarazten du ezen “[e]l principal objetivo de las obras literarias es entretener, hacer disfrutar al lector, que goce con el argumento, el estilo, la poética del autor; pero, al mismo tiempo, es innegable la relación existente entre literatura y valores”; beraz, fabula hauek interpretatuta pentsamendu kritikoa gara daiteke, idatzi ziren garaiko balioak zein ziren aztertuta. “Ahuntzak eta akerrak” fabulak, adibidez, transfobiaz hitz egiteko aukera ematen du: *Akerrak ahuntz nahi dute / izan gehiengoa. / Gizonak andre moten / manerak harturik, / ikusten dirade maiz / tximu bihurturik*; emakume ederren estereotipoek hitz egin daiteke “Esne-saltzailea” fabularekin: *Gorputz liraina zuen, / gerria txit mehea, / ilea erporaino / urre kolorea. / Perla gisako hortzak, / ahoa txikia, / begiak beltz, handiak, / ezpaina gorria, / ibilian inori / ezer zor ez zion. / Hitz batean: jendeak / begiratzen zion*, eta misoginiak “Atsoa eta arakakosoa” alegian “atsoaz” egiten duen deskribapena irakurrita (Beldarrain 2010: 92).

Zentzu horretan, hala diote Rodríguez-Miñambres, Otegik eta Etxanizek (2019: 12):

Irakurgai klasikoak ez daude baltsamaturik; aitzitik, haien mezuak eta balioek mende honetako errealitatearen gainean begiratu kritikoa bat izaten laguntzen dute (García Gual, 2016). Merezki du ereduak diren obra klasiko horiek ezagutzeko, aztertzea eta hurrengo belaunaldiei helaraztea. (Rodríguez-Miñambres *et al.* 2019: 12)

Arestikoarekin, beste zenbait alderdi ere nabarmendu daitezke:

1. Ikasleek beren jarrera alda dezakete fabulak irakurrita atera ditzaketen ondorioekin. Fabulek berez dute helburu moralizatzaile bat eta XXI. mendean XIX. mendeko moralak duten fabuletatik ikastea proposatzea kontserbadorea eta atzerakoia da. Ez da, beraz, hori lan honen asmoa, baizik eta izan diren aldaketetatik ikastea, moralak ere aldatzen dela ikustea eta erakustea oraingo moralak ez dela betidanikoa eta ez duela betirakoa izan behar.
2. Literatur testuak irakurtzeak sormenari ateak irekitzen dizkio, era bateko edo beste jarduerak diseinatuta.
3. Testu erlatiboki konplexuak garaiz irakurri eta landuta, etorkizunean hizkuntza landuagoa izango dute ikasleek.
4. Ikerketek erakutsi dute irakurketak hizkuntza gaitasunean eragin positiboa duela eta, ondorioz, errazagoa dela zailtasun kognitibo handiagoko testuak ulertzen.

<i>Heste zimurtuarekin</i> <i>egon</i>	Txitxarra gelditu zan argala, umila, heste zimurtuakin eta erdi hila	Sekulako gosearekin	Txitxarra eta txingurria
<i>Hobea da eskuan</i> <i>seguru txoria, ez airean</i> <i>dabilen hegazti handia</i>	Txit errepain eder bat ikasi nian nik. On dek hik aditzea gaur nere ahotik: hobea dek eskuan seguru txoria, ez airian dabilen hegazti handia.	Hobea da seguru dauka- gun zerbait mantendu, hori baztertu eta agian lor- tuko ez dugun zerbaiten bila aritu baino	Arrantzalea eta arraia
<i>Kopet itsusia izan</i>	Eta nola baituen kopet itsusia, joan ziren txitxar kanta eta erausia.	Egoera animikoa adieraz- teko esamoldea	Txitxarra eta txingurria

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Kukuak soinua gaizki jo</i>	Baina gaizki jo zion soinua kukuak, uda joan eta zuen atzeman neguak	Gauzak gerorako uzteagatik berandu egin eta larri ibiltzea. Zezenak harrapatzearen pareko	Txitxarra eta txingurria
<i>Laratzak, herrian diren etxe guztietan beltzak</i>	Honela ikusten du dirala laratzak herrian diran etxe guztietan beltzak eta lan egiteko gure Jaungoikoak guztiok gaituela egiten astoak.	Beste lekuetan gauzak ez dira oso bestelakoak gurearen aldean	Errementaria eta zakurra
<i>Lo pisua (izan)</i>	Lokarriaz lotutzen ez dek gaitz lepoa, zergatik nere ustez pisua dik loa	Lo sakona izan	Arratoi eta saguen batzarrea
<i>Loa sentitu</i>	Ibili ziranean hiru bat legoa, gure nagusi horrek sentitzen du loa	Logura izan	Astoa eta txakurra
<i>Neguak atzeman</i>	Baina gaizki jo zion soinua kukuak, uda joan eta zuen atzeman neguak	Negua iritsi, neguak harrapatu	Txitxarra eta txingurria
<i>Ona, galdu eta gero ezagutu</i>	Ongi geran orduan, hobeto nahi degu, galdu ta gero ona ezagutzen degu.	Galtzen dugun arte ez gara konturatzen genuena ona zela	Igelak errege eskatzen
<i>Pazientzia da gaitz handia txiki egiten duena</i>	Ez det nik, ez, ahaztuko: da pazientzia gaitz handia egiten duena txikia.	Pazientzia laguntzen du gaitz errazago konpontzen	Astoa eta igelak
<i>Senper(rak) ikusi</i>	Ongi jan, ongi edan, behar haurrak hazi, senper orduan ohi du bakoitzak ikusi.	Nekeak izan, estuasunak pasatu	Kutuna
<i>Txakurraren gauerdiko ametsak</i>	Askotan dirudite gure esperantzak osoro txakurraren gaberdiko ametsak	Ilusioak	Esne-saltzailea

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Urrutitik eginagatik intxaurrak soinu handiak, alderatuta izan ohi dira intxaur txikiak</i>	Urrutitika eginagatik intxaurrak soinu handiak alderatuta izan ohi dira askotan intxaur txikiak. Egia handi hau erakutsitzen digu esperientziak.	Zalapartak eta arrabotsak ez dute hobia egiten ezer	Mendia haurgiten
<i>Zalez errabian</i>	Geldi-geldi zegoan zuraritz azpian, gazta nahi, ezin izan, zalez errabian	Gogo biziz, irrikitan	Belea eta azeria
<i>Zankoa atzera bota</i>	Hasi ari nahi badek, ez nak ikarutzen, nik ez diat zankorik atzera botatzen.	Atzera egin/jo; asmo bati ez eutsi	Koplarien tema Palemon juez dutela

9. Adizkitegia

Ondoko taula honetan jaso ditut euskara estandarrean erabiltzen ez diren, baina Iturriagaren fabula liburuan agertzen diren zenbait aditz forma. Lehenik, alfabetikoki ordenaturik, aditz laguntzaileak eman ditut, ondoren aditz trinkoak.

2. taula

Adizkien taula

izan	*edun	-i-
<i>diteke</i> : daiteke	<i>bazendu</i> : bazenu	<i>dirak</i> : didak
<i>ditezen</i> : daitezen	<i>banituke</i> : banitu	<i>dirazu</i> : didazu
<i>dirade</i> : dira	<i>degu</i> : dugu	<i>diote</i> : die
<i>gera</i> : gara	<i>dek</i> : duk	<i>diozkak</i> : dizkiok
<i>hari</i> : hadi	<i>derade</i> : det, dut	<i>dirate</i> : didate
<i>huen</i> : zuan	<i>det</i> : <i>dut</i> eta mendekoetan <i>de-</i> <i>rala</i> (<i>dedala</i> , <i>dudala</i>) eta <i>dedan</i> (<i>dudan</i>)	<i>ditet</i> : didate
<i>litzake</i> : litzateke	<i>dezu</i> : duzu	<i>dizkitet</i> : dizkidate
<i>natzazu</i> : natzaizu	<i>dezute</i> : dezue, duzue	<i>indazu</i> : emadazu
<i>nintzan</i> : nintzen	<i>dituzute</i> : dituzue	<i>ziozkan</i> : zizkion
<i>zaiote</i> : zaie	<i>geatzik</i> : gaitik, gaitu	<i>zizkiran</i> : zizkidan
<i>zaizka</i> : zaizkio	<i>genduke</i> : genuke	
<i>zaiozka</i> : zaizkio	<i>ginduke</i> : gintuzke	
<i>zaiozkate</i> : zaizkie	<i>ginduzkek</i> : geundekek	
<i>zan</i> : zen	<i>bat</i> : haut	
<i>zat</i> : zait	<i>nak</i> : nauk	
<i>zazute</i> : zaizue	<i>nazu</i> : nauzu	
<i>zera</i> : zara	<i>zinduen</i> : zintuen	
<i>ziraden</i> : ziren	<i>zute</i> : duzue; ik. <i>dezute</i>	
<i>ziran</i> : ziren		

*ezan	-ieza-	eduki
<i>zadak</i> : iezadak	<i>dizaioke</i> : diezaioke <i>zarazu</i> : iezadazu <i>bizaie</i> : biezaie	<i>daduka</i> : dauka <i>daukatzi</i> : dauzka <i>daukatzigu</i> : dauzkagu
egon	erabili	eraman
<i>nengoan</i> : nengoen <i>zaudezte</i> : zaudete <i>zegoan</i> : zegoen <i>zeagok</i> : zagok	<i>darabilzute</i> : darabilzue	<i>daramatzi</i> : daramatza
etorri	ibili	-io-
<i>atoz</i> : zatoz <i>aztozte</i> : zatozte	<i>nebilen</i> : nenbilan	<i>diozute</i> : diozue
jakin	joan	
<i>baziakiat</i> : bazekiat <i>dakizute</i> : dakizue	<i>dijoa</i> : doa <i>dijoakio</i> : doakio <i>dijoaz</i> : doaz <i>dijoazkik</i> : doazkik <i>goazemak</i> : goazemak, joan gaitezen <i>zijoan</i> : zihoan	

10. Ondorioak

Lan honetan lau ekarpen bereiz ditzakegu.

Batetik, Iturriagak 1842an argitaratutako 49 fabulen eta beste testu gehienen edizioa atondu dira gaurko estandarren ortografian eta testua ulertzeko ohar argigarriekin. Bestetik, fabula horietatik hartutako hitz dialektal eta erabilera urrikoekin hiztegia osatu da. Iturriagak fabulen liburuan darabiltzan esamolde, lokuzio eta esaera zaharren zerrenda ere prestatu da. Azkenik, taula batean bildu dira euskara estandarren aldean desberdinak diren adizkiak.

Edizioari esker, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek eskura dute XIX. mendeko autore baten testu eguneratua; beraz, testu hori zuzenean lantzeko aukera eskaintzen du saio honek. Gainera, hiztegiari eta esamolde zerrendari esker, hizkuntza garatzeko, jasotzeko eta adierazkorrago egiteko tresna jartzen da irakasleen eskura.

Proiektu zabalago baten parte izan nahi luke honek, eta beharrezko ikusten da fabulen edizio honetatik abiatuta unitate, sekuentzia, ikas-egoera edo proiektuak garatzea Lehen zein Bigarren Hezkuntzan euskal literatura eta euskara bera lantzeko, estrategia didaktiko zehatzekin, Rodríguez López-Vázquezek estrategia azaltzen duen moduan ulertuta:

Al situar el corpus textual sobre el que trabajamos en la perspectiva de «estrategias didácticas» estamos organizando el plan de actuación dentro de una perspectiva que no se contenta con la mera formulación de actividades, sino que pretende integrar es-

tas actividades en un marco de procedimientos y estrategias en donde el corpus seleccionado tiene sentido en tanto que vía para producir un cambio cognitivo en la población sobre la que se va a actuar. (Rodríguez López-Vázquez 2003: 121)

Beaskoetxeak eta Iruskietak (2019: 77) erakusten dutenez, “[i]puinaren irakurketa esanguratsuak eta hori garatzeko esku-hartzeak haurren euskarazko hizkuntza-eta komunikazio-gaitasunak garatzen lagundu die”, edozein dela ere ikasle horien ama-hizkuntza. Hizkuntzaren didaktikara begira, edizio honetan bildu ditugun Iturriagaren fabulek aparteak aukera eskaintzen digute LHko zein DBHko ikasleen gaitasunak lantzeko, horretara bideratutako sekuentzia, unitate edo proiektu egokiak garatuz gero. Horretarako, jakina, kasu batzuetan, eta ikasleen hizkuntza-mailaren arabera, beharrezkoa izango da irakasleak irakurketa gidatua eskaintzea, testuaren interpretazioan lagundu eta esanahia eraikitzeko (Colomer *et al.* 2018: 178). Hori izan da lan honetan eskaini ditudan ohar argigarrien, hiztegiaren eta esamoldeen zerrendaren asmo nagusia.

Lan honen helburua ez da izan azaltzea fabulen bidez landu litezkeen alderdiak zein diren eta banan-banan aipatzeak luze joko luke, baina, esaterako, hizkuntzaren erregistro aldetik hitanoko eta zuketako formak eta egun galdurik den errespetuzko trataeraren adibide ugari ditugu. Eredu izan litezke gaurko ikasleek erabilera horien berri izan dezaten.

Lexiko aldetik ere fabulok eskaintzen dutena ez da gutxi. Gizarte aldaketengatik azken hamarkadetan erabilera apalduz edo desagertuz joan diren hainbat hitz agertzen dira istorioetan; horietako asko nekazal munduarekin loturiko lan tresnak, animaliak eta berekin erlazonatutako hitzak dira, hala nola *abaraska*, *aitzur*, *artzanor*, *astazai*, *aurrera-zerri*, *besabe*, *bostortz*, *galtzarbe-sare*, *golde*, *heia*, *jorratu* eta *kio*. Denboraren poderioz, hitz batzuek esanahia aldatu dute, edo beste bat nagusitu zaie: hori da *jorratu* edo *txertatu* aditzen kasua eta neurri batean *uzartu*-rena; lehenak egun adiera abstraktuagoa du eta gai edo ideia bat da jorratzen dena, ez lurra; antzeko prozesua izan dute beste biek.

Ikaslea berea ez den beste euskalkietara hurbiltzea beren hizkuntza maila eta kontzientzia linguistikoa jasotzea da. Iturriagak euskara estandarrean ez dauden, edo usu erabili ez diren, zenbait forma ditu: *adierazo*, *aienatu*, *asnas*, *bagelgabetanik* eta *etzin*, besteak beste.

Gizarte eta kultur aldaketek espazioa eta materiala neurtzeko sisteman ere eragin dute. Iturriagak egun erabiltzen diren ereduez bestelako sistemak dakartza: ardoa neurtzeko *txopina*; distantzia neurtzeko *zentzadar*, *kana* eta *legoa*; pisua neurtzeko *ontza*. *Kuarto* diru mota ere ageri da, eta balio gutxiko *ardit* txanpon mota ere bai.

Esamoldeez den bezainbatean, literatura idatzitik jasoak diren arren, autoreek ahozko tradizioetik hartu ohi dituzte halakoak (Izagirre 1981); beraz, esamoldeak berriro gureganatzea ahozko hizkuntzaren aldeko aldarria egitea ere bada.

Alderdi linguistikotik lekora, kulturalki, historikoki eta etnografikoki ere badute zer erakutsi fabulok, iraganeko ohituren, bizimodu eta pentsamoldeen lekuko baitira. Hizkuntzaren didaktikari, beraz, ikuspuntu funtzionalaz gain bestelako begiratu bat ere ematen zaio.

Bukatzeko, balizko proposamen didaktiko baten bidez ikasleek hizkuntza gaitasunarekin sormena ere landu dezakete irakurritako fabuletatik abiatuak beren istorioak

idatziz, dela poesia bidez (ik. Mendoza & López 1997), dela bertso neurtuen bitartez, dela bestelako testu generoak baliatuz (ik. Delmiro 2015). Seargeant eta Greenwellek (2013) proposatzen dute hizkuntza lantzeko bide paregabea dela idazketa sortzailea, eta Sotomayor, Coloma, Jéldrez eta Osorio autoreek (2020) erakutsi dute zer eragin duen gramatika modu integratuan irakasteak narrazioen idazketaren bidez. Iturriagaren fabula hauetatik abiatuz, hiztegiko hitz sorta batekin istorio bat idaztea edo esamolde horietako bat duen beste bat sortzea izan litezke ikasleen hizkuntza maila jasotzeko jarduerak.

Bibliografia

- 77/2023 dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 109, 2023-06-09. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302729e.shtml>
- Álvarez-Uria, Amaia. 2024. *Zuzi iraxegia. Euskal emakume idazleak eta literatura klasikoa*. [s.l.]: Testu Zaharrak.
- Beaskoetxea, Udane & Mikel Iruskietak. 2019. Ipuin-moldaketa herri-hizkerara egokitzeko eta modu esanguratsuan kontatzeko markaketa: ahozko komunikazioa lantzen eta aztertzen Haur Hezkuntzako gelan. *Tantak* 31(1). 53-80. <https://doi.org/10.1387/tantak.20149>
- Beldarrain, Josune. 2010. *Alegia klasikoak euskaraz. Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10810/12307>
- Blecua, Alberto. 2001 [1983]. *Manual de crítica textual*. Madril: Castalia.
- Bombini, Gustavo & Carlos Lomas. 2019. El oficio de enseñar lenguaje. Entre los saberes escolares y los dilemas éticos. *Textos. Didáctica de la lengua y de la literatura* 86. 7-13.
- Bueno, David, Anna Forés & Antoni Ruiz Bueno. 2023. *La lectura en voz alta: sus beneficios. Un descubrimiento (fascinante) desde la neuroeducación*. Bartzelona: Octaedro Educación.
- Cassany, Daniel. 2021. *El arte de dar clase (según un lingüista)*. Bartzelona: Anagrama.
- Colomer, Teresa, Mireia Manresa, Lucas Ramada & Lara Reyes. 2018. *Narrativas literarias en educación infantil y primaria*. Madril: Síntesis.
- Collie, Joanne & Stephen Slater. 1987. *Literature in the language classroom. A resource book of ideas and activities*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Delmiro Coto, Benigno. 2015. *La escritura creativa en las aulas: en torno a los talleres literarios*. Bartzelona: Graó.
- Del Rio, María José. 1993. *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Del Rio, María José, Pilar Calvet, María J. Galván-Bovaira & Manuel Sánchez. 2016. *Actividades comunicativas para enseñar competencia oral*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Etzaniz, Xabier. 2009 [1986]. *Puntan punta bat. Haur folkloreaken bilduma*. Iruñea: Pamiela.
- Etzaniz, Xabier. 2011. La transmisión de valores en la literatura, desde la tradición oral hasta la LIJ actual. *Ocnos* 7. 73-83. https://doi.org/10.18239/ocnos_2011.07.06
- Europako Kontseilua. 2001 [2005]. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Gasteiz: HABE.

- Euskaltzaindia. 2025. *Orotariko Euskal Hiztegia - Diccionario General Vasco*. 16. argit. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/oe>
- Euskaltzaindia. [s.a.]. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu
- Fabregat, Santiago, Carmen Sánchez & Rocío Jodar. 2023. *Didáctica de la lengua y la literatura: diez temas actuales*. Bartzelona: Graó.
- Garmendia, José. 1968. *Obras inéditas de Iztueta (Poesía, correspondencia, testamento)*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Garzia, Joxerra. 2008. *Jendaurrean hizlari*. Irun: Alberdania.
- Garzia, Juan. 2005. *Kalko okerrak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Gutierrez, Juncal & María José Ezeizabarrena. 2022. *Hotsetik hitzera. Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek?* Donostia: Erein.
- Igerabide, Juan Kruz. 2000 [1993]. *Bularretik mintzora. Haurra, abozkotasuna eta literatura*. Donostia: Erein.
- Igerabide, Juan Kruz. 2022. *Ahozko euskal literatura: antologia bat*. Donostia: Alai.
- Iturriaga, Agustin. 1841. *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani: [s.n.].
- Iturriaga, Agustin. 1842a. *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani: [s.n.].
- Iturriaga, Agustin. 1842b. *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado. Dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja.
- Iturriaga, Agustin. 1884. *Ipuyac eta beste moldaera batzuec Guipuzcoaco izqueran neurtubac*. Tolosa: Eusebio Lopez.
- Iturriaga, Agustin. 1932. *Iturriagaren ipuiak*. Tolosa: Ixaka Lopez Mendizabal.
- Iturriaga, Agustin. 1967. *Ipuiak*. Tolosa & Donostia: Auspoa Liburutegia.
- Ituero, Beatriz & Marta Casla. 2017. *¿Como empieza el lenguaje? Descubrir, explorar y favorecer la comunicación temprana*. Bartzelona: Graó.
- Izagirre, Koldo. 1981. *Euskal esamoldeak*. Donostia: Hordago.
- Laiz, Elena. 2008. Mucho más que canciones. Aprendiendo castellano como segunda lengua. *Textos de didáctica de la lengua y de la literatura* 47. 80-87.
- Lasagabaster, David. 2014. El texto literario como catalizador en la clase de inglés como lengua extranjera. *Impossibilia* 8. 208-229. <https://doi.org/10.32112/2174.2464.2014.108>
- Lazar, Gillian. 1993. *Literature and language teaching. A guide for teachers and trainers*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Manterola, José. 1880. *Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara recogidas, ordenadas y acompañadas de traducciones castellanas, juicios críticos, noticias biográficas de los diversos escritores y observaciones filológicas y gramaticales*. Serie III. Donostia: A. Baroja.
- Manterola, Ibon & Itziar Idiazabal. 2009. Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa. *Euskera* 54(1). 463-504. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i54.238>
- Mariscal, Sonia & Pilar Gallo. 2014. *Adquisición del lenguaje*. Madril: Síntesis.
- Martos, Eloy. 2007. *Cuentos y leyendas tradicionales: teoría, textos y didáctica*. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.

- Mendoza, Antonio. 2007. *Materiales literarios en el aprendizaje de lengua extranjera*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Mendoza, Antonio & Amando López. 1997. *La creación poética en las aulas*. Almería: Instituto de Estudios Almerienses.
- Mitxelena, Koldo. 2001 [1961]. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein (Berrargit. OC 13, 81-205).
- Mogel, Bizenta. 1992 [1804]. *Ipui onak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Molino, Cristina & Laura Mier. 2018. Multiculturalidad en el aula de segundas lenguas: la literatura como recurso en Educación Primaria. *Didáctica. Lengua y Literatura* 30. 157-168. <https://doi.org/10.5209/dida.61960>
- Mounole Hiriart-Urruti, Céline. 2024. *Iparrorratza: kalko eta huts ohikoenen saihesteko bide-laguna*. Bilbo: UPV/EHU.
- Palacios, Sergio. 2017. *Los textos literarios clásicos en la enseñanza-aprendizaje del español como segunda lengua lengua extranjera (LE): estudio, corpus, propuesta didáctica y puesta en práctica para los niveles A1-A2*. Madril: UAMeko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10486/679868>
- Paya, Xabi. 2013. *Ahozko euskal literaturaren antologia*. Donostia: Etxepare Institutua.
- Pérez Priego, Miguel Ángel. 2011. *La edición de textos*. Madril: Síntesis.
- Reguero Ugarte, Urtzi. 2019. *Filologiatik dialektologiara Nafarroako testu zaharretan barrena (1416-1745)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Rodríguez López-Vázquez, Alfredo. 2003. Estrategias didácticas en torno a las fábulas. In Ángel Cano & Cristina Pérez (koord.), *Canon, literatura infantil y juvenil y otras lenguas*, 121-132. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Rodríguez-Miñambres, Paloma, Itziar Otegi & Xabier Etxaniz. 2019. Idazlan klasikoak eta eskola. *Tantak* 31(1). 9-25. <https://doi.org/10.1387/tantak.20115>
- Ruiz Arzalluz, Iñigo. 1995. Virgilio Txerribuztangoerrekan (I. Bukoliken eta Georgikeneuska itzulpenak. *ASJU* 29(2-3). 661-696. <https://doi.org/10.1387/asju.8505>
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2017. *Axular. Gero euskara xumean*. Bilbo: UEU.
- Sergeant, Phillip & Bill Greenwell. 2013. *From language to creative writing: Introduction*. Milton Keynes: Bloomsbury & Open University.
- Sotomayor, Carmen, Carmen Julia Coloma, Elveria Jéldrez & Gabriela Osorio. 2020. Efectos de enseñar gramática integrada a la escritura de narraciones. *Textos. Didáctica de la lengua y literatura* 89. 48-53.
- Urgell, Blanca. 2015. *Gero. Edizio kritikoa*. Bilbo & Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Vila, Ignasi. 2024. Plurilingüismo en las aulas, conocimiento de la lengua escolar y práctica educativa. *Textos. Didáctica de la lengua y de la literatura* 104. 8-16.
- Zalbide, Mikel. 2007. Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan. *Euskera* 52(1). 61-157.

KarmeLe Erraztiren testuak: corpus osatua eta azalpen laburra¹

KarmeLe Errazti's texts: An extended corpus and a short explanation

Enara San Juan Manso*

Ikertzaile independentea

ABSTRACT: KarmeLe Errazti is one of the Basque nationalist women who participated in public and political life during the first half of the 20th century. As well as being the first president of Emakume Abertzale-Batza, Errazti was also one of the women who wrote in the nationalist press at the time. She mainly published articles as well as a few short stories for children and a play, the latter together with her husband Keperin Jemein; she also exchanged private letters with relatives and acquaintances. In this article, I try to extend the corpus of Errazti's texts, taking into account both her published and private texts; in this way, I present some articles and letters written by Errazti that have not been studied to date and I provide a short explanation of the whole corpus. The data presented in this work provides for a better comprehension of Errazti's texts, and thus a better understanding and definition of Errazti's overall contribution.

KEYWORDS: KarmeLe Errazti; Emakume Abertzale Batza; 20th-century nationalist press; women's articles; prewar short stories; prewar plays.

LABURPENA: *XX. mendearen lehen erdiko bizitza publikoan eta politikoan parte hartzen saiatu ziren emakume abertzaletako bat da KarmeLe Errazti. Emakume Abertzale-Batzako lehen lehendakaria izateaz gain, orduko prentsa abertzalean idatzi zuten emakumeetako bat ere bada Errazti, besteak beste. Umeentzako ipuin eta kontakizun labur batzuk, helduentzako antzezlan bat —Keperin Jemein senarrarekin batera— eta, batez ere, artikuluak ondu zituen; horrez gain, gutun pribatuak*

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet, KarmeLe Erraztiren corpora osatzeko eta ulertzeko testuak nire esku jartzeagatik, Euskadiko Artxibo Historikoko (EAH) langileei, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboko Pruden Gartzia eta, bereziki, Sabino Arana Fundazioko (SAF) Iñaki Goioganari. Era berean, nire esker ona agertu nahi diet, lan honen inguruko iritzi eta oharrengatik, Amaia Alvarez Uriari eta Iñigo Ruiz Arzalluzi, bai eta kanpoko ebaluatzaile anonimoei ere.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Enara San Juan Manso. Ikertzaile independentea (Bilbo). – enarasajuan@gmail.com – <https://orcid.org/0000-0003-3936-9369>

Nola aipatu / How to cite: San Juan Manso, Enara (2025). «KarmeLe Erraztiren testuak: corpus osatua eta azalpen laburra», *ASJU*, 59 (2), 163-193. (<https://doi.org/10.1387/asju.27563>).

Jasoa/Received: 2025-05-22; Onartua/Accepted: 2025-09-28. Online argitaratua / Published online: 2025-10-23.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

ere trukatu zituen senide eta ezagunekin. Artikulu honetan, Erraztik idatzitako testuen corpusa osatzen ahalegindu naiz, haren testu argitaratuak nabiz pribatuak aintzat hartuta; hala, Erraztik idatzitako —baina orain arte aztertu gabeko— zenbait artikulu eta gutun jarri ditut mabai gainean, eta corpus horren azalpen laburra egin dut orobat. Lan honetan aurkeztutako datuek Erraztiren testuak hobeto ezagutzen laguntzen dute, eta, horrenbestez, baita Erraztiren ekarpena hobeto ulertzen eta zehazten ere.

HITZ GAKOAK: Karmele Errazti; Emakume Abertzale Batza; XX. mendeko prentsa abertzalea; emakumeen artikulugintza; gerraurreko ipuingintza; gerraurreko antzerkigintza.

1. Sarrera

XX. mendearen lehen herenean, emakume abertzaleak bizitza publikoan parte hartzen hasi ziren; oposizio handiko giroan, hitza hartu zuten prentsa abertzalean, aberriaren alde lan egiteko, eta, Libek *Aberri* astekarian egindako proposamenari jarraikiz, Ropero Vasco sortu zuten Bilbon, 1908ko otsailean, batez ere ongintzara begira (Rekalde 2012: 23).² 1922ko maiatzean, beren jarduna ongintzaz harago zabaltzeko aukera izan zutenean, Emakume Abertzale-Batza (EAB) eratu zuten, Bilboko Euzko-Gaztediko sektore aberrianoaren —bereziki Elias Gallastegiren, Euzko-Gaztediko orduko lehendakariaren— babesarekin.³ Barne-araudian zehaztutakoaren arabera, jeltzaletasuna zabaltzea zuen helburu EABk, gizarte-laguntzari, kulturari eta ongintzari lotutako jardueren bidez, eta, oro har, EABko *emakumeek* Aranarengandik jasotako doktrinaren sinbolo eta ezaugarri tradizionalak defendatu zituzten, emakumearen ohiko rolak —amarena eta emaztearena— hautsi gabe (Ugalde 1991: 58; Retolaza 2012: 105); nolana ere, abertzaletasunaren barnean genero-harremanak ulertzeko modu bat izan zen EAB, ahizpatasuna aldarrikatzeko eta sa-

² Purificación Gorostiza *Garbiñe* izan zen prentsa abertzalean idatzi zuen lehen emakumea (Mi ideal. *Aberri* 1906-09-01), eta, 1907-1908 bitartean, emakume abertzaleek idatzitako ia hogeita hamar artikulu argitaratu ziren (Ugalde 1993: 362). 1907ko uztailean, EAJk Aranari Sukarrietan omenaldia egin eta egun gutxiara, Rakel Alda *Kataliñek* lehen emakume-talde abertzalea sortzeko proposamena egin zuen (Después del homenaje. *Aberri* 1907-07-27), baina Bittorine Larrinaga *Libek* egokiago ikusten zuen helburu txikiagoekin hastea, eta ongintzara bideratutako elkarte bat sortzeko proposatu zuen (Carta abierta a Kataliñ. Llamamiento a todas las jóvenes patriotas de Euzkadi. *Aberri* 1907-08-03). Nolanahi ere, ongintzaz gain, beste helburu batzuk ere bazituen Ropero Vascok, hala nola euskara irakastea (Perez *et al.* 2022: 21).

³ EABren aurrekariak, jarduna eta eragina ulertzeko informazio zabala ematen dute Larrañagaren (1978), Ugaldere (1993), Bilbao *et al.*-en (2012) edota Perez *et al.*-en (2022) lanek; modu sintetikoagoan —baina orokortasunetik—, EAB dute hizpide baita Uruburuk (1997) edota Ugaldek (1991) ere. Esan bezala, jeltzaletasun sektore aberrianoaren barruan sortu zen EAB, baina, EAB sortu ondoren, Comuniónen inguruan ere egon zen beste emakume-erakunde bat —Emakume-Azarri-Bazkuna— sortzeko saiakera; *Euzkadi* egunkariko «Emakumea eta Aberria» izeneko atalaren bidez hauspotu zuten proiektu hori, neurri handi batean Tene Mujikaren ekimenez. 1923an, Emakume-Azarri-Bazkunaren bi talde sortu ziren —Ondarroan eta Deban—, baina apenas lortu zuten Comunióneko gizonen babesik, eta Primo de Riveraren diktadura heldu baino lehen hil zen proiektua (Ugalde 1993: 167-178). 1931tik aurrera, EABren Hego Euskal Herriko taldeetan saretu ziren emakume jeltzaletak; Iparraldean, berriz, Piarres Lafitteren eraginez, Begiraleak emakume-taldea sortu zen, 1935ean (Perez *et al.* 2022: 87-88).

retzeko egitura bat, eta, beren idazki eta hitzaldietan, *emakumeek* emantzipaziorako urratsak egin zituzten, bai eta proiektu kolektibo batekiko atxikimendua erakutsi ere (Fernández 2012: 276; Goikoetxea 2022: 17, 212; Serrano-Mariezkurrena 2024: 68).⁴

Joan den mendean emakume abertzaleek eremu publikoan parte hartzeko hasitako bidean, eginkizun garrantzitsua eduki zuen Karmele Erraztik: xx. mendeko lehen bi hamarkadetako prentsa abertzalean idatzi zuten emakume bakanetako bat ez ezik (Ugalde 1993: 89), EABko lehen lehendakaria ere izan zen Errazti, besteak beste. Hala, bai EABren sorreraren aurretik bai ondoren nazio-erakuntzaren alde eta emakumeen parte-hartze politikoaren alde egindako lanagatik, interesgarria iritzi diot Erraztiren idazmahaiaren ezagutzan sakontzeari. Artikulu honetan, bada, Erraztik idatzitako testuen zerrenda osatua aurkeztuko dut, eta corpus horren azalpen laburra egingo. Orotara, bibliografian aipatuta aurkitu ez ditudan hamabost artikulu baino gehiagoren eta zazpi gutun argitaragaberen berri emango dut —guztiak gerra ostekoak—; horren aurretik, baina, Erraztiren testuak kokatzeko oinarrizko datu biografiko batzuk azalduko ditut, eta zenbait ondorio ere gaineratuko ditut amaieran. Lan honen helburua Erraztiren testuen aurkezpen orokor bat egitea denez, ez dut Erraztiren testuen kokapen historikoan sakonduko, ezta arreta handienaz aztertuko ere Erraztik idatzitako testuetako bakoitza; nolana ere, Erraztiren ekarpena ulertzen eta zehazten lagunduko duen informazio baliagarria aurkeztuko dudalakoan nago.

2. Karmele Erraztiren biografia laburra

Karmele Errazti Perez de Saratxo Bilbon jaio zen, 1885ean, eta erbesteran —Pauen— hil, 1954an. 1907an, Roper Vascon eman zuen izena, eta, 1908an, euskara ikasten hasi zen Bilboko Institutuan, Kirikiñoren eskolatan; hiru urteren bururako, 1911rako, euskalduna —aranazalea— zen, eta, 1910etik, Bilboko Euzko-Gaztediko kide. 1921ean, Junta Nacionalista de Socorros de Nuestra Señora de Begoña izenekoaren mahaikideetako bat izan zen,⁵ eta, 1922-1923 bitartean, EABko lehendakari gisa jardun zuen, Primo de Riveraren estatu-kolpera arte (Perez *et al.* 2022: 34-35). II. Errepublikaren garaian Bilboko EABren zuzendaritza berria aukeratu zutenean, 1931ko ekainean, berriro hautatu zuten Errazti lehendakari, bai eta 1931ko abenduan ere; alabaina, bigarren aldi horretan Erraztik uko egin zion karguari, beste emakume batzuei lekua uzteko. Honela laburbildu zuen Erraz-

⁴ Ezkurdia *et al.* (2024: 94) zera baieztatzen heldu dira: «EAB mugimendu feministak euskal emakume nazionalistak ahaldu» zituela. Genero-berdintasunaren aldarrikapena irizpidetzat hartuz gero, xx. mende hasierako emakume abertzaleak ezin dira feministatzat jo. Alabaina, ikerlari batzuen ustez, xx. mende hasieran genero-desberdintasuna aldarrikatzen zuten feminismoak ere egon ziren; adibidez, *feminismo erlazionala* eta *maternalista*, emakumearen ama-funtzioari garrantzia ematen ziotenak (Goikoetxea 2022: 76-77). Ugaldek (1993: 62-66), bestalde, Elizak onartutako *feminismo onargarri* delakoa-ekin lotu ditu emakume abertzaleen mugimenduaren hastapenak.

⁵ Euzko-Gaztediak sortu zuen batzorde hori, Marokoko gerrara joandako euskal soldaduei eta haien familiei laguntzeko. *Aberri* astekariak eman zuen batzorde horren osakeraren berri (Por nuestros hermanos en África. *Aberri* 1921-11-12).

tik une horretara arte mugimendu jeltzalearen barruan egindako ibilbidea (*Euzkadi* 1932-01-01):

Muy joven era yo —veintiocho años han pasado, bien lo recuerdo— cuando se fundó Juventud Vasca de Bilbao, causando ello en mi alma una de las más grandes emociones de mi vida. Desde entonces la he seguido paso a paso, colaborando prácticamente en sus clases de euzkera y en otras actividades, hasta la fundación de Emakume Abertzale-Batza. Desde esa fundación, y sin interrupción hasta hoy, he laborado en su presidencia.

EABren zuzendaritza-kideak erdiko klasekoak edota erdi- eta goi-mailako burgesia-koak ziren; Errazti, hain zuzen, Hilario Errazti Atxa negozio-gizonaren alaba zen, eta, 1914an, Keperin Jemein Lanbarrirekin⁶ (Abando, 1887-Laudio, 1965) ezkondu zen, JEZ (Jemein, Errazti y Zenitagoya) lantegi siderometalurgikoaren bazkide nagusietako bat izango zenarekin.⁷ Koldo Aranaren lagun mina eta Sabin Aranaren jarraitzaile sutsua ere bazen Jemein, bai politikari bai euskarari zegokionez, eta hainbat ardua eduki zituen mugimendu jeltzalean; besteak beste, Euzko-Gaztediko buruetako bat izan zen, Euzkeltzale-Bazkunako sortzaileetako bat, EBBko lehendakaria, Euzkadiko Guda Osasuneko idazkaria edota Euzko-Anaitasunako —EAJk gerrako errefuxiatuei laguntzeko sortutako elkarteko— kide (Camino & Guezala 1991; Jiménez de Aberásturi 1999: 40-46). Horrez gain, EAJren historialari ofizial gisa jardun zuen,⁸ eta alderdiaren nolabaiteko kultura-aholkularia ere izan zen.⁹

Gerra aurrean, neskame bat zeukaten etxean Erraztik eta Jemeinek, eta, horri esker, EABko zuzendaritzaz arduratzeko denbora izan zuen Erraztik (Ugalde 1993: 136, 312). Gerra-garaian, jemein-erraztitarrek Euzko Jaurlearitzaren esku jarri zu-

⁶ Gaztelaniaz Ceferino de Jemein Lambarri, euskaraz Jemein'dar Keperin izen-abizenek aipatzen zuen berak bere burua: «Nire ixenordia “Jadarrka” da: J'darr K., edo Jemein'darr Keperin» (Jemein 1952: 25). *Amandarro, Atzeuko, Abandotarra, Bachiller de Beldandia*—edo, besterik gabe, *Beldandia*—, *Paulander de Eyaraldea* eta *Ramón Jatabe* ezizenak ere baliatu zituen Jemeinek (Barandiaran 2024; Arrien & Goigoga 2002: 124). Jemeinek jotarekin idazten zuen beti bere abizena, eta, 1952ko iraillean, adibidez, hauxe idatzi zion Patxo Arregiri —Argentinako Acción Vascako lehendakariari eta EAJren Amerikako delegatuari—, Euskaltzaleak elkartetik bidalitako diploma batean «Xemein» —eta ez «Jemein»— idatzi ziotelako (EAH. Funtsa: Ekin argitaletxearen eta Iruxo familiaren artxiboa. Erregistro informatikoa: 3328691): «Para terminar voy a decirte que, además, yo no podría aceptar ese diploma, porque no responde a mi apellido, que es Jemein y no Xemein, en buena fonética y ortografía euzkérica, pues el Euzkera no admite *x* inicial, como no sea en voces infantiles, y JEMEIN no es una voz infantil, sino bien varonil, nombre propio de persona y de lugar en Markina (Bizkaya). Los de “Euskaltzaleak” deben de aprender el euzkera (véase “Lecciones de ortografía” de Arana-Goiri)». Hortaz, zalantza askorekin, lan honetan *Jemein* aldaera —eta ez EODAn proposatutako *Xemein* forma— erabiltzearen aldeko hautua egin dut; Tene Mujikaren eta Sorne Unzuetaeren kasuetan ere, adibidez, berdintsu jokatu dut, eta ez ditut erabili Euskaltzaindiak araututako *Muxika* eta *Untzueta* formak.

⁷ Karmele Erraztiaren aitak jarri omen zuen enpresa sortzeko dirua, eta Jemein, Joseba eta Enrike Errazti —Karmelaren bi nebak—, eta Zipriano Zenitagoya Lanbarri —Jemeinen anaiordea— ziren enpresako bazkide nagusiak. Horien artetik, Jemeinek eta Joseba Erraztik kudeatzen zuten enpresa (Ezkurdia *et al.* 2024: 97-98).

⁸ Aranaren biografia (Jemein 1935), Aranaren pentsamendua (Jemein 1945), lehen Eusko Jaurlearitza (1987) eta Gerra Zibila (Jemein 1986, 1988) hizpide zuten liburuak idatzi zituen, besteak beste.

⁹ 1938ko martxoan, esaterako, Jemeinek egin zuen —EAJren aginduz— Jule Gabilondo *Maitek* idatzitako *Jel-azia* liburuari buruzko txostena (Sariugarte 2023: 56-59, 122-129).

ten familia-lantegia, eta, Bizkaia frankisten esku geratutakoan, Jemein-Errazti senar-emazteek ondasun guztiak galdu zituzten; isun handia ez ezik, hamabost urteko deserriratzegorria ere ezarri zioten Jemeini (Perez *et al.* 2022: 34-37), eta Errazti hil arte bizi izan ziren erbestean: hasieran, Ipar Euskal Herrian egon ziren —batik bat Ainhoan eta Biarritzen—, eta, handik, Pauera lekualdatu ziren, Erraztiren osasun-arazoez behartuta. Pauen, Euzkadiko Gobernuaren delegatu izan zen Jemein, baina 50eko hamarkadara arte ez zuen soldatarik izan, eta, hala, «txirotasun gorrian» bizi izan ziren senar-emazteak erbestealdi ia osoan (Perez *et al.* 2022: 37).

EABko emakume askok ez bezala, Erraztik ez zuen irakasle-ikasketarik egin, baina «kapital kultural handia» zuen (Ezkurdia *et al.* 2017: 15) eta oso frantses-maila ona.¹⁰ Erraztik eta senarrak batera egin ohi zuten lan etxean, idazkiak —eta, erbestealdian, baita idazmakina ere— partekatuta, Jemeinek berak (1952: 25) artikuluan azaldu zuen legez: «Emaztia senarra baño len euzkeraz idazten asi zan. Senar-emaztiok, bijok dakiz makiñaz idazten eta bijok makiñaz idazten dabe, baña, jakiña, makiña bat baño eztauke, eta bijok makiña berberaz idatzi-biarr. Ulertzalle onari izt erdi». Senar-emazteek liburuz, paperez eta argazkiz beteta izan zuten beti bizilekua, eta euskal gaietara lotutako liburutegi ederra eduki zuten, harik eta 50eko hamarkadan Jemeinek Manu Sotari saldu zion arte.¹¹

3. Karmele Erraztiren testuen corpusa

3.1. Testu argitaratuak

1907-1953 bitartean, Erraztik idatzitako —eta hainbat (ez)izenekin sinatutako— berrogeita hamarretik gora testu argitaratu ziren. Gerra aurrean, *Bizkaitarran*, *Euzkadiki* aldizkarian, eta Euzkeltzale-Bazkunaren *Euzko-Deyan* idatzi zuen, batik bat, Erraztik. Gerra ostean, hamar urteko isilaldiaren ondoren, Baionako Beyris auzotik zuzentzen eta kudeatzen ziren aldizkarietarako kolaborazioak egin zituen, batez ere *Alderdirako*. 1950-1951. urteetan, *Euzko-Gogoan* ere idatzi zuen, eta, 1951tik, Zaitetik zuzendutako aldizkarietara lankideen zerrendan egon zen «Errazti'tar Karmele».

¹⁰ 1937ko uztailearen 30eko gutun batean, zera idatzi zion Jemeinek Manuel Ynchaustiri: «Podría acompañarnos mi señora, que conoce perfectamente el francés» (EAH. Funtsa: Manuel de Ynchausti Romero artxiboa. Erreg. inf.: 3363655). Erraztik behin baino gehiagotan egin zituen bidaiak Frantziara: 1937ko irailaren 2an senarrari idatzitako gutunean, esaterako, 1920an senarrarekin batera Parisera egindako bidaia baten berri ematen du, eta irailaren 3an idatzitakoak, berriz, Lourdesera egindako baten —edo batzuen— berri. 1950eko maiatzean *Alderdiran* idatzitako artikuluan ere, 1910ean Lourdesera egindako bidaia aipatzen du: «Berrogei urte dirala, Lourdes'era etorri nintzan ni euzko-bidezkunde baten. Bizkaitarrak eta gipuzkoarrak gentozan batera, nire bultzijian bertan mutil bizkaitarr bat eta neskatil gipuzkoarr bat, bata bestiarene onduan». Garai hartan, ohikoa zen abertzaleak Lourdesera joatea, Erraztik berak «Euzkadi'ren Bakalduna» artikuluan (*Bizkaitarra* 1911-11-09) esaten duen bezala.

¹¹ 1952ko ekainaren 25ean Maurinetik (Landetatik) bidalitako gutun batean, hauxe idatzi zion Jemeinek Patxo Arregiri (EAH. Funtsa: Ekin argitaletxearen eta Iruxo familiaren artxiboa. Erreg. inf.: 3328691): «Toda mi biblioteca —la mejor probablemente de la que existía de cosas vascas y sobre todo nacionalistas— me vi en la triste necesidad de vendérsela a Manu Sota, que me pagó por ella 250.000 francos, que ¡ay! me duraron poco tiempo en las circunstancias económicas en que desde hace tiempo me desenvuelvo».

Hona hemen Erraztiren testu argitaratuen zerrenda:¹²

1. E.'tar K. Euzkera'ren alde. Fausta nueva. *Aberri* 1907-10-05.
2. Errazti'tar Karmele. [1909]. I.g. [= Izen gabe. «Bilboko Euskal-ikasleak» atalaren barruan]. *Euskal-Esnalearen Esku-Egundiya* 1910, 67. Valverde'ren echea.
3. Errazti'tarr Karmele. Gabon'go gotzon bat. *Euzkadi CBL* 8(10) [1911-07/08]. 295-298.
4. Errazti'tarr Karmele. Bakaldun aurreguna. *Euzkadi CBL* 8(12) [1911-11/12]. 463-466.
5. Etxakin. Euzkadi'ren Bakalduna, *Bizkaitarra* 1911-11-09.
6. Etxakin. Sabin'i. *Bizkaitarra* 1911-11-25.
7. Errazti'tarr Karmele. Ume bijotz-samurrduna. *Euzkadi CBL* 9(13) [1912-01/02]. 37-40.
8. Errazti'tarr Karmele. Neguko loreak. *Euzkadi CBL* 9(18) [1912-11/12]. 459-460.
9. Errazti'tarr Karmele. 1914. ¿*Amesa?*. Grijelmoren Alarrgun-Semien irarrkolea (*Umientzako ipuñak*. Bilbao'ko «Euzko-Gastedija'k» argitaldubak).
10. Jadarrka'k eta Etxakin'ek. 1915. *Oleskari bijak (Bertsolari bijak)*. Ausin'darr Josebaren irarrkolea.
11. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. *Euzko-Deya* 16 [1916-10-01]. 8.

¹² Laburdura hauek erabili ditut egunkariak eta aldizkariak aipatzeko: *Aberri* (= *Aberri. Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra*), *Alderdi* (= *Alderdi. Euzko-Alderdi Jeltzalia'ren deya*), *Amayur* (= *Amayur. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra*), *Azkatasuna* (= *Azkatasuna. Euzko Gaztedia'ren Aldizkingia*), *Bizkaitarra* (= *Bizkaitarra. Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra*), *Euzkadi CBL* (= *Euzkadi. Revista bimestral de ciencias, bellas artes y letras*) eta *Euzko-Deya* (= *Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra*). Kronologikoki antolatu ditut Erraztiren lanak —eta ez, esaterako, generoka edo gaika—, lan guztien sekuentzia argiago geratuko delakoan. Zerrenda egiteko, lan hauek izan ditut oinarri: Ugalde (1993), Bilbao *et al.* (2012), Perez *et al.* (2022) eta *Jakin* aldizkariaren dokumentu digitalizatuak (<https://jakin.eus/digitalizazioa/emakume-abertzale-batza> [2025-04-18]). Bertan aipatutako erreferentziak banan-banan egiaztatu ditut, bai eta beharrezko zuzenketak egin ere. Barandiaranek (2024) plazaratutako datuei jarraikiz, *Azkatasuna* eta *Alderdi* aldizkariak arakatu ditut, Erraztik sinatutako testuen bila: zerrendan daude aurkitu ditudanak; alabaina, li-tekeena da Erraztik testu gehiago idatzi izana. Perez *et al.*-en (2022: 36) lanean, beste bi artikulua hauek jasotzen dituzte Erraztiren lanen artean: «Asociadas fundadoras» (*Aberri* 1922-05-12) eta «Se ha constituido la directiva de Emakume Abertzale Batza» (*Euzkadi* 1931-06-24); nolahi ere, bietako bat ere ez dago sinatuta, eta horregatik ez ditut zerrendan sartu, EABko araudiak sartu ez ditudan bezala —Larrañagak (1978: I, 41-43) 1931ko abuztuaren 15eko araudiaren lehen 15 artikulua jaso zituen; Ugalderen (1993: 252) ustez, 1922ko maiatzaren 7ko araudia 1931koaren bertsua izan bide zen—. Bestalde, «Colaboración femenina» ataleko «Comentando» artikulua (*Aberri* 1923-01-20) ez zuen Erraztik idatzi (Perez *et al.* 2022: 36), ezpada U.T.S.k —alegia, Sorne Unzueta *Utarsusek*—. 1950-1953 bitartean «Emakume batek» sinatutako lanei dagokienez, Jemeinek baieztatu zuen *Euzko-Gogoan* idatzitako artikuluen egilea Karmele Errazti zela —«Gixon bi eta emazte bat baño geyago dira *Euzkera* ta *Euzkadi* “Euzko-Gogoa” n idazten dabenak: [...] “Emakume batek” (Errazti'tarr Karmele) ta “Jadarrka” (Jemein'darr Keperin)» (Jemein 1952: 25)—, eta, edukiagatik, ziurra da *Alderdi*n argitaratutako lanen egilea ere badela Errazti (Barandiaran 2024). 30eko hamarkadan oso ohikoa zen *emakume* izenarekin artikulua sinatzea (Ugalde 1993: 371, 373, 391, 416, 423, 514, 522-523); nolahi ere, Ugaldek ez du —nire ustez, arrazoiz— 30eko hamarkadako testu horietako bakar bat ere Erraztiren lantzat hartzen. Bestalde, argitaratu bezala ematen ditut euskarazko izen eta testuak, baina erratak zuzenduta eta dagoe-neko erabiltzen ez diren ikur grafiko gutxi batzuk (*r* > *rr*...) aldatuta.

12. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Emakumien jakin-biarrak. *Euzko-Deya* 17 [1916-11-01]. 6.
13. Etxakin. Gabon-ipuña. Gabon zoruntsuba. *Euzko-Deya* 20 [1916-12-16]. 6-7.
14. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Sendi-jayak. *Euzko-Deya* 20 [1916-12-16]. 8-9.
15. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Etxekandera onaren ereduba. *Euzko-Deya* 21 [1917-01-01]. 5-6.
16. Etxakin. Euzkeldun-neskatillai. Ekandun (birtute) txikijak. *Euzko-Deya* 22 [1917-01-16]. 4.
17. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Neskatil-eredubak. *Euzko-Deya* 23 [1917-02-01]. 3.
18. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. *Euzko-Deya* 24 [1917-02-16]. 4.
19. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Neskatil on-onaren ereduba. *Euzko-Deya* 25 [1917-03-01]. 4.
20. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Atsegin txikijak. *Euzko-Deya* 28 [1917-04-16]. 4.
21. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Neskatilek guraso-etxian. *Euzko-Deya* 34 [1917-07-16]. 3.
22. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Aizkidetasuna. *Euzko-Deya* 35 [1917-08-01]. 7.
23. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Etxe-ardurea. *Euzko-Deya* 36 [1917-09-01]. 6.
24. Etxakin. Bixigayak. *Euzko-Deya* 43 [1918-01-16]. 6.
25. Etxakin. Diruba egitteko erea. *Euzko-Deya* 47 [1918-03-16]. 4.
26. Etxakin. Euzkeldun neskatillai. Sendi zoruntsubak. *Euzko-Deya* 54 [1918-07-01]. 2.
27. Errazti'tarr Karmele. Con flores a Sabin, los niños también.... *Aberri. Revista dedicada por Juventud Vasca de Bilbao, al homenaje celebrado en Sukarrieta con asistencia de más de veinticinco mil patriotas, en honor de Arana-Goiri'tar Sabin, el veinticinco de junio de mil novecientos veintidós* 1922-07-31. 34-35.
28. Etxakin. Ikasliak irakasliari. *Euzkerea* 1(2) [1929-02-15]. 21.
29. Errazti'tar Karmele. La presidente electa de Emakume Abertzale-Batza, a todas las asociadas. *Euzkadi* 1932-01-01.
30. Errazti'tarr Karmele. El homenaje de los niños. *Aberri-Eguna. Revista nacida a la luz de un Domingo de Resurrección para perpetuar "El Día de la Patria", recogiendo el eco de la sublime aleluya que un pueblo resurgente entonara aclamando a su salvador* 1932-03/04. 76.
31. Errazti'tar Karmele. Emakume Abertzale-Batza. Un recuerdo en este aniversario. *Euzkadi* 1932-06-18.
32. Errazti'tar Karmele. Recuerdo. *Amayur* 1935-11-30 [= *Aberri* 1922-07-31].
33. Errazti'tarr Karmele. Sabin y «Emakume-Abertzale Batza». *Azkatasuna* (al berezia) [1945-11-25]. 5.
34. Etxakin (E.A.-B.). En este 4 de febrero de 1948. *Azkatasuna* 39 [1948-02]. 10.
35. [I.g.]. Umientzako Euzkel-Ipuñak. ¿Amesa? *Alderdi* 19 [1948-10]. 18-20. [= Errazti'tarr Karmele. 1914]

36. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 27 [1949-06]. 10.
37. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 29 [1949-08]. 9-10.
38. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 31 [1949-10]. 13.
39. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 34 [1950-01]. 13-14.
40. Etxakin'ek. Nire Eretxija. *Alderdi* 38 [1950-05]. 13.
41. Euzko-Emakume-Abertzale-Batza'ko Etxakin'ek. Emakume oleskarijak. *Euzko-Gogoa* 1(9/10) [1950-09/10]. 14-16.
42. Emakume batek. Euzko-Gogoa. *Euzko-Gogoa* 1(9/10) [1950-09/10]. 36.
43. Emakume Abertzale Batza'ko Etxakin'ek. Arana-Goiri ta Emakume abertzaliak. *Alderdi* 44 [1950-11]. 17.
44. *Por* Emakume Bat. Subordinación. *Alderdi* 47 [1951-02]. 10-11.
45. Emakume Batek. Bilbao, Euzkeldun. *Alderdi* 50 [1951-05]. 13-14.
46. Emakume batek. Juan yakuzan bixitz oroigarriak. *Euzko-Gogoa* 2(9/10) [1951-09/10]. 55-56.
47. Emakume Batek. Emakume Goralgarriak. *Alderdi* 58 [1952-01]. 11-12.
48. Emakume Batek. Txaberr'tarr Pantzeska Deuna. *Alderdi* 59 [1952-02]. 11-12.
49. Emakume Batek. Zugatz Gomutagarriak. *Alderdi* 60 [1952-03]. 11.
50. Emakume Batek. Jantzikereak eta Jantzikeriak. *Alderdi* 68 [1952-11]. 12.
51. Emakume Batek. Sabindiarr-Batza ta Euzko-Emakumiak. *Alderdi* 73 [1953-04]. 12-13.
52. Emakume Batek. Euzkel-Gaiz. *Alderdi* 75 [1953-06]. 12.
53. Emakume Batek. Emakumege Ezta Gauz Onik. *Alderdi* 76 [1953-07]. 13.
54. Emakume Batek. Arana Goiri ta Euzko-Emakume Abertzale-Batza. *Alderdi* 79-80 [1953-11]. 40-41.

3.2. Hitzaldiak

Erraztiren hiru hitzaldiren berri ere eman zuen haren garaiko prentsak: lehen diskurtsoa —1922ko urrikoa— osorik jaso zuen *Aberri* astekariak; gainerako bien kasuan, berriz, kronikak baino ez ditugu:¹³

1. Euzko-Gastedija'n "E.A.-B"ren lendakarijaren euzkel-itxeikixuna. *Aberri* 1922-10-21.
2. Juventud Vasca de Bilbao al Maestro en el XIX aniversario de su muerte. *Aberri* 1922-11-30.
3. Emakume Abertzale Batza. Inauguración del ciclo de conferencias. *Euzkadi* 1931-10-16.

¹³ Badakigu Erraztik beste hitzaldi batzuk ere eman zituela. Horietako bat Iruñeko EABren inaugurazio-ekitaldian izan zen, 1931ko abenduaren 6an (Larrañaga 1978: I, 79) edo 1932ko urtarrilaren 6an (Larrañaga 1978: II, 52); Erraztirekin batera, Jose Antonio Agirre —garai hartan, Nafarroako diputatua— aritu zen hizlari. Donostiako EABn ere beste hitzaldi bat eman zuen Erraztik, 1932an (Larrañaga 1978: II, 52).

3.3. Testu pribatuak

3.3.1. *Senarrari idatzitako gutunak*

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko «PNV-227-01» karpetan, Karmele Erraztik 1937ko abuztu-irailean senarrari eskuz idatzitako bost gutun gorde dira —bostak daude gaztelaniaz—:

1. 1937ko abuztuaren 22-25a bitartean idatzitako gutuna.
2. 1937ko abuztuaren 26an idatzitako gutuna.
3. 1937ko abuztuaren 29-30a bitartean idatzitako gutuna.
4. 1937ko irailaren 2an idatzitako gutuna.
5. 1937ko irailaren 3an idatzitako gutuna.

1937ko abuztua eta iraila bitartean, Jemeinek bidaia bat egin zuen Frantzia zehar, EAJren aginduz. Senarra kanpoan zegoen artean, Errazti Ainhoan geratu zen, bikotearen zereginen arduradun, eta zenbait gutun —bost gorde dira, baina badakigu Erraztik gehiago idatzi zituela— bidali zizkion senarrari, Ainhoako egunerokotasuneko xehetasunen eta bertara heldutako albisteen berri emanez. Garai hartako gorabeheren leku-kotasuna eman ez ezik, Erraztiren biografia osatzen ere laguntzen dute gutun horiek.¹⁴

3.3.2. *Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutunak*

Erraztik Jose Antonio Agirrerri eskuz idatzitako beste bi gutun gorde dira Euskadiko Artxibo Historikoan (Funtsa: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saila. Erreg. inf.: 3436267):¹⁵

1. 1952ko apirilaren 24an idatzitako gutuna.
2. 1952ko urriaren 16an idatzitako gutuna.

Dakigunez, Pauen egoera ekonomiko latzean bizi izan ziren Errazti eta haren senarra: Jemein Jaurlaritzaren delegatua zen bertan, eta, 1951tik, hilean 10.000 liberako saria hitzeman omen zion alderdiak lan horregatik; diru hori, jakina, ez zen nahikoa ordezkaritza-gastuei eta eguneroko beharrei aurre egiteko, baina, gainera, hilabeteetako atzerapenarekin ordaindu ohi zioten. Hortaz, 1951ko ekaina eta 1952ko martxoa bitartean, Jemeinek gutun batzuk bidali zizkion Agirrerri, agindutako 10.000 liberak ordaintzeko eskatuz (EAE. Funtsa: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saila. Erreg. inf.: 3436267). Alabaina, iritsi beharreko dirua ez zen heldu, antza, eta, 1952ko apirilaren 24an, Erraztik gutuna idatzi zion Agirrerri, senarrari zor zizkieten atzerapenak ordaintzeko erregutuz:

Keperin no se atreve a escribirle a Ud. porque le da vergüenza; pero yo lo hago, porque cada vez estamos más necesitados [...].

¹⁴ Beste artikulu batean (San Juan Manso 2025a) ematen dut Erraztiren bost gutunuen eduki zehatzaren eta bestelako hainbat xehetasunen berri.

¹⁵ Erraztik eskuz idatzitako bi gutun horiez gain, senarrak makinaz idatzitako beste batzuk ere gorde dira EAHko funts horretan; horietako bi (1952ko maiatzaren 30eko bat eta 1953ko abenduaren 28ko beste bat) Karmele Erraztik ere sinatu zituen.

El 7 del mes próximo cumpla 67 años y 38 de nuestro matrimonio; ¿no podría Ud. para entonces liquidarnos los atrasos, contribuyendo así a aliviar nuestra situación, y empezar así una época más normal, y no tan apremiante como la que estamos padeciendo?

Erraztiren osasun-egoera kaskarrak eragindako mediku-gastuek txarragotu egin zituzten Jemein eta Erraztiren baldintza ekonomikoak, eta, aurreko gutuna idatzi eta sei hilabetera, bigarren gutun bat idatzi zion Erraztik lehendakariari, berriro diru eske. Eskutitzean esaten duenagatik, Txaber Gortazarren bidez —Baionako delegatuaren bidez— saiatu ziren Leizaolari —EAJren Ekonomia Batzordeko kideetako bati— laguntza eskatzen, baina horrela ere ez zuten ezer lortu, eta, horrenbestez, suminduta eta etsita idatzi zion Erraztik Agirreri, esanez senarrak txarteletarako dirurik ere ez zeukala:

Y seguimos sin noticias de Ud. Keperin me dice que no cabe ya por lo que escribirle, pero yo, que llevo mis cuentas y me asustan, voy a hacerle cariñosamente y con toda sinceridad, aunque créame que también a mí me cuesta.

Según nos escribió Gortazar, parece que le habló a Leizaola de lo que a Keperin le cuestan los gastos de representación y oficina, sellos de correos, papel, sobres, cinta de máquina, etc., para lo que no tiene asignación, descontándolo de lo que recibe, mejor dicho de lo que no recibe, porque todavía tiene cinco meses cumplidos por cobrar. Parece que Leizaola le prometió a Gortazar hablar del asunto, pero como han regresado Vds. a París y no tenemos noticias, supongo que el asunto ha quedado en nada. Y se trata de una suma de ¡10.000! frs., irrisoria para la representación que ostenta y el trabajo que realiza. Yo creo que por esa cantidad ningún empleado del Gobierno de Euzkadí trabajará, y desde luego ninguno tanto como él.

Y le voy a contar a Ud. un pequeño detalle. Se van a celebrar en Pau el año que viene [...] grandes fiestas con motivo del cuarto centenario de Henry IV de Francia, y anteriormente III de Navarra. Irujo ha escrito a Keperin a este respecto tres cartas que han exigido, naturalmente, tres sellos de correo, tres papeles y tres sobres, y yo creo que Irujo seguirá escribiendo en todo el tiempo que falta, pero que no se extrañe si un día Keperin no contesta ni a él ni a otros, contra su costumbre, porque Ud. sabe que un grano no hace granero, pero ayuda al compañero y en nuestro caso la ayuda es a desfondarnos y hundirnos más.

Así las cosas, yo le suplico a Ud. que me diga qué representa Keperin en Pau, cuando al acercarse a las autoridades para enterarse de lo que le encargaba Irujo y pedirle su dirección para seguir informándole tuvo que poner en un “bout de papier” por no tener tarjetas de visita.

Gutunaren amaieran, dirua behar zutela esaten zion Erraztik, eta, dirurik bidali ezean, bigarren utzi beharko zutela beren burua Espainiako kontsularen esku:¹⁶

¹⁶ 1951ko urriaren 16an Jemeinek Arregiri bidalitako beste gutun batean (EAH. Funtsa: Ekin argitaletxearen eta Irujo familiaren artxiboa. Erreg. inf.: 332869), esaten zion Madriletik ukatu egin ziotela Espainiara itzultzeko 1950eko martxoan egindako eskaera: «El mes de marzo pasado, no pudiendo ya sostener nuestra situación aquí, me vi dolorosamente obligado a hincar el pico acudiendo al Poncio hispano en Pau para pedirle nuestro regreso al Imperio, al arrimo de mi hermana Merceditas y acogiéndonos a la tan cacareada amnistía. Al cabo de seis meses de espera, el de agosto me comunicó que nuestra petición había sido denegada por la Dirección General de Seguridad de Madrid». 1953ko abenduan 28an Agirreri idatzitako gutun batean ere, Jemeinek lehendakariari esan zion 1950ean ukatua ziotela Espainiara bueltatzeko eskaera bat, eta 1953ko abenduan bigarren bat egiteko bidea aztertzen ari zi-

Y para terminar por hoy, una sola cosa y es que nos hace falta dinero, precisamente, si no hemos de entregarnos al Cónsul de España, por segunda vez y esta con el agravante de que la anterior nos denegaron.

4. Kar mele Erraztiren testu argitaratuak eta hitzaldiak: azalpen laburra

4.1. Gerra aurreko testuak

4.1.1. *Lehenengo artikulua (1907-1911)*

Artikulugintzan aritu zen, batez ere, Errazti. Bere lehen artikulua idatzi zuenean, Erraztik ez zekien oraindik euskaraz, baina pozez iragarri zuen lehen hezkuntza «Aitorren hizkuntzan» hasiko zirela irakasten Jesusen Bihotzaren Mirabeen ikasketxean. Erraztik aberria salbatzeko ezinbesteko urrats gisa ikusten zuen euskararen salbazioa, eta, hala, euskaldun guztiak animatzen zituen Bilboko institutuan Kirikiñok ematen zituen euskara-eskoletan izena ematera.

1911rako, Errazti gai zen euskaraz idazteko, eta hizkuntza horretan ondu zituen bere hurrengo bi artikulua, *Etxakin* ezizenarekin sinatu zituenak:¹⁷ «Sabin'i», Aranaren heriotzaren urteurrenaren harira idatzitakoa, eta «Euzkadi'ren Bakalduna», Euzko-Gaztediaren zaindari Ama Birjina Sortzez Garbiaren biharamunean argitaratua. «Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat» leloa aldarrikatu zuen bi artikuluhorietan: lehenengoan, itxaropen-mezua igortzen zion Aranari, eta, bigarrean, abertzaleei eskatzen zion Ama Birjinari otoi egiteko, hark euskaldunei askatasuna eman ziezaien.¹⁸

4.1.2. *Ipuinak eta umeentzako irakurgaiak (1909-1916)*

10eko hamarkadan, ipuingintzari ere lotu zitzaion Errazti. Ibilbide horretako lehen urratsa 1909an eman zuen, Kirikiñoren eskutik, eta haren euskara-eskoletan Erraztik idatzitako testu labur bat argitaratu zuten *Euskal Esmnalearen* 1910eko *Esku-Egundiyan*. 1907ko artikuluan bezala, euskararen aldeko mezu bat igorri zuen Erraztik bertan: «Geure zañetan euzko-odola ba-daruago, zabaldu dagigun il-agiñian dagon euzkerea; eta azkatasun-eguzkijak argituko dau geure Aberri maitia» (67. or.).

rela. Aurretik, 1953ko apirilean, otsaila eta apirila bitarteko atzerapenak eskatzeko idatzi zion Jemeinek Agirreri, eta, maiatzean, eskerrak emateko gutun bat igorri zion lehendakariari, jasotako 30.000 liberegatik. 1954ko martxoaren 10ean, Jemeinek berriro eskatu zion laguntza lehendakariari, Espainiako Atzerriko ministroak bere eskaera bigarrenez ukatu zuela esanez (EAH. Funtsa: Eusko Jaurrlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saila. Erreg. inf.: 3436267).

¹⁷ 1910etik, *Bizkaitarra* astekariak bazuen «Colaboración femenina» izeneko atala, gaztelaniazkoa; alabaina, Erraztik euskaraz idatzi zituen bere artikulua, eta, hortaz, atal horretatik kanpo argitaratu ziren (Ugalde 1993: 81, 84).

¹⁸ «Bai, ama kutuna, ta gaurr biztokiko alde gustijetatik abotza jasoten ba-da zeure Sorrkunde Orrbanbakua goresteko, Euzkadi'ko semiok lenenguak ixan gura dogu geure Ama ta geure Aberrija'ren Bakalduna deituteko. [...] Berak onen orrdez emongo dauku Euzkadi'ren azkatasuna». Euskaldunek Lourdesera egindako erromesaldiak ere aipatzen ditu bertan: «Lenengoz iru anei ta geyago Lourdes'era eltzen ziran zeuri esateko Aberrija'ren orde z joyazala ta zeure jopubak ixan gura dogula, zeu, geure Bakalduna zara ta». Arana ere Lourdesera joana zen bere eztei-bidaian (Jemein 1935: 281).

1911-1912 bitartean, umeak JEL doktrinan hezteko lau irakurgai didaktiko argitaratu zituen *Euzkadi* aldizkarian, denak euskaraz:¹⁹ «Gabon'go gotzon bat», Gozzone izeneko ume baten jainkozaletasuna ardatz duena;²⁰ «Bakaldun aurreguna», Errege eguneko opariaren ingurukoa; «Ume bijotz-samurrduna», Leon XIII.a aita santuari buruzkoa, eta «Neguko loreak», Ama-Euzkadiren umeak zintzotasunera bideratzeko idatzitakoa.²¹ Lan horietan guztietan, testu garaikideetan ohikoa zen joerarekin bat egin zuen Erraztik, eta gertaera jakin batetik (gabonak, umearen ametsa...) edo omendu nahi zuen pertsona batetik abiatuta ondu zituen bere testuak (Etxebarria 2000: 393-394). Aranek zabalduz doktrinan, aberriko lege zaharren gaitetik zegoen Jaungoikoaren legea (Etxebarria 2000: 391), eta, aita santuari buruz idazteaz gain, Mateoren ebanjelioko hitzak txertatu zituen Erraztik «Bakaldun aurreguna» ipuinean ere: «Irakaslaririk jarraitu eban: Goizparran irakurten dogu “Eskatu ta artuko dozube” [Mt 7,7] baña Josu Kristo'k bai-ekijan lez ume ta gixonen eskiak zuzenak ixango etzerala beti, orregatik otoi-eredu bat egorri euskun, auxe da: “Geure Aita Goikua” [Mt 6,9] neugaz zesan gura dozube?» (465-466. or.).

1914an idatzitako *Amesa?* ipuinak ere gozamenaren bidez Aranaren ideiak umeengan ernarazteko helburua zuen (Etxaniz & Fernández de Gamboa 2020); zigor-eraztunaren kontra idatzitako ipuin hori Bilboko Euzko-Gaztediaren *Umientzako ipuñak* sailean argitaratu zen.²² Baliteke Arturo Campiónen *Blancos y negros* (Iruñea, 1898) eleberraren oihartzuna egotea Erraztiren ipuinean; ametsaren gaia ohikoa izan zen garai hartako euskal ipuinetan,²³ baina, aurreratu bezala, Euzko-Gaztediko kideek oso presente zeukaten elementua du ardatz Erraztiren testuak: zigor-eraztuna. Eli Gallastegik, adibidez, —Karmele Erraztik ondo ezagutzen zue-nak— eraztunarekin lotutako pasarte zeukan buruan iltzatuta Campiónen lanetik; hainbestearino, non pasarte hori transkribatu zuen eskolako lan baterako (Lorenzo 1992: 32, *apud* López 1998: 192; Zuberogoitia & Zuberogoitia 2008: 58):

El trabajo que yo presenté fue la escena brutal que tanto me conmovió [...] de *El anillo*, de la novela *Blancos y negros* de Campión, en la que surgen vigorosamente los caracteres de “Martinico”, el maestro Balda y “Cuadru” [...]. Y como personaje

¹⁹ Jeltzaletasunak emakumeen gain utzi zituen, neurri handi batean, hezkuntza eta hizkuntza, eta, Erraztik ez ezik, beste emakume batzuek ere idatzi zituzten, garai bertean, euskarazko testu hezigarriak; esaterako, Tene Mujikak (Goikoetxea 2022: 61-62). Garai hartako emakume abertzaleen testuek erakusten duten nazio-konpromisoa agerikoa da Iberiar penintsulako beste nazio batzuetan idatzitakoetan ere (Sánchez-Pinilla 2012: 59).

²⁰ Kirikiñok idatzitako ohar honekin argitaratu zen testu hori (298. or.): «Neskatiilla au erdalduna zan orain iru urte; exekijan euzkerarik ezer. Asi zan Bilbao'ko *Instituto*'ko euzkel-ikastolara juaten, eta jarraitu dautso ikasten ondo jakin arte bai idazten eta bai itz-egiten. [...] buru argija dau ta bijotza sustuba, ta onez ganera *Jel*-maitale zintzua da».

²¹ Testuaren amaieran (460. or.), Kirikiño izan zuen gogoan Erraztik: «Zorijontsubak, txiki-txikitan au irakurri dagikezubenak, eta neu be irakasleri bateri eskarrak, euzkel-jakimenez eta ontasunez betia, geure ele ederraz itz-egin eta idatzi dagiketzubedalako. Berari neure betiko eskarr-ona».

²² Sail berean, Mujikaren hiru ipuin argitaratu zituzten, besteak beste: *Antontxo*, *Koldobika ta Jon* eta *Zorionaren jauregiya* (Goikoetxea 2022: 233).

²³ *Ametsa!* izenburua zuen, adibidez, Petra Belaustegik (1909) urte gutxi lehenago idatzitako ipuinak —Euskal-Esnalearen 1909ko lehiaketan lehen accesita irabazi zuenak—, eta, Erraztiren liburua-ren sail berean, ametsa —amesgaitza— ardatz duen beste ipuin bat inprimatu zen: Gauzekitzen (1914) *Margarite'ren ames ixukorra*.

mudo, fríamente delator como el metal, el infamante “anillo” que proporcionaba al desgraciado niño que lo llevara un castigo brutal por haber hablado en euzkera con sus propios compañeros euzkaldunes. [...] volví a mi pupitre sintiendo la satisfacción de haber puesto allí en evidencia, ante los demás alumnos y ante el profesor español, el sistema de enseñanza que España empleaba con la *murder machine*, la máquina asesina de nuestro idioma nacional y de nuestro carácter.

1916ko abenduan, «Gabon zoruntsua» izeneko gabon-ipuina euskaratu zuen Erraztik, balio kristauen transmisioan amek duten eginkizuna azpimarratzen duena.²⁴

4.1.3. *Teatro-lan bat (1915)*

1915ean, *Oleskari bijak* «euzkel-antzeztija» (‘komedia’) idatzi zuen Erraztik, senararekin batera. Teatro-lan horrek bigarren saria erdietsi zuen Euzkeltzale-Bazkunak antolatutako lehiaketan,²⁵ eta, Jemeinen (1956: 43) esanetan, batzoki askotan antzeztu zuten.

Erraztik aurretik idatzitako testuek bezala, doktrina jeltzalea zabaltzeko helburua zuen *Oleskari bijak* antzeztan, eta senar-emazteek Kepa Enbeita «euzko-oleskari-rik gorengo ta bikañenari, aberztzale zindo, bijotz-maitekorra ta aizkide on-onari» eskaini zioten beren teatro-lana. Bertan azaltzen diren bi bertsolariek bi euskaldun-eredu kontrajarri gorpuzten dituzte: Jon abertzalea da, baina Mikel, ordea, ez. Biek maite dute Édurne «zurra [...] ta gustiz jaungozalia» (24. or.), eta, hark eskatuta, bertsolari-txapelketa baten bidez erabakitzen dute nor ezkonduko den neskarekin. Jonek Mikelek baino bertso hobek botatzen ditu txapelketan, baina epaileak aberztzaleen arerio dira, eta, Jonek aberriaren aldeko bertso sutuak bota dituzenez, Mikeli ematen diote saria. Mikelek, hala ere, Jon jotzen du garaitzat; hortaz, hari ematen dio saria, eta aberriarenganako maitasunarekin ordezkatzan du Edurnerenganako maitasuna.

Antzeztanaren hari nagusia hori den arren, mende-hasierako abertzaleen artean kezka eragiten zuten zenbait gai ere aipatzen dira lanean; besteak beste, Jaunaren hitzari jarraitu beharra eta gazte abertzale askoren Ameriketarako ihesa. Abertzaletasunaren aldeko mezua zabaltzeko, bestalde, pisu berezia duen beste pertsonaia bat azaltzen da antzeztanean: Amandarro agurea. Dakigunez, *Amandarro zen* Jemeinek bere testuak sinatzeko erabili ohi zuen ezizenetako bat, eta, 1950eko «Emakume oleskari-jak» artikuluan ere, Amandarroren abestiak aipatuko zituen Erraztik;²⁶ *Oleskari bijak*

²⁴ J. B. Hégoren testuren batetik «euzkaraldu» zuen Erraztik ipuin hori, baina ez dut lortu jakitea zeinetatik. *Catalogue collectif de France* delakoan, Hégoren ipuin-bilduma bakarra aurkitu dut, 1916. urtea baino lehenago argitaratutako lanen artean: Hégoren liburu horretan, bada «L’anniversaire. Récit de Noël» izeneko ipuin bat (Hégo 1896: 179-190), eta bertan, Erraztiren ipuinean bezala, Paul izeneko ume bat agertzen da. Nolanahi ere, ipuin horren testua ez dator bat Erraztik euskaratutakoarekin, eta, beraz, nago bestelako bildumaren batetik atera zuela Erraztik Hégoren testua.

²⁵ Luis González Etxebarri *Aizkibel’dar Bingenen Jai alai* lanak ere lortu zuen saria urte horretako lehiaketan. Garai horretan Bizkaian idatzitako beste teatro-lanetako bat da Kirikiñoren *Anton Berakatz* (Zubikarai 1991: 13-18).

²⁶ «Aldi berean Amandaro’re[n] [...] abestijak entzuten ziran» (*Euzko-Gogoa* 1(9/10) [1950-09/10]. 15).

antzezlanean, baina, Amandarro agureak zabalago kontatzen du Otxandioko Amandarro zaharraren istorio mitikoa (19. or.):

Bertsolari orrek abestu euskun “Amandarro” zarraren egite goragarrija. “Amandarro” zarra itxultzen zan bere etxera, seme gustijak ilda itxita Otxandio’ko zabaletan Bizkaya’ren arerijua atzera bere errira bidaltuta gero. Eta bere emaztiak itandu eutsonian, begijak negarrez beterik: “¿Nun dozak neure bijotzeko zatijak? ¿Nun dozak ene bijotzeko semiak?” Amandarro’ren erantzuna ixan zala: “Amandarro’k etxon semerik, baña Bizkaya’k etxon buztarririk”.

Literatura foruzaleak behin baino gehiagotan izan zuen hizpide Amandaroren semeen elezaharra.²⁷ Litekeena da, hala ere, Errazti eta Jemeinen iturria bat etortzea Colomborenarekin (1936: 205); alegia, *Vida Vasca* aldizkarian argitaratutako testu honen egilearen —ustez, Luis Ureña Basterrechea donostiarra— iturriarekin:

El 25 de agosto de 1355 se libró formidable batalla entre los vizcaínos, mandados por D. Juan de Abendaño, contra las tropas del rey de Castilla, Pedro I el Cruel, hermano éste de D. Tello, mandadas por Juan de la Cerda, habiendo salido victoriosos los vizcaínos. En esta batalla se derramó mucha sangre. Todos los habitantes de la villa lucharon con las tropas de Abendaño en defensa de la independencia de Vizcaya. Hubo uno que perdió a cinco hijos en aquella batalla: Amandarro. Al terminar aquella refriega, Amandarro recorrió el campo de batalla, hallando los cadáveres de sus cinco hijos. Y al regresar a su casa sólo y preguntar su compañera por los cinco hijos, Amandarro, con un rugido patriótico, y dando por bien empleada la sangre de sus hijos, le contestó: «Amandarro no tiene hijos; pero Vizcaya no tiene yugo».

4.1.4. *Neskatila euskaldunak jeltzaletasunean hezteko aholkuak (1916-1918)*

1916ko otsailean, Euzkeltzale-Bazkunak *Euzko-Deya* aldizkaria sortu zuen. Tene Mujika izan zen aldizkarian kolaboratu zuen lehen emakumea, urte horretako apiriletik aurrera (Ugalde 1993: 85), eta, 1916ko urria eta 1918ko uztaila bitartean, «Euzkeldun neskatillai» zuzendutako hamahiru artikulua idatzi zituen Erraztik, etxe-koandre(gai) euskaldun abertzaleen jokabide egokiari buruzko eredu eta proposamenekin. Erraztiren hitzetan, gizonak beti zeukan nor irakatsi, baina emakumeak, aldiz, ez, eta are gutxiago euskaraz; horrenbestez, emakume euskalduna «ondo menduba ixateko» (*Euzko-Deya* 1916-10-01) —alegia, JEL doktrinaren arabera hezteko— zenbait aholku eskaini nahi izan zituen (Rekalde 2012: 24): «Neskatilla batek jakin daiken gustija ezta gauza, sendi edo *pamilija* zaindu ta etxia atonduten ezpaki. Etxekandera-geya ixateko ikastola edo eskolatik urten dan neskatillari jakin

²⁷ Amandaroren semeen kontakizunaren beste bi bertsio ezagutzen ditut: Vicente Aranarena (1880, 1882: 15-58) eta Juan E. Delmasena (1904). Aranaren bertsioak xiv. mendean kokatzen du Amandaroren istorioa, banderizoen gerren garaian. Calahorrako apezpikuak Bizkaiko lurra bereganatu nahi izan zituen, eta bizkaitarrek Otxandion egin zioten segada apezpikuaren armadari; hura hiltzea ere lortu zuten, baina Amandarro alargunaren bi semeak ere —Alonso eta Inigo bikiak— guduan hil ziren, nahiz eta Amandarro bere semeak bertatik aldenarazten saiatu zen. Delmasen (1904) bertsioan, berriz, Eurikoren osteari egiten diete aurre bizkaitarrek, Honorio enperadorearen garaian (v. mendea); aitaren bedeinkazioarekin borrokatzera abiatu eta gero, Amandaroren hiru semeak —Astor, Uchin eta Iciar— Eurikoren kontrako guduan hiltzen dira, «Betzaide» mendiaren inguruan.

erazo biar-yakoz etxeko biarrkun edo obligaziño gustijak, beti zoriontsuba izan daiela gura-ezkero» (*Euzko-Deya* 1916-10-01).

Euzko-Deyan argitaratutako artikulu-sortan, jeltzaletasunak eta kristautasun ortodoxoak emakumeari ezarritako betebeharrekin bat zetozen hainbat ideia zabaldu zituen Erraztik:²⁸ emakumea dela bere bertuteekin etxeari eusten dion besoa; berak ekarriko dituela zoriontasuna eta itxaropena etxera; ikasi egin behar duela, baina harropuztu gabe eta alaba-, emazte- edo ama-beharrak alde batera utzi gabe; guztien maitagarri izatearen ordainetan, besteen aurrean burua makurtzeko prest egon behar duela; errukiorra eta barkabera izan behar duela eta, aldi berean, bere atsekabeak disimulatu behar dituela; garbia eta langilea izan behar duela; etxeko ekonomia ondo eraman behar duela edota, ama gaixorik badago, hari lagundu behar diola. Ugalderen (1993: 85-89) esanetan, familia eta etxea bere buruaren gainetik maite zituen emakumearen irudi horren bidez, sumisiora eta despersonalizaziora bideratzen zuen metodoa eskaini zuen funtsean Erraztik, nahiz eta hori ez zuen helburu; horrez gain, ordea, Erraztiren ekarpenaren beste irakurketa batzuk ere egin daitezke.²⁹

1921ean, *Euzkadi* egunkariko «Emakumea eta Aberria» atalean, «Miren Itziarr'i idazkiak» izeneko hemeretzi artikulu argitaratu zituen Mujikak —gerora, abertzaleen artean piztutako interesagatik, liburu-eran argitaratu zituenak, berak idatzitako beste poema batzuekin batera (Mujika 1923)—. Emakume nazionalisten arketipoa azaldu zuen Mujikak artikulu-sorta horretan (Rekalde 2012: 23), eta, Erraztiren testuetan bezala, abertzaletasunari kritikatzeko zaion atzerakoikeria ikusi dute ikerlari askok Mujikaren testuetan (Goikoetxea 2022: 76). Testu horiek irakurtzean, hala ere, gogoan izan behar dugu, batetik, kristautasunaren kode moral estua —bere balio sozialekin, justiziaren zentzuarekin eta maitasunaren aldarriarekin— kode etiko bat zela jeltzaleentzat (Goikoetxea 2022: 43), eta emakume abertzale gehienak konforme zeudela, gainera, jeltzaletasunak eta erlijioak gizartean ematen zien eginkizunarekin, Etxebarriak (2000: 391) azaltzen duen bezala:

Por lo tanto, puede decirse que ciertos conceptos aparecen bastante ligados: mujer - mujer vasca - madre - compromiso con el pueblo. Pero estas mujeres se muestran satisfechas con su condición de mujer y la tarea que les corresponde tanto en la familia como en la sociedad, y son conscientes de su deber y su compromiso.

Bestalde, ezin dugu ahaztu emakume abertzaleek *mainstream* misoginoan negoziatu behar izan zutela ahots publikoa izatea (Goikoetxea 2022: 77, 115); Erraztik berak esaten du *Euzko-Deyako* gizonen baimenarekin idazten duela edota bere

²⁸ Besteak beste, hauxe idatzi zion Aranak Nikole Atxikallende emaztegaiari 1899an, ezkondu baino lau hilabete lehenago: «Tú me debes a mí la adhesión y sumisión que la Iglesia debe a su esposo Jesucristo» (Agirreazkuenaga 2010: 58; Sarriguarte 2023: 74-75). Aranaren ideologiak irudikatutako emakume-ereduari buruz eta ideologia horrek emakumeari ezarritako genero-harremanei buruz luze aritzen da Ugalde (1993: 32-50). Erraztiren iturrien gainean, ikus San Juan Manso (2025b).

²⁹ xx. mendeko emakume abertzaleen inguruko azterketari heltzeko moduari dagokionez, Rekaldek (2012: 21-22), esaterako, azpimarratu du orduko egoera eta bizi-baldintzak «irudikatzea oso lagungarria» dela, «emakume horien ekintzak *balio urrikotzat edo hutsaltzat ez hartzeko*». Ildo bertsutik, Tene Mujikaren lanaren berrirakurketa bat egin berri du Goikoetxeak, «60ko hamarkadaz geroztikako paradigmatic egindako irakurketa murriztaileak» gainditzeko (Goikoetxea 2022: 23); EABko emakumeak hainbat zapalkuntza-ardatzen intersekzioan egon direla jarri du agerian Goikoetxeak (2022), eta, ikuspuntu intersekzioaletik, Mujikaren ekarpena zertan datzan erakusten saiatu da, beste gauza askoren artean.

testuak «gogaikarriak» direla,³⁰ 10eko hamarkadan emakume batek prentsan idaztea ausarkeriatzat jotzen baitzen (Larrañaga 1978: I, 34). Testuinguru horretan, beraz, «emakume abertzaleek esaten zutena bezain garrantzitsua» —edo ia— zen «esatea bera» (Goikoetxea 2022: 58), eta, emakumeen aurkako nolabaiteko bortxa erabilita ere, Erraztiri aitortu behar diogu bai emakumeentzako argudio-multzo berariazkoa sortzen saiatu izana —Mujikak Miren Itziarri zuzendutako idazkietan egin zuen bezalatsu (Goikoetxea 2022: 107)— bai —zuzen ala oker— emakumeek etxean egiten zuten lanaren balioespenaren bidez emakumeen aitortza bilatu izana (Crespo 2022: 105).

1918an *Euzko-Deyan* idatzitako beste bi artikulutan (1918-01-16, 1918-03-16), Lehen Mundu Gerrak etxeko ekonomian izandako eragina izan zuen hizpide Erraztik: bi testu horietako lehenengoan, 1914-1918 bitartean prezioek izandako gorakada aztertu zuen, eta, bigarrenean, etxean xaboia egiteko errezeta bat eman zuen, dirua aurrezteko bide gisa; Erraztiren bi artikuluko horien ildo beretik idatzi zuen, adibidez, Julene Azpeitiak *Osasuna, merketza eta yanaritzaz* (Bilbo, 1922) liburuko sarrera, Erraztiren artikulua argitaratu eta lau urtera.³¹

4.1.5. 20ko eta 30eko hamarkadetako kolaborazioak (1922-1935)

1922-1935 bitartean, data seinalatuetan bakarrik idatzi zuen Erraztik; gehienetan, EABko lehendakariaren —edo lehendakari ohiaren— karguak ematen zion legitimaziotik. 1922ko uztailan, adibidez, Bilboko Euzko-Gaztediak Aranari Sukarrietan egindako omenaldiari buruz *Aberrri* astekariak argitaratutako aldizkari berezian, omenaldiko hainbat uneri eta sinbolari buruz idatzi zuen; besteak beste, umeek Aranari egindako lore-eskaintza izan zuen hizpide, bai eta EABko emakumeek omenaldirako prestatutako banderak ere. Erraztik aurreko hamarkadan idatzitako beste testu batzuen oihartzunak nabari dira 1922ko artikuluko horretan: *¿Amesa?* ipuinean bezala, umeak eta zigor-eraztuna izan zituen berriro hizketagai Erraztik, eraztuna zeraman ume bat Aranari nola lasaitu zuen gogoratuta; bestalde, «Bakaldun aurreguna» ipuinean bezala, Mateoren ebanjelioko hitzak aipatu zituen Erraztik, eta, Arana ia Jainko modura irudikatuz, Jesusen hitzak jarri zituen Irakaslearen ahotan: «Dejad que los niños se acerquen a mí» 'Utzi haurrei niregana etortzen' (Mt 19,14).

1929an, Kirikiñoren heriotza-urtean, haren omenezko testua idatzi zuen *Euzkerea* aldizkarirako, busturiarraren euskara-eskolak gogoan, eta, 30eko hamarkadan, Erraztiren lau artikuluko argitaratu ziren: 1931ko abenduaren 31n sinatutako idazkian (*Euzkadi* 1932-01-01), EABko lehendakari-kargutik dimisioa ematen zuela jakinarazi zuen Erraztik;³² 1932ko martxoan argitaratutakoan, Aberrri Egunean umeek Sa-

³⁰ «Euzko-Deya» zuzentzen daben mutillak laketu (*permitidu*) dauskube-ta, ekin dayogun geure arluari» (*Euzko-Deya* 1916-11-01); «Irakurrerik gitxi eukiko dodala bai-dakit, neure jardunak gogaikarriak dira-ta» (*Euzko-Deya* 1918-07-01).

³¹ Emakumeen heziketa —hots, etxekoandre ona izateko heziketa— EABko hezkuntza-ardatzetako bat izan zen hasiera-hasieratik (Perez *et al.* 2022: 110-112). Azpeitiaren lanean, agerikoa da garaiko higienisten eragina (Fernández 2012: 283).

³² Testu horretan, Erraztik eskerrak ematen zituen berriro EABko lehendakari hautatu zutelako, baina, karguak txandaka bete behar zirela azalduta, dimisioa ematen zuen. Erabaki horren oinarrian beste arrazoi batzuk ere bazirela esaten zuen Erraztik: arrazoi horiek EABko zuzendaritzakoei dagoe-

bin Etxean egindako omenaldiaz jardun zen, eta, 1932ko ekainean —alegia, EAB berregituratu zeneko lehen urteurrenean— idatzitakoan ere, EABren ibilbideari buruz aritu zen.³³ 1935ean *Amayur* astekarían argitaratutako artikulua, berriz, 1922an *Aberriren* ale berezirako atondutako testu bera da.

4.1.6. EABko lehendakari gisa emandako hitzaldiak (1922-1931)

1922ko urriaren 15ean, ikastaro berriari hasiera emateko jaia antolatu zuen Euzko-Gaztediak, eta Erraztik ekitaldi horretan emandako hitzaldi osoa argitaratu zuen *Aberrik* —ezbairik gabe, EABren aldeko propaganda egiteko asmoz (Ugalde 1993: 152)—.³⁴ Bere diskurtsoan, «amaitu-zorijan dagon udaldi onetan inoiz baño gogorrago, sakonago, ta ugarijago jel-azija erein» zutela baieztatu zuen, besteak beste, Erraztik, eta eskerrak eman zizkien euskara-eskoletan izena eman zuten irakasle eta ikasle guztiei. Euskara ikasteak denbora eta lana eskatzen zuela gogorarazi zuen Erraztik, eta, emakumeak EABra hurbildu nahian, emakumeek ere aberriaren alde zer esana eta egina bazeukatela azpimarratu zuen:

Gixonik geyenak, eta emakumerik geyenak be, zoritzarrez, emakumia eztala Aberri-gaizkakunde onetan sarrtu biarr uste ixaten dabe, an *politikia* dalako ta emakumia sukalderako bakarrik menduba ixan biarr dalako. Neuk dirautzubet ori uste dabenak okerr uste dabela. Aberrija gustijoena da, bai gixonena ta bai emakumien; eta bere biarrak gustijai dagokiguz. Aberrija'ren zorijona emakumiagana be eltzen da, ta bere zoritxarra, sarritan, gixonai baño sakonago. Sukalderako emakumia menduba ixan biarr dala, nik eztot ukatuko, alantxe da-ta. Baña sukaldian, amaika negarr urten dira emakume euzkeldunen begijetatik, Aberrija'ren joputasunak erakarrita. (*Aberri* 1922-10-21)

Handik hilabete batera, 1922ko azaroaren 25ean, Aranaren heriotzaren hemeretzigarren urteurrena ospatzeko ekitaldi literario-musikala antolatu zuen Euzko-Gaztediak Bilboko Sociedad Filarmónicaren egoitzan, eta bertan ere hitzaldia eman zuen Erraztik. *Emakume* baten lehen agerpen publikoa izan zen hori —Euzko-Gaztediko egoitzatik kanpo— (Larrañaga 1978: I, 37), eta Erraztik emandako mintzaldiaren

neko azalduak zizkiela baieztatzen zuen, eta EABko beste edozein kideri ere azalduko zizkiola, hala eskatuz gero. Erraztik zuzenean aipatu ez arren, badirudi jeltzaletasunaren barruko eztabaidek eragin zutela Erraztiren dimisioa. Izan ere, nahiz eta 1930ean jeltzaleen baitako bi sektore nagusiak —Aberriko independentistak eta CNVko autonomiazaleak— berriro elkartu ziren, 1931ko koiuntura politikoak —autonomia lortzeko aukera ematen zuenak— egoera ahulean utzi zituen aberrianoak. Hala, ematen du 1931ko urte bukaeran emakume-talde batek auzitan jarri zuela Erraztiren lidergoa, eta, hori dela eta, Erraztik uko egin behar izan ziola lehendakari-karguari, Euzko-Gaztediko lehendakari Eli Gallastegik egun gutxi lehenago egina zuen bezalatsu. Bere idazkian EABn laguntzen jarraitzeko prest agertzen bazen ere, ematen du Erraztik EABtik aldendu zela alderdiaren barneko eztabaida horien ondorioz, eta ez omen zen berriro agertu EABren egoitzatik (Ugalde 1993: 309-311). 1932ko urtarrilaren 18ko bileran, Teresa Azkue aukeratu zuten EABko lehendakari (Larrañaga 1978: I, 91).

³³ 1932ko testu horretan jasotako ideietako bat hauxe da: etxe barruko bizitarako berezko atxiki-menduak ere ezin izan zituela emakumeak aldenarazi jeltzaletasunaren aldeko borrokan aritzetik: «Su natural recato, su apego a la vida del hogar, ¿serían obstáculos para tomar parte en esta cruzada por Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra? No».

³⁴ Ordura arte, emakume baten hitzaldi bakarra argitaratua zuten —osorik— egunkari abertzaleek: Paulina Ramosek EAB sortzeko bileran emandakoa (*Aberri* 1922-04-15).

kronika argitaratu zuen *Aberrik*. Kronika horren arabera, zenbait emakume abertzale aitzindari goraiatu zituen Erraztik bere diskurtsoan; besteak beste, Garbiñe, Mirentxu eta Tene prentsa-kolaboratzaileak, Pauliñe eta Pantzeske Arana-Goiri ahizpak,³⁵ bai eta Catalina Sota ere —Ropero Vascoko diruzain ohia, hitzaldia baino egun gutxi lehenago zendua (Ugalde 1993: 156)—. Jarraian, Aranak irudikatutako emakume abertzalearen ezaugarriak aztertu zituen, *Libe* antzezlaneko pasarte batzuk irakurrita: bere hitzaldian, Erraztik femininotasunaren eta abertzaletasunaren eredu gisa aurkeztu zuen Libe, Erausoren eta *Varona* (edo *Barona*) delakoaren gizon-jarrera borrokazalea arbuaituta. Azkenik, Aranak deskribatutako emakume abertzalearen eredu jarraitza eta Aranaren irakaspenak betiketza adoretu zituen EABko emakumeak.³⁶

Bederatzi urte geroago, 1931ko urriaren 15ean, EABk antolatutako mintzaldizikloaren hasiera-ekitaldian eman zuen hitzaldia Erraztik.³⁷ Ziklo horrek arrakasta handia izan zuen eta, emakume guztiak lekua izan zezaten, gizon gehienei galarazi zitzaien sarrera, gobernuko delegatuari, kazetariari eta beste autoritateen bati salbu; emakumeak izan ziren, beraz, Erraztiren hitzaldiko entzule gehienak (Ugalde 1993: 346). *Euzkadi* egunkarian argitaratutako kronikaren arabera,³⁸ EABren historiaren berri eman zuen Erraztik bere diskurtsoaren hasieran. Gero, Marie Gasqueten *Ce que les femmes disent des femmes* liburutik (Paris, 1931) ateratako iritzi batzuk azaldu omen zituen, emakumearen alde nahiz kontra —kronikak ez du zehazten zein—, iritzi horien gaineko balorazio kritikorik egin gabe. Jarraian, emakumeek gizonengan izandako eraginaren erakusgarri, hainbat emakume —mitiko nahiz erreal— aipatu zituen,³⁹ eta, ondoren, emakumeek ikastearen alde azaldu zen Errazti, baldin eta emakume- eta ama-zereginak alde batera uzten ez bazituzten eta harropuzten ez baziren, Molièreren *Les femmes savantes* laneko emakumeak bezain barrengarri gero ez zitezten.

Orobat, emakumearen egitekoa familiarik eta etxetik harago zegoela aldarrikatu zuen Erraztik hitzaldi horretan, eta emakumearen esku zegoela bai emakumearen beraren egitekoa bai gizonarena:

La mujer moderna se ha dado ya cuenta de que su misión no puede circunscribirse a la familia y al hogar, sino que ha de hacerse extensiva a la sociedad. Ha de ser,

³⁵ Ugaldek (1993: 365) azaltzen duen bezala, Ivone d'Arispék ere, esaterako, lehen emakume abertzale gisa gogoratu zuen Pantzeske Arana-Goiri, 1931n *Euzkadi* egunkarian argitaratutako artikulu batean (La mujer vasca juzgada por Sabin. *Euzkadi* 1931-11-25).

³⁶ Erraztiren hitzaldi horren eta 1931ko urriaren 15ean emandakoaren iturrien gaineko hainbat jakinngarri ematen ditut beste artikulu batean (San Juan Manso 2025b).

³⁷ EABk antolatutako ziklo horretan, Monzónek, Sorne Unzuetak, Manu Sotak, Lauaxetak eta Jose Antonio Agirrek ere eman zituzten hitzaldiak, besteak beste (Ugalde 1993: 346).

³⁸ Larrañagak (1978: II, 47), bestalde, Erraztiren hitzaldiaren gai-ordena hau jaso zuen: «E. A. Batza». Su origen y fundamento. ¿Qué es la mujer? Lo que las mujeres dicen de los hombres. Lo que dicen los hombres. La mujer en la Historia (Antiguo Testamento, Era Cristiana, Vida moderna). La cultura de la mujer. Nuestros días. La mujer vasca. Consideraciones».

³⁹ Bibliatik, Ester, Rut, Noemi, Dalila, Sabako erregina, Herodias, Salome, Marta eta Maria aipatu omen zituen; Grezia eta Erromatik, Tais, Lais, Lisistrata, Kleopatra eta Lukrezia, eta, ondorengo garaietatik, Ingalaterrako Viktoria erregina, Santa Teresa Jesusena, Angulemakoko dukesa, Fernán Caballero —Cecilia Böhl de Faber—, Kristina Saboiakoa, Concepción Arenal eta Joana Arcekoa.

en la vida actual, algo parecido a lo que fueron los apóstoles. [...] ¿Es la mujer lo que el hombre quiere que sea, o, por el contrario, es el hombre y la humanidad las que están influenciadas directamente por la mujer en su triple papel de hija, esposa y madre? [...] en la vida real resulta que el hombre no está donde él creía que estaba, sino donde ella ha querido que esté. (*Euzkadi* 1931-10-16)

Erraztik ez ezik, emakume abertzale gehiagok ere —beste askoren artean, Jule Gabilondo *Maitek* edota Teresa Zabalak (Ugalde 1993: 380-381)— zabaldu zuten aberria emakumeen berezko —eta ezinbestezko— dohainen esku zegoelako ideia. Ugalderen (1993: 573) esanetan, emakumearen bigarren mailako rola onartzeko nolabaiteko ordain gisa zabaldu zituzten emakume abertzaleek amatasunaren idealizazioarekin eta emakumearen neurrigabeko gaitasunekin lotutako ideia horiek, hori egitean genero-hierarkia ezkututzen ari zirela ohartu gabe. Alabaina, xx. mendeko lehen hamarkadetan, gizon abertzaleek —eta ez guztiek, gainera— jeltzale izaten —ez politikari izaten— uzten zieten emakume abertzaleei, eta, gizon horiek emakumeak espazio publikoan onartuko bazituzten, emakumeek amaren rola baliatu beharra zeukaten ezinbestean (Goikoetxea 2022: 115); egiteko hori onartuta, beraz, emakumea berresteko bide bat zen rol horren idealizazioa.

4.2. Erbesteko artikulua

4.2.1. *Azkatasuna (1945-1948)*

Azkatasun argitaratu zuen Erraztik erbestean idatzitako lehen artikulua, 1945eko azaroaren 25eko alean.⁴⁰ Arana goraiatzat zuen testu horretan, jeltzaleatasunaren aitzindari, apostolu eta profeta gisa aurkeztuta: «Todo nos lo diste hecho [...]: Lema. Doctrina. Bandera». Alabaina, horrez gain, batez ere EABren aitzindariatzat aurkezten zuen Arana Erraztik: «Pero lo que no saben seguramente los hombres es que también tú, Maestro, concebiste y nos diste “Emakume-Abertzale-Batza”». Eta, horren erakusgarri, Aranak 1898ko apirilean Mikel Lardizabali idatzitako gutun argitaragabe bat aipatzen zuen; Miren arrebaren —*Bizkaitarraren* lehenengo bazkideetako baten— heriotzagatik doluminak emateko idatzi zion gutun hori Aranak, eta, besteak beste, hauxe adierazi zion emakumeek abertzaletasunean zeukaten egitekoari buruz: «Solo el día en que el patriotismo llegue al corazón de la mujer podremos estar seguros del triunfo».⁴¹

Artikulu hori idatzi eta bi urte eta erdira, 1948ko otsailean, Erraztik beste bat idatzi zuen «Colaboración femenina» atalean, Concha Azaola lagun maiteari zuzendua.⁴² Artikulu horretan, Santa Ageda bezperan Bilboko Euzko-Gaztediak an-

⁴⁰ Gerra aurretik idatzi zuten *emakumeen* artetik, Pantzeske Astibia *Onintzeren* lanak ere argitaratu zituen *Azkatasunak*, Erraztirenak ez ezik (Barandiaran 2024).

⁴¹ Maitasuna zen, izan ere, emakumearen edo amaren figuraren nolakotasunik bereizgarrietakoa, eta, hori dela eta, hari zegokion —ia gizonari baino gehiago— abertzaletasuna; hala adierazten dute, esaterako, Jule Gabilondo *Maiteren* testu batzuek (Sarriugarte 2023: 45-46) edota Tene Mujikarenek (Ugalde 1993: 101).

⁴² Ropero Vascoren idazkariordea izan zen Azaola, eta, 1935etik aurrera, EABren zuzendaritza-taldeko *alma materra* (Ugalde 1993: 492; Arrien & Goigana 2002: 183, 185).

tolatu ohi zuen erronda ekarri zuen Erraztik gogora: nola ibiltzen ziren kalez kalez abesten Bidebarrieta kaletik hasita, nola betetzen zuten zakua «txindi»z eta «laurleko»z, edota nola geratzen ziren hotzak jota eta euriak bustita bertaratutako guztien aurpegiak.

4.2.2. *Alderdi (1948-1953)*

EAJren barne-aldizkarian gehien idatzi zuen emakumea izan zen Errazti.⁴³ 1948ko urriko alean, 1914an kaleratutako *¿Ameza?* berrargitaratu zuten *Alderdi*n —egilearen izenik gabe—, eta, 1949ko ekaina eta 1950eko maiatza bitartean, Etxakinek sinatutako sei artikulua argitaratu zituzten; lehenengo laurek lau sail bat osatzen dute, denak «Euzko-Emakumia ta Aberrija» izenburupean agertu baitziren.

Sail horretako lehenengoan, emakumearen parte-hartze politikoa defendatzen zuen Erraztik, aberriaren eta sendiaren arteko analogia batean oinarrituta; bere idazkian, orobat, sukaldea emakumearen berezko lekua zela onartzen zuen Erraztik, baina, sukaldeko sua zaintzeko zereginetik abiatuta, beste egiteko garrantzitsu baten ardura ezartzen zion emakumeari: abertzaletasunaren sua elikatzearena. Honela azaltzen zuen emakumearen eginkizun hori Erraztik:

Eztabaida aundijak sorrtu dira ia emakumia aberri-arazoetan sarrru biarr danez, alderdijetako goraberatan sarrru biarr danez; emakumia sukaldian dauka bere biarra esan daroe, ta abarr eta abarr.

Egija da, ta euzko-emakumiak eztogu ukatuten, emakumiaren lana etxe-barru, sendi-barru, sukalde-onduan dagola lenengo-lenengoz, an «Etxeko-Andera» lez aginduten eta aleginduten. Bai, ori egija da; baña sukaldian lenen-lenen biarr dana suba da. Orregaitik, antziñeko aldjietan suba iraungorr, ezilgorr euzko-sukaldietan etxeko-andereak gorde edo jaboten eben. Baña sukaldeko suba etxeko-andera euzkotarrak euren etxietan bixirik jaboten eben bitarrtian, Euzko-Aberri-Sukaldietan suba itzali ta itzaliten johan eta auspero bat baño etzan, galduriko azkatasunaren autsak estalduta.

Orduban, gixon miragarri bat agertu zan bapaten, ortzian izarr distiratsubak agertzen diran lez; eta ija itxalirik eguan suba piztu-erazo eban. Ordutik, Euzkadi'ko emakumiak bai-dogu aberrijan lan onuratsu bat, geuria beti ixan biarr-ixango zan lana Aberri-sukaldeko suba iraungorra egin eta illezkorr jabotia.

Bigarren artikuluan, aberria «buru-eskeintzez» elikatzearen garrantziaz hitz egiten zuen; alegia, norberak zeukan guztia —«ogasuna, osasuna, atsegiña, bijotza, odola, bizitza»— aberriaren alde ematearen garrantziaz. Horren adibide, Gexo-Zain-Bazkunaren bidez emakume abertzaleek eritegietan eta kartzeletan egindako lana gogoratzen zuen Erraztik, bai eta artikulua idazteko unean aberriaren sua elikatze —erbestetik nahiz aberrian bertan— lan egiten ari zirena ere. Ondoren, gogora ekartzen zuen nola sortu zen EAB 1922an, baita bere lehenengo aldian (1922-1923)

⁴³ Erraztik ez ezik, Margarita Unzalu *Amagoyak*, Pantzeske Astibia *Onintzek* edota Sorne Unzueta *Utarsusek* ere idatzi zuten aldizkarian (Barandiaran 2024); 1949ko ekaineko eta 1950eko urtarrileko aleetan argitaratutako artikuluetan, maitasunez agurtu zituen aspaldiko lagun horiek Erraztik. 1954an Errazti hildakoan, apenas argitaratu zen *Alderdi*n emakumeren batek idatzitako testurik, Barandiaranek (2024) esandakoaren arabera.

erakundeak zer lan egin zuen ere (euskara-ikastaroak, mekanografia-ikastaroak, ongintza-lanak, literatura-jaialdiak, etab.). Bukaeran, EAB sortu aurretik aberriaren alde lan egin zuten bi emakume aipatzen zituen: «Arana-Goiri'tarr Pauliñe» —«Sabin eta Koldobika'ren arrebea»— eta «Gorostitza'tarr Garbiñe» —«Jeltzale-izparringijetan agertu zan lenengo emakume idazlia»—.

«Euzko-Emakumia ta Aberrija» saileko hirugarren artikuluan, EABren bigarren aldia (1931-1936) izan zuen hizpide; besteak beste, umeentzako ikastolak eta emakumeentzako eskolak —«etxekandera zurrak eta zuzenak ixan daitezentzat»— gogoratu zituen, baita erakundea Euskal Herritik zabaltzeak ekarri zituen bestelako egitasmoak ere, hala nola Euzko-Emakume Abertzaleen Bazpata eta 1936ko Baionako Batzarra, Hego eta Ipar Euskal Herriko emakume-taldeekin. Laugarren artikuluan, berriz, EABk umei begira egindako lanari heldu zion; Donostian antolatutako lehen «poxpolin» eta «gatzetxu-batzak», 1931ko abenduko «Euzkadi'ko Gatzetxu-Batza», umeen ikastolak eta 1931ko Gabon eguna ospatzeko ekimenak (jaioberrientzako saskiak, Euzko-Gaztediko gabon-zuhaitzeko opariak...) aipatu zituen, batik bat, eta Urteberri zoriotsua opatu zien irakurle guztiei.

Emakumea eta aberriari buruzko lauiko sail horren ostean, «Nire Eretxija» izeneko artikulua argitaratu zuen, euskararen batasunaren gainean zeukan ustea plazaratzeko. Jemein-Errazti senar-emazteak bezala, Seber Altube ere Pauen —Jemein-Erraztiren hotel berean— bizi izan zen erbestealdian (Astigarraga 1989: 36); EAJren barruan, hasieratik euskararen batasunaren alde agertu zen alderdikide bakanetako bat izan zen Altube —*Udala* eta *A. Lertxundi* ezizenekin idatzi zuen *Alderdin*— (Barandiaran 2024), eta, ziurrenik, Altuberi entzundakoek eta irakurritakoek izango zuten nolabaiteko eragina Erraztiren artikulua hasierako hitz hauetan:

Aspaldijon, gixonak artega dabilta, urrduri ta kezkatu, atsedetik arrtu ezinik, euzkel-batasuna dala-ta [...]

Irurogei urte baño geyago dirala, gixonak eztabaida gogorrenetan asi ziran, ia euzkelgiyak batu biarr diran ala ez, zelan batu biarr diran eta zer egin biarr dogun Euzkera bakarra egiteko. [...] Zenbat txistu, ingi ta idazkura edo tintin galdu dan olako eztabaidetan. Eta alperrik, gero. Alperrik diñot, eta olantxe da, ixan be, orain irurogei urte lez gagoz-ta.

Euzkerea pixkanaka-pixkanata ba-duakigu, ezta batasuna dala edo eztalako. Euzkerea duakigu euzkeldunok eztogulako eutsitzen, eztogulako jasoten. Euzkerea eutsin eta jaso-erazoteko ezta beste biderik au baño: bakotxak dakijan eraz erabiltzia: bizkayeraz dakijanak, bizkayeraz itz-egin eta idatzi; gipuzkeraz dakijanak, gipuzkeraz itz-egin eta idatzi; txukuna dakijenak, euzkera txukunaz egin dagijela egin; eta euzkera kutxuduna dakijenak be barrdin. Ona emen emakume baten eretxija.

Hitz horien ostean, leku guztietako euskaldunak betidanik elkartu izan direla erakusten zuten zenbait adibide ematen zituen Erraztik; zehazki, aipatzen zuen nola joaten ziren Lourdesera gipuzkoarrak eta bizkaitarrak batera, nola biltzen ziren Azkueren etxean Euskal Herri osoko euskaldunak, eta, gerra garaian, nolako abegi ona egin zieten lapurtarrek Hegoaldeko euskal herritarrei. Horrek ondorio argi batera eramaten zuen Errazti: «Beraz, nire ustez beintzat, euzkelgijak eztira errudunak, geu baño. Ona emakume baten eretxija».

Badirudi 1950eko ekainean Jemeinek bertan behera utzi nahi izan zituela bai berak bai emazteak *Alderdira* egindako bidalketak, aldizkariaren maiatzeko aleko edito-

riala dela eta.⁴⁴ Julio Jauregik —aldizkariaren arduradunak— ekainaren 12an Jemeini bidalitako gutun batean, Jemeinek hilaren 8an berari idatzitako gutun bat aipatzen du, eta, Jauregiren gutunetik ondorioztatu daiteke horixe eskatzen ziola Jemeinek hilaren 8an idatzitako gutunean; nolahi ere, ekainaren 19an Jauregiri bidalitako beste gutun batean, arazoa konpondutzat eman zuen Jemeinek (SAF-EBB-116-02).

1950eko azaroan argitaratu zuten *Alderdin* Etxakinek sinatutako azken artikulua, «Arana-Goiri ta Emakume abertzaliak» izenekoa. Aranaren heriotzaren urteurrenaren harira idatzitako idazki horretan, EABren sorrera Aranari zor zitzaiola erakutsi nahi izan zuen Erraztik, eta EAJren sortzailea emakumeen parte-hartze politikoaren alde zegoela defendatu zuen: «Sabin'ek emakume abertzaliak maite ta goratu ebazala esango dot. Ori gixonak ez-edo dakije, baña jakin-erazoko dauset nik gaur emen». Horretarako, Aranak Miren Lardizabalen nebari idatzitako gutuna —1945ean *Azkatasunarako* idatzitako artikuluan dagoeneko aipatua zuena— izan zuen hizpide Erraztik berriro, eta Aranak gutun horretan idatzitako hitz hauek gogorarazi zituen: «Miren anderalako emakume abertzale ta zuzenak biar-doguz Euzkadi'n [...]. Emakumiaren bijotzera abertzaletasuna elduko dan egunian bakarrik garaikundiaren eski-er gongo gara».

1951ko otsaila eta 1953ko azaroa bitartean, Erraztiren beste hamar artikulua argitaratu ziren *Alderdin*; horiek, baina, *Emakume Batek* ezizenarekin sinatu zituen Erraztik. Gaztelaniaz idatzi zuen goitizen horrekin izenpetutako lehenengo testua: «Subordinación». Nazioartean Francoren erregimenari ematen ari zitzaion babesak kritikatzeko bertan Erraztik:

Estas consideraciones me las sugiere el año de 1950, que va a terminar y que tan pródigo ha sido en acontecimientos tristes para el mundo del ideal; [...] año de claudicaciones en el que se niega lo que antes se afirmó, se olvida lo que se prometió y se admite como bueno, y hasta como conveniente y necesario, lo que antes abiertamente se condenó y lo que se negó ayuda. Y así se mantiene todavía en el Estado español un régimen de dictadura, que las naciones llamadas demócratas dijeron iban a ahogar negándole toda ayuda. No obstante, esa ayuda es hoy más eficaz que lo ha sido en los catorce años de existencia de la dictadura misma, que se tambaleaba ya, y hoy está en plan de resurgir porque lo que ayer se le negó hoy se le presta.

Estatu «demokrata» zirelakoan jarrera ez ezik, zenbait abertzalerena ere izan zuen hizpide Erraztik; izan ere, Erraztik aditzera ematen duenez, abertzaletasunaren barruan baziren JEL doktrinari iskin egiten ari zitzaizkionak, EAJ Aranaren irakaspenen mendeko zela ahaztuta:

Y así mi tema de hoy se llama SUBORDINACIÓN, porque hay vascos a quienes asustan aquellas palabras [de Arana-Goiri], luminosas como todas las suyas, y que él declaró irrevocables en la DOCTRINA POLÍTICA infundida a SU PARTIDO: «Tales son la *independencia* entre la Iglesia y el Estado, la *harmonía* entre uno y otro y la

⁴⁴ Garai hartan, Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federalean (CFE) parte hartu zuen EAJk, nahiz eta alderdiaren sektore ortodoxoena —Jemein barne— ez zegoen batere ados EAJ kontseilu horretan egotearekin. 1950eko martxoko *Alderdin*, Kontseiluko bilera batera joan izanari buruz idatzi zuen José María Lasartek, eta, urte horretako maiatzeko editorialean, *Alderdik* ontzat eman zuen, nolabait, EAJk Europako federazioaren alde egindako lana; horrek erabat haserrearazi omen zuen Jemein (Barandiaran 2024).

subordinación de lo civil a lo religioso que se derivan del lema nacionalista vasco [...]. Esta doctrina [...] es la que hoy proclama el Partido Nacionalista Vasco, y todo[s] sus afiliados la mantienen e invocan, porque están contenidas en el lema JEL y para ser afiliado del Partido Nacionalista Vasco es necesario aceptar primero el lema.

Hay, sin embargo, algunos vascos a quienes se les hace duro aceptar esa doctrina, pero yo digo que esa es la de Arana-Goiri, más clara que la luz del día, que dentro del Partido Nacionalista Vasco no se puede discutir. Habría, en todo caso, que hacerlo fuera.

Aranaren doktrinaren harira, Espainian Eliza eta Estatuaren arteko banaketarik ez zegoela salatzen zuen Erraztik —«Si esta doctrina se practicase tal como queda descrita no [...] sucederían las que suceden en el Estado español, que se llama católico»—, baina, batez ere, jeltzaletasunak JEL doktrinaren inolako aldaketarik ezin zuela onartu aldarrikatzen zuen: «No caben modificaciones, supresiones ni aumentos, sin desvirtuar la doctrina en JEL contenida, porque en el lema JEL concretó Arana-Goiri todo lo que consideraba esencial al Nacionalismo Vasco».

1951ko maiatzean argitaratutako artikuluan, Bilbo eta euskara izan zituen idazgai Erraztik, bilbotarra izatearen nolabaiteko harrotasunaz: «Bilbao urija, Euzkadi'ko uririk erdelidunena zan gure aldijetan. Baña eun urte lenago Bilbao uri guztiz euzkelduna zan, eta azken-aldijetan, erdeliduna ixan-arren, uririk euzkeltzaliena». Artikuluan, Bilboko hainbat euskal toponimo aipatzen zituen (Ibeni, Larrinaga, Belostikale...), hiriaren jatorrizko euskalduntasunaren erakusgarri, eta, erdalidunen etorrerarekin Bilbo erdalidundu bazen ere, bertako erdarari «amaika euzkel-itx erbiltzen» zirela nabarmentzen zuen Erraztik.⁴⁵ Bestalde, hiri erdaliduna izanik, Bilbok euskararen alde egindako lana azpimarratzen zuen: «Egiz esateko, euzkeltzaletasuna Bilbao'n jayo zan. Bilbao ixan da euzkerearen alde ekin daben eguneroko, asteroko, izparringi, aldizkingi ta euzkel-ikastola geyen emon dauzana. Ta, azkenez, Bilbao'n bertan "Euzkeltzaindija" jayo zan».

1952ko urtarrilean, «emakume goralgarri» bat izan zuen hizpide: Florence Nightingale (1820-1910), «emakume gexozainen iraslia». Erraztiren esanetan, «gixonak egin daben au, ori ta bestia sarribai-sarri entzuten dozube, baña emakume goralgarri jak nekez ezautzen dozubez»; horrenbestez, Nightingalaren biografiaren daturik aipagarrien berri laburra ematen saiatu zen Errazti, eta Nightingalek Krimeako gudan erizain gisa egindako lana azpimarratu zuen. Artikuluaren amaieran, Nightingalaren nolabaiteko oinordeko gisa aurkezten zuen Gexozain-Emakume-Batza, eta euskal *gexozainek* gerran zehar egindako lana goraiatzen zuen.

Hurrengo hilabeteko alean, Frantzisko Xabierkoaz aritu zen, santuaren heriotzaren lauhengarren urteurrenaren harira. *Xavier* izenaren etimologia (*Etxeberri/Txaberri* > *Txaberr* > *Xavier*) azaldu ondoren, santuaren nafartasuna eta euskalduntasuna aldarrikatzen zuen Erraztik, «españarrak eta pantzetarrak Txaberr'tarr Pantzeska deunaren aintza» euren ganatzeko nahiaren gainetik:

Eta benetan naparrtarra ixan zan, ez pantzetarra ta ez españarra. Txaberr'tarr Pantzeska odolez eta elez euzkotarra ixan zan, eta lagiz nafarrtarra; aldi aretan, be, bera

⁴⁵ Bilboko gaztelaniaren zenbait berezitasun azaltzen zituen Erraztik, eta litekeena da Arriagaren (1896: 295) *Lexicón* delakotik atera izana Erraztik lanean aipatzen duen Bilboren etimologia (*amil-bao* 'amil-bean' > *Bilbao*).

jayo zanian, 1506'garren urtian, Nabarra Laterri azke bat zan. Orduban Nabarra eze-guan ondiño ez España'ren bian eta ez France'ren bian, bere egiazko Bakalduna'ren bian baño. Txaberr'tarr Pantzeska, ba, naparrtarra da, ta naparrtarra ixanik, euzkotarra, ta bere aintza geuria, euzkotarrena.

Espainiarrek Nafarroako Erresuma berenganatu nahi izan zutenean Frantzisko Xabierkoa atzerrira abiatu zela gogorarazten du Erraztik, eta, hala, «gaurrko euzkotarr atzerrikatubak Zaindari'tzat artu biarrko gendubala» defendatzen du.

Urte bereko martxoan argitaratutako artikuluan, Euskal Herriko «zugatz gomutagarri»ei buruz hitz egin zuen Erraztik. Gerediagako arbola, Uztaritzekoa eta Gernikakoa aipatu zituen bertan —«euzkotarrak, antzin antziñetik, zugatzen azpijan euren lagijak egiten ebezalako» ezagun direnak—, baita Bilboko beste bi zuhaitz enblematikoko ere —1953rako ez zeudenak—: Abandoko Arbieto zelakoa (el Árbol Gordo ere zeritzona) eta Areatzako astigarra (el Tilo del Arenal ere izenekoa); baina, batez ere, «Mallatu Zugatza» zelakoaz (el Árbol Malato ere zeritzonaz) jardun zen Errazti bere artikuluan. Elezaharren arabera, Bizkaiko muga markatzen zuen zuhaitz horrek; Bizkaiairen kontrako gudetan bizkaitarrek arerioak mendean hartzen zituztenean, bertaraino eramaten omen zituzten etsaiak, eta handik aurrera aske uzten: «Orrelakoxiak ziran gure asabeak [...]. Euren Aberrija zindo gordetzen eben, baña bestiena bakian laga». Erraztiren esanetan, atzerritarrek ez dute inoiz euskaldunek bezain zintzo jokatu, eta, hori dela eta, «ludija buruz-bera dabil. [...] Gure Errijan be barrdin jazoten da. Franco'tarrak gure Aberrija etorri ziran eta ezpataren bidez azpiratu ginduzan euzkotarrak». Nolanahi ere, euskaldunen aldeko aldarrikapen batekin ixten du bere testua Erraztik: «Baña eurek gura edo gura ez, Euzkadi ta España'ko mugea Mallatu aretza ixango da».

Azaroko alean, euskaldunen janzkeran erreparatutako aldaketei heldu zien Erraztik: «Benetan, aldi guztijetan billobak amamaen jantzikereatzaz barre-egin dabe. Eta urrengo billobeak be oingo amamaen jantzikereatzaz barre-egingo dabe. Olakoxia da ludi-aldakuntzia». Gizonen janzkeran eta orrazkeran, baita bizarra eta bibotea eramateko moduan ere, aldaketak egon ohi direla aipatzen zuen Erraztik, baina emakumeen modan ikusten zuen aldaketa gehien; hainbestearino, non ohitura garbiak erabat galduta zeudela uste zuen:

Orain jasoten dana [...] larregi geyegizkua da. Ondarrtza edo playetan ikusten dana oso lotsagarrija da. Emakumiak ija billoxik dabiltz eta gero era orretan ondarrtzatik kalera etorrtzen dira. Eta ondarrtzatik ez tala be, barruko urijetan, emakume batzuk lotsagabeko itxurian ibiltzen dira.

Erraztiren arabera, holakoak Frantzian bakarrik gertatzen omen ziren lehen, baina, *Eclesia* eta *La Vanguardia Española* egunkari katoliko eta falangistetan irakurritakoagatik,⁴⁶ Espainiara hedatua zegoen dagoeneko «ekandu zikin» hori. Ohitura gaitzesgarri hori ez ezik, mundu osora zabaltzen ari zen beste moda bat ere izan zuen Erraztik hizpide: emakumerik ederrena aukeratzeko sariketena. Erraztiren esanetan, «sariketa orretara neskatilla asko agertzen dira, lotsa galduta, sarija irabazi gura. Baña ekandu ori gaitzua, zirtzina, zikiña dalako, Doipuru Deunak neskatillai

⁴⁶ Bere lehen artikuluan ere (*Aberri* 1907-10-5), Espainiako prentsari erreferentzia egin zion Erraztik, *La Gaceta del Norte* aipatuta.

olako sariketara aurkeztutia gebendu dautse».⁴⁷ Artikulu horretan, emakumeen artean zabaldutako beste janzkera berri batzuk ere aipatzen zituen Erraztik —gizonezkoen moduko praka luzeak edo bizikletan ibiltzeko gona-prakak, esaterako—, eta horietako bati ere ez zion txarto irizten.⁴⁸ Artikuluaren amaieran, beldurrez azaltzen zen, Francoren agindupeko ustelkeriak ez ote zituen euskal emakumeak kutsatuko; Erraztiren arabera, baina, emakume abertzaleak beti izan dira begiragarriak janzkerari dagokionez, eta beren ohitura onei eutsiko zietelakoan zegoen.

Sabindiar-Batzaren eskariz idatzi zuen 1953ko apirilko artikulua, Aranaren heriotzaren 50. urteurrena bete baino hilabete gutxi batzuk lehenago: «Sabindiarr-Batza'ren gixonok dei bat egin dauste niri Baskun orren alde zeozer idazteko. Ni sabindiarra nazan ezkerro ta beti ixan nazan-ezkerro, deyari erantzun gura dautsot eta ona emen ni Sabindiarr-Batza'ren alde idazteko gertu». 1950eko irailaren 14an sortu zuten Sabindiar-Batza —Jemein izan zen haren bultzatzaileetako bat—, baina, Erraztik gogorazten zuen bezala, elkarte sortzerakoan «gixonai bakarrik dei-egin eutsien eta gixonak bakarrik batu ziran an. Etziran orduan emakumiakin gogoratu. Eta geruago be aitzuta itxi dabez euzko-emakumiak». Errazti bera elkarteko emakume bazkide bakanetakoa omen zen, eta, Sabindiar-Batzaren alde hitz egiteko baino areago, emakumearen parte-hartze politikoa aldarrikatze baliatu zuen bere artikulua: mende hasieratik emakumeek abertzaletasunaren alde egindako lana gogoratu zuen, eta Arana bera emakumeen parte-hartzearen aldekoa zela defendatu, 1950eko azaroan idatzitako artikuluan esandakoaren ildotik. Bere testuan, itzulitururik gabe zuzendu zitzairen Sabindiar-Batzakoei, elkartera emakume abertzaleak banan-banan gonbida zitzatela eskatuz:

Asikeratik ni bazkidetu nintzan, baña nik dakidala emakume gutxi dira bazkide. Ba'liteke iru edo lau geyenez ixatia. Eta au ezta emakumien erruz, gixonen erruz baño. Eurek uste-ixan dabe Sabindiarr-Batza gixonena bakarrik dala. Baña orretan oker dagoz gixonok.

Antziñan be, gixonak uste-eben politika ereisten eutzoena gixonena bakarrik zala, ta emakumiak [s]utondorako egiñak. Baña Sabin'ek berak ezeban olakorik uste-ixaten. Eta argi ta garbi esan eban beñola, emakume-barik ezebala abertzaletasunak garaituko.

Sabin'aren dei orreri erantzunik, euzko-emakumiak batu gintzazan eta «Euzko-Emakume Abertzale-Batza» sorrte genduban.

Oingo gixonak ¿aiztu ete dira abertzaletasunaren alde euzko-emakumiak egin dogun ekintzaz?

Alan dirudi beintzat, euren deyak beti gixonai bakarrik zuzendubak diralako. Baña euzko-emakumiak, benetako sabindiarrak, bai-dira ondiño be ludijan [...].

Orain Sabindiarr-Batza'ren gixonak Sabin'en idazkai gutzajak argitaldu-gura dabez eta zabalgundia egiteko dei batzuk egin dabez. Eta azken-deyan esaten dabe orretarako Sabin'en ikasle gutzijen laguntzasuna biarr-dabela. ¿Gixonena bakarrik ondiño be?

⁴⁷ Urte asko lehenago, lehiaketa horien gaineko testu bat idatzi zuen Lizardik (Andereño Izardi), eta haien zentzugabekeria salatu (Otaegi 2000: 300-301).

⁴⁸ 1933an idatzitako artikulua batean (Prakak... prakadunak... prakagabeak. *Euzkadi* 1933-09-30), berriz, gizonak gizartearen —eta politikan— zeukaten zeregina sinbolotzat jo zituen Tene Mujikak prakak, eta *emakumeek* jantzi hori erabiltzearen kontra azaldu zen (Ugalde 1993: 364).

Nik ba, asmo bat gogerozo gura-dautset Sabindiarr-Batza'ren gixonai. Begiratu dayela ia euren bazkide-ixengadetan zenbat emakume ete-diran. Gero ludijan sakabatatuta dagozan euzko-emakumien ixengada bat egitia, ta banan-banan, bakotxari bazkidetuteko eskatzia.

Orobat, Erraztik argi eta garbi salatu zuen gizon jeltzaleen jarrera baztertzaila, eta agerian jarri zuen gizon abertzaleek egoera jakin batzuetan eta zeregin jakin batzuetarako bakarrik jo izana emakumeengana:

Lenagoko urtietan, urte zorijontsubetan, zubek emakumiai sarri dei-egiten zeuskuben zuben lan-biarretan, naiz euzkel-ikastolak gertatzeko, naiz ume-batzak sortzeko, naiz txiruai laguntzeko, naiz gexotegijetan gexuak eta zauritubak osatzeko, naiz auteskundieetan laguntzeko, ta abarr eta abarr.

¿Eta orain? Orain Sabindiarr-Batza sortu dozube, benetan ondo sortuta, baña orain be zuben albuak euzko-emakumiai euki-biarr dozubez.

Egin, ba, urte onetan, Sabin'en eriotzaren berrogetamar urteurrenien zabalgunde sakona euzko-emakumien artian [...].

Eta Sabin onak guztijok onetsiko gauz Donoki'tik: gixonak eta emakumiai.

Artikulu horretan adierazi bezala, Aranaren lan guztiak argitaratzeko ahaleginean zebilen Sabindiarr-Batza —besteak beste, Arana abertzalea ez ezik euskaltzalea ere bazela erakusteko asmoz—. Ekaineko alean, bada, Aranak (1902) euskarazko hitz batzuen gainean egindako zenbait proposamen hartu zituen hizpide Erraztik: *euskal* vs *euzkelleuzko*, *Euskalerrria* vs *Euzko-ErrilEuzkadi* eta *izkeralitzkuntza* vs *mintzailmintzo* hitzen ingurukoak, hain zuzen.⁴⁹

Uztaileko alean ere, apirileko artikuluari eman zion jarraipena Erraztik. Hark zioenez, «antzinako aizkide gurrugarri batek zorijonak» bidali zizkion apirileko alean emakumeen alde idatzitakoagatik, eta, lagun horrek «atzerritik» igorritako gutunean oinarrituta idatzi zuen Erraztik uztaileko artikulua. Izenbururako, lagunak helarazitako lau hitz aukeratu zituen Erraztik —«Emakumege Ezta Gauz Onik»—, eta, artikularen hasieran, lagun horrek gogora ekarritako zenbait emakume eredugarri aipatu zituen: Eba, «bizi garanen ama [...] eta [...] gure gaizkatzalliaren ama»—; Santa Monika, San Agustinen ama; Jeronimoren ondoan egondako «Eustoki ama-alabeak» —Paula eta Eustokia—; Santa Teresa Avilakoa, Joan Gurutzekoaren laguna, eta Joana Chantalekoa, Frantzisko Saleskoaren laguna. Erraztiren adiskidearen arabera, gizonak ez ziren beti oroitzen emakumeez, eta harekin bat agertzen zen Errazti:

Eta zuzen dago. Gixonak eztira geyenetan emakumiakin gogoratzen eta eurek nagusi dirala uste-ixaten dabe. [...] Baña eztabe gomutetan Paul deunak berak bere idazkijan bertan gixonai esaten dautsena: «Emaztia damotzut eta ez jopuba: maite-egixu Josukristo'k bere Doibatza maite-ixan eban letxe» [Ef 5,25].

Aita Arriandiagak berak euskaratu omen zizkien Erraztiri eta senarrari ezkontza-ren liturgian esan ohi diren azken berba horiek, Erraztik esaten duenez. Hitz horien harira, Jaungoikoak emakumeentzat ere egin zuela mundua gogoratzen du Erraztik —ez gizonentzat bakarrik—, eta, aurreko hainbat artikulutan zabaldutako ideia bat

⁴⁹ Mitxelena (1984: 26) ere aipatzen du, esaterako, Aranak (1902) *La Patria* astekarian argitaratutako artikuluen edukia.

errepikatzen du: Aranek ere beharrezkotzat jotzen zuela emakumea aberriaren salbaziorako. Hala, aberriaren eta euskararen alde lan egiten jarraituko duela esanez amaitzen du artikulua Erraztik.

1953ko azaroko alean argitaratu zuten Emakume Batek sinatutako azken artikulua *Alderdin*, Erraztik aldizkariaren enkarguz idatzi omen zuena —«ALDERDI'kuak niri agindutako lana» dela aipatzen du bertan—. Artikulu horretan, Aranek gizonen ez ezik emakumeen ere dei egin ziela gogoratzen du Erraztik berriro, 1945etik aurrera argitaratutako zenbait lanetan errepikatu izan zuen bezala: «Orra orr, ba Sabiñen ustia: «Abertzaletasuna emakumiaren bijotzera elduko dan egunian bakarrik, garayaren ziur egongo gara»» (40. or.). Ondoren, EABren historiaren aurrekaririk eta gertakiririk azpimarragarrienak ekartzen ditu gogora: 1907an emakumeek idatzitako prentsa-artikuluak, «Ropero Vasco», «Asociación de Nuestra Señora de Begoña», 1922an Ambrosio Martín O'Dalyk Bilbon emandako hitzaldia, Bilboko Euzko-Gaztediko lehendakariak —Eli Gallastegik— emakumeen egindako deia, EABko lehen zuzendariak, Euskal Herri osotik zabaltzea, 1932ko Aberri Eguna, emakumeen hitzaldiak, 1935eko Gipuzkoako Bazpatza, Euzko-Gexozaña, gerra, erbestea, Donibane Garaziko ikastola, La Roseraie... Bukaeran, hiru ideia azpimarratzen ditu Erraztik: lehenik, Aranaren irakaspenetatik sortu zela EAB; bigarrenik, Bilboko Euzko-Gaztedian jaio zela, eta, hirugarrenik, EAB «Euzko-Alderdi Jeltzaliarena beti ixan dala, ta orreatatik jeltzalia dala ta ixango dala beti».

4.2.3. *Euzko-Gogoa (1950-1951)*

1950-1951. urteetan, hiru artikulua argitaratu zituen Erraztik *Euzko-Gogoa*: *Ettxakin* ezizenarekin sinatu zuen lehenengoa, eta *Emakume batek* gisa azken biak.⁵⁰

Lehenengo artikulua —«Emakume oleskarijak»— euskal emakume olerkarien berri ematea zuen helburu, Zaitegiren aldizkariako testuetan genero-desoreka nabarmena zegoela sumatzen baitzuen Erraztik; honela azaltzen du ideia hori artikulua hasieran: «Neurtitz zarrak eta neurtitz barriak dirala-ta, gixonak diñardube; baña, jakiña, gixonak egiñak beti. Emakume oleskarijak ixan dirala ta bai-dirala ondiño be, ¿gixonak ete-dakije?» (14. or.). Hala, Sorne Unzueta *Utarsusen* «Itxartu, euzko-alabea!» eta Pantzeske Astibia *Onintzeren* «Euzko-Gaztedija» olerkien berri eman ez ezik, Erdi Aroko euskal eresigileen testuez ere aritzen da, besteak beste, Errazti. Jakinaenez, EABko emakumeek ez zuten, oro har, genealogia femininorik eratu, «ez baitzituzten emakume idazleen ekarpenak kontuan hartu, baizik eta gizonen literatura tradizioaren jarraitzaile izan ziren» (Retolaza 2012: 114); nolana ere, 1950eko lehen artikulua horretan, euskal emakume olerkariak aldarrikatzeko eta horien genealogia moduko bat aurkezteko nahia erakutsi zuen Erraztik, Bordaren (1984) antologia baino aski lehenago.⁵¹

⁵⁰ Gandariasek (2021: 116) Erraztiren azken bi artikulua bakarrik aipatzen ditu bere lanean; Erraztiren bi testu horiek ez ezik, Sorne Unzueta eta Julene Azpeitiak *Euzko-Gogoa* idatzitakoak ere ditu aztergai.

⁵¹ Historiografia femininoan mugarritzat hartzen du Retolazak (2024: 300) Bordaren (1984) lan hori. Beste artikulua batean (San Juan Manso 2025b), zabalago aritzen naiz «Emakume oleskarijak» artikuluz.

Bigarren artikuluan, Errazti pozik agertzen zen Zaitegik *Euzko-Gogoan* neologismoak erabiltzearen aldeko apustua egin zuelako —*Olerrti, Elerrti, Ereserrti* edota *Antzerrti* ziren, besteak beste, aldizkariaren atalen izenak—, neologismo horien ordezko «mordollozko itz zantar orrek» (*poesia, literatura, musikia, teatrua...*) baztertuta. Hirugarren artikuluan, berriz, azken urtean hildako hainbat abertzale ekarri zituen gogora, bereziki «Ziaurritz'tar Dorota» —EBBko lehendakaria— eta «Arana-Goiri'tar Koldobika», eta ziurtzat jotzen zuen jeltzaleei «aldi zoruntsubagoak etorriko» zitzaizkiela.

5. Ondorioak

1. Erraztik idatzitako testuen corpus osatuak orain arte aztertu gabeko testu batzuk jarri ditu mahai gainean; hain zuzen, 1945-1953 bitartean argitaratutako hainbat artikulua eta erbestealdiaren hasiera- nahiz amaiera-aldean —zehazki, 1937an eta 1952an— idatzitako zenbait gutun pribatu. Testu horiek guztiak ezinbestekoak dira Erraztiren testugintza osotasunean aztertzeko eta balioesteko, bai eta Erraztiren biografia osatzeko ere, nahiz eta lan honetan ez dudan testu horien guztien azterketan sakondu.

2. Erraztik argitaratutako testuen azalpen laburrak nolabaiteko jarraitutasuna erakusten du hark landutako gaietako dagokienez. Aranaren irakaspenei jarraikiz, JEL leloaren inguruan ardaztutako gaiak —erlijioa, aberria eta euskara— izan zituen hizpide Erraztik, bai gerra aurrean bai ostean. Horrez gain, emakumea erdigunean jartzeko ahalegin berezia egin zuen bere idazki gehienetan: Euskal Herriaz kanpoko emakume eredugarriak —historikoak nahiz mitikoak— goraiatu ez ezik, emakume abertzale askoren lana ere —ezagunena eta anonimoena— aldarrikatu zuen, ahanzturan gera ez zedin; emakume abertzaleentzako espazio bat eta iruditeria bat sortzen eta zabaltzen saiatu zen, eta emakumeen arteko ahizpatasun-sareak bultzatu zituen. Orobat, Aranaren pentsamenduan eta hitzetan oinarritu zuen hala emakume abertzaleen parte-hartze politikoaren zilegitasuna nola EABren sorrera eta garapena.

3. Erraztiren testuetan plazaratutako ideiak —bai emakumearen inguruan, bai JEL leloari lotutako bestelako gaien gainean— bat datoz, neurri handi batean, beste emakume abertzale batzuen testuetan zabaldukoekin; nolahi ere, joera orokorren barruan, Erraztik berezko ideia- eta argudio-multzoa garatu zuen, orduko beste emakume batzuek egin zuten bezala (Goikoetxea 2022: 221). Erraztiren kasuan, nabarmentzekoa da, artikulugintzari dagokionez behintzat, emakume abertzaleen abangoardian egon zela, bai mendearen hasieran —*Euzko-Deyan* argitaratutako testu-sortarekin batez ere—, bai erdialdean —*Alderdin* edota *Euzko-Gogoan* argitaratutako artikuluekin—.

4. Urteetan zehar gai bertsuei helduta ere, nolabaiteko bilakaera antzematen da Erraztiren jarreraren. Hasierako artikuluetan, herabe samar azaltzen da, eta emakumeei zuzentzen zaie, batez ere; geroagoko testuetan, ordea, ahaldunduago agertzen da: itzulgingururik gabe zuzentzen zaie gizonei, abertzaletasunak emakumeen parte-hartze politikoa ezinbesteko duela esateko, eta argi eta garbi salatzen du urteetan zehar —bai gerra aurreko egituretan, bai Sabindiar-Batzan, esaterako— gizonek izandako jarrera baztertzaila.

5. Hala Erraztik landutako gaietako dagokienez nola haren jarreraren antzemandako bilakaerari dagokionez, Erraztiren ekarpena ulertzen eta balioesten lagundu dezake garaian garaiko testuingurua eta botere-harremanak aintzat hartzeak.

Bibliografia

- Agirreazkuenaga, Joseba (arg.). 2010. *Barne-muinetako Sabin Arana Goiri. Gutunak I (1876-1903)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Arana, Vicente de. 1880. Los hijos de Amáandarro. *Revista Euskara* 3. 87-92, 104-114, 138-144, 175-184, 204-211.
- Arana, Vicente de. 1882. *Los últimos iberos. Leyendas de Euskaria*. Madril: Librería de Fernando Fé.
- Arana-Goiri, Sabin. 1902. Euskal-zalekerija. *La Patria* 14. 1.
- Arriaga, Emiliano de. 1896. *Lexicón etimológico naturalista y popular del bilbaíno neto, compilado por un chimbo*. Bilbo: S. Amorrortu.
- Arrien, Gregorio & Iñaki Goiozana. 2002. *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939*. Bartzelona & Bilbo: Fundació Ramon Trias Fargas & Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Astigarraga, Andoni de. 1989. Evacuaciones y exilios vascos. *Muga* 71. 30-37.
- Barandiaran Contreras, Miren. 2024. *Publicaciones periódicas del Partido Nacionalista Vasco (1939-1975)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Belaustegi, Petra. [1909]. ¡Ametsa! In *Euskal-Esnalearen Esku-Egundiya 1910*, 20-22. Irun: Valverde'ren echea.
- Bilbao Bilbao, Begoña, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Perez Urraza & Josu Chueca Intxusta (arg.). 2012. *Emakumeak, hitza eta bizitza*. Bilbo: UPV/EHU.
- Borda, Itxaro. 1984. *Emakumeak idazle. Antologia eta ohar zenbait*. Donostia: Txertoa.
- Camino, Iñigo & Luis de Guezala. 1991. *Juventud y nacionalismo vasco. Bilbao (1901-1937)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Colombo. 1936. Breve historia de la villa vizcaína de Otxandiano. *Vida Vasca* 13. 203-205.
- Crespo, Cira. 2022. *Tene Mujika udazkeneko argitan*. Deba: Debako Udala.
- Delmas, Juan Eustaquio. 1904. Los hijos de Amandarro. *Euskal-erria. Revista bascongada* 51. 155-158.
- Etzaniz, Xabier & Karla Fernández de Gamboa Vázquez. 2020. Literatura infantil y juvenil vasca, elemento clave en la recuperación de la lengua. *Caderno de letras* 38. 353-371. <https://doi.org/10.15210/cdl.v0i38.19847>
- Extebarria Zamalloa, Igone. 2000. Escritoras vascas en el primer tercio del s. xx. In Iris M. Zavala (koord.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, 6. lib., 385-398. Bartzelona: Anthropos.
- Ezkurdia, Gurutze, Begoña Bilbao & Karmele Perez. 2017. Emakume Abertzale Batza Bilbon. *Euskalingua* 31. 14-27. <http://mendebalde.eus/euskalinguak/Euskalingua%2031/el31-02.pdf>
- Ezkurdia Arteaga, Gurutze, Karmele Perez Urraza & Begoña Bilbao Bilbao. 2024. Miren Josune Ibaseta Mendizabal maistrak, sendia oinarrian, emakumeen prestakuntza, euskara eta aberria ardatz. In Luis M. Naya Garmendia (koord.), *Pauli Dávila. Euskal Herriko bezkuntzaren historiaren bidezidorretan argi*, 79-117. Madril: Delta.
- Fernández Fernández, Idoia. 2012. Género, educación activa, lengua y nación en el País Vasco. Julene Azpeitia (1888-1980), exponente de una educación vasca en ciernes. *Historia de la educación* 31. 275-297.
- Gandarias Beldarrain, Ziortza. 2021. Basque women in exile: Remembering their voices and impact in literature through the cultural magazine *Euzko-Gogo*. In Larraitz Ariz-

- nabarreta & Nere Lete (arg.), *Memory and emotion. Basque women's stories. Constructing meaning from memory*, 107-128. Reno: University of Nevada, Center for Basque Studies.
- Gauzekitz, Jon. 1914. *Margarite'ren ames ixukorra*. Bilbo: Grijelmo'ren Alarrgun-Semien Irarrkolea.
- Goikoetxea Agirre, Nekane. 2022. *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik abantzurara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.
- Hégo, Jean-Baptiste. 1896. *Légendes de la vie réelle*. Paris & Lille: J. Lefort & A. Taffin.
- Jemein, Keperin. 1935. *Biografía de Arana-Goiri'ar Sabin e Historia gráfica del nacionalismo vasco*. Bilbo: Editorial Vasca.
- Jemein, Keperin. 1945. *La visión pensativa y atormentada de Arana-Goiri*. Baiona: Sud-Ouest.
- Jemein, Keperin. 1952. *Laburrkiro. Euzko-Gogoa* 3(3/4). 25.
- [Jemein, Keperin] Belandia. 1956. *Euzkeltzale-Bazkuna. Euzko-Gogoa* 7(9/10). 41-45.
- Jemein, Keperin. 1986. *El Nacionalismo vasco y la sublevación militar en Euzkadi. 18 de julio de 1936*. Bilbo: Alderdi.
- Jemein, Keperin. 1987. *El primer Gobierno Vasco*. Bilbo: Alderdi.
- Jemein, Keperin. 1988. *Euzkadi en guerra (1936-1937)*. Bilbo: Alderdi.
- Jiménez de Aberásturi, Juan Carlos. 1999. *De la derrota a la esperanza. Políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*. Oñati: Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea.
- Larrañaga, Policarpo de. 1978. *Emakume Abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco*, 1.-3. lib. Donostia: Auñamendi.
- López Antón, José J. 1998. El imaginario pesimista de Vasconia en Arturo Campión. *Vasconia* 27. 177-194.
- Lorenzo Espinosa, José María. 1992. *Gudari. Una pasión útil. Vida y obra de Eli Gallastegui (1892-1974)*. Tafalla: Txalaparta.
- Mitxelena, Koldo. 1984. Los vascos y su nombre. *RIEV* 29(1). 9-30. (Berrargit. *OC* 8, 285-309).
- [Mujika, Robustiana] Tene. 1923. *Miren Itziarr'i idazkiak eta olerkiak*. Zornotza: Jaungoiko-Zale'ren irarkola.
- Otaegi Imaz, Lourdes. 2000. Lizardi y las mujeres. Desde la conjura femenina a la gran guerra pacífica. In Iris M. Zavala (koord.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, 6. lib., 284-311. Bartzelona: Anthropos.
- Perez Urraza, Karmele, Begoña Bilbao Bilbao & Gurutze Ezkurdia Arteaga. 2022. *Emakumeak aberria eginez*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Rekalde, Itziar. 2012. Emakume Abertzale Batza. Bere ibilbidea aztergai. In Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Perez Urraza & Josu Chueca Intxusta (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza*, 21-42. Bilbo: UPV/EHU.
- Retolaza, Iratxe. 2012. Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak. In Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Perez Urraza & Josu Chueca Intxusta (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza*, 102-119. Bilbo: UPV/EHU.
- Retolaza, Iratxe. 2024. Hitzostea. Katebegi literario klasikoen arrasto feministen peskizan. In Amaia Alvarez Uria, *Zuzi iraxegia. Euskal emakume idazleak eta literatura klasikoa*, 297-305. Bilbo: Testu Zaharrak.

- San Juan Manso, Enara. 2025a. Karmele Erraztiren bost gutun argitaragabe (1937ko abuztua-iraila). *ASJU* 59(2). 195-222. <https://doi.org/10.1387/asju.27564>
- San Juan Manso, Enara. 2025b. Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko. *FLV* 140. 479-504. <https://doi.org/10.35462/flv140.9>
- Sánchez-Pinilla, Francisca. 2012. Análisis de la narrativa infantil escrita por mujeres (1920-1939). *Ocnos* 8. 57-66. https://doi.org/10.18239/ocnos_2012.08.05
- Sarriugarte, Iñaki (arg.). 2023. *Jule Gabilondo. Jel-azia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Serrano-Mariezkuena, Amaia. 2024. *Begirada literarioak iraganari. 36ko Gerraren irudikapenak euskal eleberrigintzan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Ugalde Solano, Mercedes. 1991. Emakume Abertzale Batza. *Emakunde* 6. 58-63.
- Ugalde Solano, Mercedes. 1993. *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Uruburu Torotikaguena, Laura. 1997. *Emakume Abertzale Batza (1922-1936)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Zuberogoitia, Aitor & Pedro Zuberogoitia. 2008. *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*. Bilbo: Bilboko Udala.
- Zubikarai, Augustin. 1991. *Euskal antzerkia Bizkaian*. Donostia: Antzerti.

Karmele Erraztiren bost gutun argitaragabe (1937ko abuztua-iraila)¹

Karmele Errazti's five unpublished letters (August-September 1937)

Enara San Juan Manso*

Ikertzaile independentea

ABSTRACT: Karmele Errazti was, among other things, the first president of Emakume Abertzale-Batza, as well as one of the women who wrote in the nationalist press during the first half of the 20th century. In this work I publish five letters that Errazti wrote to her husband between August and September 1937. These letters provide us with information about the private life of a woman who significantly participated in the public life of the first half of the twentieth century; moreover, Errazti's letters give us, from the perspective of a woman, some details of a particular moment in the history of the Basque Country.

KEYWORDS: Karmele Errazti; Keperin Jemein; Emakume Abertzale Batza; Spanish Civil War; Basque refugee network.

LABURPENA: *XX. mendearen lehen erdiko prentsa abertzalean hitza hartu zuten emakumeetako bat eta Emakume Abertzale-Batzako lehen lehendakaria izan zen, besteak beste, Karmele Errazti. Lan honetan, Erraztik 1937ko abuztua eta iraila bitartean Keperin Jemein senarrari idatzitako bost gutun ematen ditut argitarara. XX. mendearen lehen erdiko bizitza publikoan parte-hartze garrantzitsua izan zuen emakume baten bizitza pribatuari buruzko informazioa ez ezik, Euskal Herriaren historiaren une jakin bati buruzko zenbait xehetasun ere ematen dizkigute Erraztiren gutunek, emakume baten begiradatik.*

HITZ GAKOAK: *Karmele Errazti; Keperin Jemein; gutunak; Emakume Abertzale Batza; Gerra Zibila; euskal errefuxiatuen sarea.*

¹ Nire esker ona agertu nahi diot Sabino Arana Fundazioko (SAF) Iñaki Goioanari, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian emandako arretagatik. Eskerrak eman nahi dizkiet, orobat, Amaia Alvarez Uriari eta Iñigo Ruiz Arzalluzi, lan honen hasierako bertsioa irakurtzeagatik, bai eta kanpoko ebaluatzaile anonimoei ere, artikulua onartu egindako oharregatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Enara San Juan Manso. Ikertzaile independentea (Bilbo). – enarasajuan@gmail.com – <https://orcid.org/0000-0003-3936-9369>

Nola aipatu / How to cite: San Juan Manso, Enara (2025). «Karmele Erraztiren bost gutun argitaragabe (1937ko abuztua-iraila)», ASJU, 59 (2), 195-222. (<https://doi.org/10.1387/asju.27564>).

Jasoa/Received: 2025-05-22; Onartua/Accepted: 2025-09-28. Online argitaratua / Published online: 2025-10-27.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

1.1. Lan honen nondik norakoak

Zuzi iraxegia. Euskal emakume idazleak eta literatura klasikoa lanean, zera baieztatzen du Alvarez Uriak (2024: 143):

Literatura begirada feministarekin aztertzen denean, emakume idazleak eta pertsonaia femeninoak arretagune izateaz gain, literatura genero nagusietatik landa ere bilatzen dira adierazpideak. Hori dela eta, poesia, narratiba eta teatrotik aparte genero diskurtsibo-literarioak ere aintzat hartu ohi dira emakumeen sorkuntzari begiratzen zaionean.

Poesia, narratiba eta teatrotik aparte generoetako bat da gutunena. Euskal emakumeek idatzitako gero eta eskutitz gehiago ezagutzen ditugu —Alvarez Uriak berak (2024: 145) aipaturakoez gain, Padilla-Moyanok (2022) argitaratutakoak, adibidez—,² eta, corpus hori handitu guran, Karmele Erraztiren bost gutun eman nahi ditut ezagutzera lan honetan, interesgarri izan daitezkeelakoan. Keperin Jemein senarrari³ idatzi zizkion Erraztik —gatzelaniaz— bost eskutitz horiek, 1937ko abuztua eta iraila bitartean, eta, Erraztiren —eta haren inguruko— biografia osatzen lagundu ez ezik, Euskal Herriaren historiako une erabakigarri baten lekukotasuna ematen digute, emakume erbesterratu baten begiradatik.⁴ Ikusiko dugunez, zeharka bada ere, EAJk euskal errefuxiatuei laguntzeko sortutako sarearen gaineko informazioa ere badago Erraztiren gutunetan, bai eta 1937ko ziurgabetasun-egoeran senarrari idazteak Erraztirentzat zeukan balioari buruzko adierazpena ere, besteak beste.

Lan honen bigarren atalean, Erraztiren bost gutunen testua emango dut; aurretik, baina, eskutitzen egilearen, hartzailearen eta edukiaren gaineko hainbat jakingarri eskainiko ditut, Sarrerako hurrengo azpiataletan.

1.2. Errazti'tar Karmele eta Jemein'dar Keperin: kokapen biografiko-historiko laburra

Karmele Errazti Perez de Saratxok (Bilbo, 1885-Paue, 1954) parte-hartze handia izan zuen xx. mendearen hasierako emakume abertzaleen mugimenduan: 1907an, Roper Vascon eman zuen izena; 1910ean, Bilboko Euzko-Gaztedian; 1921ean, Junta Nacionalista de Socorros de Nuestra Señora de Begoña zeritzonean, eta, 1922an, Emakume Abertzale-Batzako (EAB) lehen lehendakari izendatu zuten. 1931. urtea amaitu arte izan zuen Bilboko EABko lehendakari-kargua, Primo de Riveraren diktadurak (1923-1930) eragindako etena kontuan hartuta (Larrañaga 1978; Ugalde 1993; Perez *et al.* 2022).

² Alvarez Uriak (2024: 143-150), orobat, jakingarri ugari ematen ditu, bai gutunen alderdi pertsonalari eta sozialari buruz, bai euskaraz nahiz erdaraz emakumeek idatzitako hainbat eskutitzi buruz.

³ Erraztiren senarrak ez zuen bere abizena ixarekin idaztea atsegin, eta, hori dela eta —baina zalan-tza askorekin—, *Jemein* aldaera erabiltzea erabaki dut, EODAn proposatutako *Xemein* formaren orde.

⁴ Erbesterratutako beste euskal emakume batzuen gaineko testuak biltzen ditu, kasurako, Zabalak (2007).

Bilboko EABko zuzendaritzako beste zenbait kide bezala, bertako giro burgesean mugitu zen, nolabait, Errazti; Hilario Errazti negozio-gizonaren alaba zen, eta, 1914an, Keperin Jemein Lanbarriekin (Abando, 1887-Laudio, 1965) ezkondu zen, JEZ (Jemein, Errazti y Zenitagoya) enpresa siderometalurgikoaren bazkide eta kudeatzaileetako bat izango zenarekin. Erraztik eta Jemeinek etxeko lanez arduratzen zen soldatapeko emakume bat zeukaten etxean —senarrari bidalitako lehen gutunean Erraztik aipatzen duen *domestique* delakoa (1.2a)—, eta, horri esker, EABko zuzendaritzan aritzeko denbora izan zuen Erraztik (Ugalde 1993: 136).

Erraztitarren aitak jarri omen zuen JEZ enpresa sortzeko dirua, 1924-1926 bitartean: Jemeinekin batera, Joseba eta Endika Errazti —Karmeleren bi nebak—, eta Zi-priano Zenitagoia Lanbarri —Jemeinen anaiordea— ziren enpresako bazkide nagusiak, % 18ko parte-hartzearekin; haien arrebek —alegia, Eskarne, Berane eta Elixer Erraztik, eta Eskarne Zenitagoiak—, berriz, parte-hartze txikiagoa zeukaten enpresan (Ezkurdia *et al.* 2024: 97-98).⁵ Gerra-garaian, Eusko Jaurlaritzaren esku jarri zuten lantegia, eta, Bizkaia frankisten esku geratutakoan, isunak jarri zizkieten, bai Jemeini, bai Joseba eta Endika Erraztiri. Halaber, senide gehienek egin behar izan zuten ihes erbestera, norik bere bidea eginda: erraztitar asko Graçay herrira joan ziren —Karmele Erraztik bere lehen gutunean partzialki aipatzen duen bezala (1.4c)—, eta, zenbait joan-etorriren ostean, Bilbora bueltatu ziren, 1940-1941 bitartean; Jemein-Errazti senar-emazteek, ordea, ez zuten itzultzeko aukerarik izan, Jemeini hamabost urteko deserriaritze-zigorra ere ezarri baitzioten (Perez *et al.* 2022: 34-37; Ezkurdia *et al.* 2024: 99-100).

Aranaren jarraitzailea zen Karmele Errazti, bai ideologiari bai euskarari dagokionez —hogeita hiru urterekin hasi zen euskara ikasten, Kirikiñoren eskoletan—, eta JEL doktrina zabaldu zuen 1907-1953 bitartean idatzitako berrogeita hamarretik gora testutan (Ugalde 1993; San Juan Manso 2025). Aranarenganako jaieran, bere senarrarekin bat egiten zuen Erraztik: Aranaren biografoa (Jemein 1935) eta Sabin-diar-Batzaren sustatzaileetako bat izan zen Jemein, eta aranazalea euskarari dagokionez.⁶ Jemeinek ere parte-hartze handia izan zuen Bilboko mugimendu abertzalean; Bilboko Euzko-Gaztediko buruetako bat izan zen, Euzkeltzale-Bazkunako sortzaileetako bat edota EBBko lehendakaria (Camino & Guezala 1991), besteak beste. Gerra-garaian, Euzkadiko Guda Osasuneko idazkaria izan zen, eta, 1938-1940 bitartean, EAJrentzat lan egiten jarraitu zuen, batez ere errefuxiatuentzako laguntza-sarean (Jiménez de Aberásturi 1999: 40-46). Erbestealdiko lehen urteetan, Baionatik hurbil bizi izan ziren Jemein-Errazti senar-emazteak: tarte batez Ainhoan, eta gero Biarritzen, haien gutunek erakusten dutenez.⁷

1939ko udaberrian, areagotu egin zen euskal ogasunaren krisialdia, eta, diru-sarrerak ia agortuta, EAJk sorterrira bueltatzera, Ameriketara joatera edo lana bi-

⁵ Karmele Errazti ez zen enpresako bazkide, hura sortu orduko Jemeinekin ezkondata zegoen eta.

⁶ Aranazaleen taldean sartu zuen Zaitegik, Elizalde, Kirikiño, Arriandiaga, Zabala-Arana, Urrutia, Altuna eta Aizkibel' dar Bingenekin batera (Askoren artean 1988: 68, *apud* Goikoetxea 2022: 129).

⁷ Ikus behegero, § 1.4.1. Horrez gain, gerora, zera idatzi zuen Erraztik (1950: 13) erbestealdiaren hasierari buruz: «Gu erbestera etorri giñianian, euzkel-baserri batera eldu nintzan ni bixi-ixaten. Asikeratik ondo abetaldubak ixan giñian». Perez *et al.*-en (2022: 35) esanetan, Jemein «1937an, atzerriratu zenean, Donibane Lohitzunera joan zen Eli Gallastegirekin batera».

latzera bultzatu zituen euskal errefuxiatuak, abuztuaren 15ean zabalduetako jakinarazpen baten bidez (Jiménez de Aberásturi 1999: 46). Ordurako, Jemeinek ez zuen kargurik EBBn, baina nola edo hala alderdiarentzako lanean jarraitu zuen, harik eta 1945eko urte-bukaera aldera, Erraztiren osasun-arazoengatik, emaztea eta bera Pauera lekualdatu ziren arte.⁸ Pauen, Hôtel de l'Europe bizi izan ziren —Seber Altube eta haren emaztea bizi ziren hotel berean (Astigarraga 1989: 36)—, eta bertan ezarri zuen Jemeinek Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Paueko delegazioa:⁹ hasierako urteetan, Jemeinek musu-truk egin zuen delegatu-lana,¹⁰ baina ematen du 1951tik aurrera alderdia 10.000 liberako hileroko lansaria ordaintzen hasi zitzaiola —askotan dirua atzerapenarekin helarazi zion arren— (San Juan Manso 2025).

Erbestealdian, egoera ekonomiko larri samarrean bizi izan ziren Jemein-Errazti senar-emazteak, beren ondasun guztiak galduak baitzizuten gerraren ondorioz; hori dela eta, 1950-1954 bitartean, birritan egin zuten Espainiara bueltatzeko eskaera, baina Espainiako Atzerriko ministroak birritan ukatu zien Hego Euskal Herrira itzultzeko aukera (San Juan Manso 2025). Errazti hil eta gutxira, Baiona ingurura bueltatu zen Jemein, eta, aldi batez, Larresoron bizi izan zen, Xabier Ernardorenaren etxean.¹¹ Ipar Euskal Herrian egon zen artean, EAJren *Alderdi* aldizkarirako artikulu ugari idazten jarraitu zuen Jemeinek, harik eta gaixotu zen arte eta, Espainiara bueltatzeko baimena lortuta, Laudiora —Errazti-Ibaseta sendiaren etxera— bizitzera joan zen arte (Perez *et al.* 2022: 37; Barandiaran 2024).

Karmele Erraztik oso frantses-maila ona zuen —senarrari bidalitako hirugarren gutunak ematen du, besteak beste, horren lekukotasuna (3.1c)—, eta hark idatzitako testuek argi uzten dute batezbestekotik gorako kultura-maila ere bazuela. Ezkondu zirenetik, Erraztik eta Jemeinek elkarrekin egin izan zuten lan: 1915ean, *Oleskari bijak* (*Bertsolari bijak*) antzezlan (Bilbo, Ausin'darr Josebaren irarrkolea) idatzi zuten, eta, erbestealdian, idazmakina ere partekatu zuten (Jemein 1952: 25). 1954ko uztailan, zera idatzi zion Jemeinek Manu Iruxori: «Karmele fue el mejor compañero de mi vida, mi colaborador, y más todavía, mi secretario» (SAF-IRUJO-93-02). Bada,

⁸ Hauxe esaten dio Jemeinek Agirre lehendakariari, 1946ko otsailaren 11n Parisera bidalitako gutun batean: «Gaur dira ilabete bi emen gagozala, osagiliak aginduta, Karmele'ren osasunagatik» (EAH [= Euskadiko Artxibo Historikoa]. Funtsa: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritzza Saila. Erregistro informatikoa: 3436267). Horren aurretik, Biarritz inguruan bizitzen jarraitzen zuten senar-emazteek; Leizaolak behintzat Biarritzera (76 rue Gambetta) igorri zizkion 1945eko otsailan eta azaroan Jemeini idatzitako bi gutun (EAH. Funtsa: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritzza Saila. Erreg. inf.: 3436267).

⁹ «Ceferino de Jemein. Delegué de Gouvernement d'Euzkadi. Hôtel de l'Europe. PAU (Basses-Pyrénées)» ageri da idatzita haren bisita-txartel batean (EAH. Funtsa: Manuel de Ynchausti Romero artxiboa. Erreg. inf.: 3363655).

¹⁰ Hala esaten dio Patxo Arregiri —Argentinako Acción Vascako lehendakariari eta EAJko Hegoamerikako delegatuari—, 1950eko abenduaren 16an bidalitako gutun batean (EAH. Funtsa: Ekin argitaletxearen eta Iruxo familiaren artxiboa. Erreg. inf.: 3328691): «Soy delegado sin sueldo en Pau del Gobierno de Euzkadi [...]. Y ello con Karmele enferma, pues por su enfermedad y por prescripción tuvimos que venir aquí a vivir en Pau en un hotel, a fuerza de grandes sacrificios y dispendios».

¹¹ Hala adierazi zion Jemeinek Manu Iruxori, 1954ko uztailaren 16an bidalitako gutun batean (SAF-IRUJO-93-2): «Después de 10 años que fueron en Pau, [...] Pau, que había sido tan grato para mí, me pesaba como una losa y en cuanto preparé las maletas me fui cerca de los amigos de la Delegación de Bayona y de Beyris, buscando el cariño de una familia que la he encontrado en la acogedora casa de los Ernardorena de Larressore».

1937an Erraztik senarrari idatzitako bost gutunek berretsi egiten dute Jemeinen idazkaria eta kolaboratzaile estua izan zela Errazti.

1.3. 1937ko abuztuan eta irailean Erraztik eta Jemeinek trukaturako mezuaren corpusa

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko «PNV-227-01» karpeta gorde dira Karnele Erraztik 1937ko abuztuan eta irailean senarrari idatzitako gutunak. Taula honetan, gutun horien gaineko xehetasun gehiago jaso ditut:

1. taula

1937ko abuztuan eta irailean Erraztik Jemeini bidalitako gutunak

	Data	Lekua	Euskarria
1	1937-08-22 (abuztuaren 22-25a bitartean idatzia)	Ainhoa	Lau orrialdeko ¹² lau plegu (azken pleguko azken orrialdea zuri dago)
2	1937-08-26	[Ainhoa]	Lau orrialdeko plegu bat
3	1937-08-29 (abuztuaren 29-30a bitartean idatzia)	Ainhoa	Lau orrialdeko bi plegu
4	1937-09-02	[Ainhoa]	Lau orrialdeko bi plegu (azken pleguan, lehen orrialdea bakarrik dago idatzita)
5	1937-09-03	[Ainhoa]	Lau orrialdeko plegu bat

Erraztik Jemeini bidalitako bost gutun horiek ez ezik, senar-emazteek bidalitako eta jasotako dokumentu gehiago gorde dira SAFeko «PNV-227-01» karpeta; besteak beste, 1937ko irailaren 17an Erraztik senarrari Bordelera bidalitako telegrama bat edota Jemeinek emazteari 1937ko abuztua eta iraila bitartean bidalitako beste hamasei mezu —gutun nahiz posta-txartel—. Dokumentu horiei esker, badakigu Erraztik gutun gehiago idatzi zizkiola senarrari 1937ko bi hilabete horietan, aipaturako bost gutunak bakarrik gorde diren arren.¹³

Jemein Frantziako errefuxiatu-aterpeetan zehar bidaia bat egiten egon zen bitartean trukatu zituzten Jemein-Errazti senar-emazteek mezu horiek guztiak. Alderdia- ren misio bat betetzeko egin zuen Jemeinek bidaia hori, eta, emazteari bidalitako me-

¹² Erraztiren bost gutunak kolore urdineko paper-mota berean idatzita daude. Pleguen orrialde baikoitzak 184 mm × 138 mm neurtzen ditu.

¹³ 1937ko irailaren 17an bidalitako telegraman, esaterako, zera esaten dio Erraztik senarrari: «Carta Poitiers. Cartas y paquete ropa La Rochelle. Compra. Todos bien. Karnele»; alegia, Poitiersera eta Arroxelara bidaliak zizkiola gutun bana —gorde ez direnak—. Bestalde, 1937ko urriaren 29a eta azaroaren 6a bitartean, beste zazpi mezu —postal, gutun nahiz telegrama— bidali zizkion Jemeinek emazteari; azaroaren 6an Toursetik bidalitako gutunean, Jemeinek Erraztiri esaten dio bezperan jaso duela beraren gutun bat —aipaturako beste biak bezala, gorde ez dena—.

zuetan, bidaiaren nondik norakoei eta gorabeherai buruzko jakingarri ugari helarazi zizkion. Zenbaitetan, bidaiaren zehar idatzitako txostenen kopiak eta errefuxiatuentzako aterpeetan eskuratutako egunkari-zatiak ere bidali zizkion emazteari,¹⁴ eta horiek adi irakurri zituen Erraztik: «He empezado a leer el informe; me he parado en Tours, para continuar viaje cuando mande todo al correo» (4.1d). Horrez gain, bidaiaren aurrera egiteko beharrezko zituen jantziak edo objektuak ere eskatu zizkion tarteka Jemeinek. Erraztiri bidalitako mezu-zerrenda osoari erreparatuta, Jemeinen bidaiaren gutxi gorabeherako ibilbidea irudika dezakegu.¹⁵

2. taula

1937ko abuztuan eta irailean Jemeinek Erraztiri bidalitako mezuak

	Data	Lekua	Euskarria
1	1937-08-18	Tours	Postala (EU)
2	1937-08-22	Solesmes	Postala (ES)
3	1937-08-24	Rennes	Gutuna (ES)
4	1937-08-28	Saint-Lô	Postala (ES)
5	1937-08-29	Saint-Lô	Gutuna (ES)
6	1937-08-30	Cherbourg	Gutuna (ES)
7	[1937-08-31]	[Lisieux]	Postala (ES)
8	1937-09-02	Yvetot	Gutuna (ES)
9	1937-09-02	[Amiens]	Postala (ES)
10	1937-09-03 ¹⁶	[Amiens]	Postala (ES)
11	[1937-09-06]	[Paris]	Postala (ES)
12	1937-09-08	[Évreux]	Postala (ES)
13	1937-09-10	Solesmes	Postala (ES)
14	1937-09-11	Solesmes	Gutuna (ES)
15	1937-09-14	Bressuire	Gutuna (ES)
16	1937-09-16	Arroxela	Postala (ES)

1.4. Erraztiren gutunen edukia eta nolakotasun batzuk

1.4.1. Gutunen egitura eta gaiak

Gutungintzan ohikoa den hiruko eskemari —alegia, hastapenez, erdiko atalaz eta bukaeraz osatutakoari (Padilla-Moyano 2015: 63-64)— jarraitzen diote Erraztiren gutunek, eta, desberdintasunak desberdintasun, XVIII. mendean —Zazpi Urteko

¹⁴ Horren erakusgarri, hauxe idatzi zion Jemeinek Erraztiri irailaren 2an Yvetotetik bidalitako gutunean: «Ayer fue un buen día, pues tropezamos con buenos refugios y gente patriota conocida. Ya te irás enterando por los informes, que te seguiré mandando. Hay buenos, medianos y muy malos. En algunos, reciben *La Gaceta del Norte* de Bilbao. Me han dejado algunos números y he guardado unos recortes que te incluyo».

¹⁵ Euskarriari dagokion informazioaren ondoan, mezu bakoitza zer hizkuntzan idatzita dagoen zehaztu dut (EU = euskara; ES = espainiera). «[]» artean sartu ditut Jemeinek ematen ez dituen baina zeharka ondoriozta daitezkeen datuak.

¹⁶ Postalean, «3-8-37» jartzen du, baina, edukiarri erreparatuz gero, ezinezkoa da abuztukoa izatea.

Gerra betean— *Le Dauphin* itsasontzian zihoazen euskal eskutitzekin bat egiten dute zenbait ezaugarritan: presaka idatzita daude, hartzailari igorritako gauzak aipatzen dituzte (arropak, etab.), orduko gorabeherak eta gerrak —Erraztiren kasuan, Gerra Zibilak— ekarritako kalteak dituzte hizpide, eta senidea —Erraztiri dagokionez, senarra— ahal bezain laster etxera itzultzeko irrika erakusten dute, nolabait (Lamikiz *et al.* 2015: 11; Padilla-Moyano 2015: 61-62).

Bilbo erori osteko hilabeteak oso nahasiak izan ziren abertzaleentzat: Hego Euskal Herritik, euskaldun asko Ipar Euskal Herrira ihes egiten saiatzen ari ziren, eta, erbesteetan zeudenak, berriz, Hego Euskal Herrira eta Espainiara begira zeuden, handik zer berri helduko (Alonso 2007: 692-693). 1937ko abuztuan eta irailean, jemein-erraztitarrak Ainhoako Maison Gimberan bizi ziren, Julián Estévezekin eta haren emazte Miren Aretxabaletarekin, besteak beste;¹⁷ EAJko aspaldiko kidea zen Estévez, eta behin baino gehiagotan Jemeinekin batera alderdiarentzat lanean aritua.¹⁸

Ainhoatik bidalitako eskutitzetan, Baiona ingurura ailegatzen ari ziren pertsonen eta albisteen berri ematen dio Erraztik senarrari; hori dela eta, sarritan aipatzen ditu bai senitartekoak eta hurbileko lagunak bai jeltzaletasunari eta EAJri lotutako bestelako izenak. Ahaideen artetik, bere neba-ahizpak edo ezkon-neba-ahizpak aipatzen ditu Karmele Erraztik sarrien: José Mari edo José María (Joseba edo Joseba Mirena) Errazti, Enrique (Endika) Errazti eta haren emazte Felisa (Pele) Alonso, Elisa (Elix) Errazti, Mercedes edo Merceditas (Eskarne) Zenitagoia eta haren senar Joaquín (Jokin) Isusi, edota Cipriano (Cipri) Zenitagoia eta haren emazte Mercedes (Eskarne) Urkitza.¹⁹ Gertuko lagunak artetik, Julián Estévez, haren emazte Miren Aretxabaleta edo haien senitartekoak —Julen eta Begoñita Estévez Aretxabaleta²⁰ seme-alabak, esaterako— aipatzen ditu, besteak beste, eta, EAJkoen artetik, Eliodoro de la Torre —Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko eta Osasuneko kontseilaria—, Manuel Sainz de Taramona —Jaurlaritzako epaitegi-ikuskaria eta, 1937an, EBBren ordezkaria Bartzelonan—, Alfredo Ruiz del Castaño —Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko idazkari

¹⁷ Miren Aretxabaleta abuztuaren amaieran heldu zen Ainhoara, Erraztik bere bigarren gutunean esaten duenez. Urriaren amaierarako, Biarritzeko Villa Quo Vadisera (11 rue de la Frégate) lekualdatuak ziren Jemein-Errazti eta Estévez-Aretxabaleta sendiak: bertara bidali zizkion Jemeinek Erraztiri 1937ko urriaren 29a eta azaroaren 2a bitartean idatzitako lau postal, eta, azaroaren 28an Jemeinek eta Estévezek emazteei bidalitako gutun batek erakusten duen bezala, azaroaren amaieran bi familiak bertan bizi ziren oraindik. 1938ko martxoan ere, bertara bidali zion telegrama bat Jemeinek Erraztiri, Parisera egindako beste bidaia batetik bueltan (SAF-PNV-227-01).

¹⁸ Julián Estévez Gomendiourrutia gerra aurretik jardun zen Jemeinekin batera alderdiarentzako lanean; 1932an, esaterako, EAJren Comisión Pro-Nabarra y Araba zelakoaren Jaen azpibatzerdeko kide izan zen, Jemein, Arbeloa eta Garteizekin (Tápiz 2002: 96), eta, garai bertsuan, EAJren Bizkaiko idazkaritza sortzeko batzorde batean ere egon zen, Jemein eta Bikuñarekin (Tápiz 2002: 156). 1938ko apirilean, EBBrentzako txosten bat idatzi zuten Jemeinek eta Estévezek, Frantziako euskal errefuxiatuen lanjardueri buruz (Arrien & Goigoga 2002: 532). Jemeinen *Recuerdos del destierro 1937-1938* izeneko dokumentuan (SAF-PNV-388-04), 1937ko azaroan Estévez Baionako Sabin-Etxiako lehendakari zela azaltzen da. Miren Aretxabaleta, berriz, Luzio Aretxabaletaren —Euskal Ogasuneko idazkari nagusia—ren— senide zen (Gorriti 2002).

¹⁹ Izen horiek guztiak ageri dira —euskaraz— Karmele Erraztiren heriotza-oroigarrian (SAF-IRUJO-93-02), Cipriano Zenitagoiarena izan ezik, Karmele Errazti baino lehenago zendu baitzen.

²⁰ Anton Iralaren emaztea izan zen Begoña Estévez Aretxabaleta (Gorriti 2002). Senar-emazteen argazki bat dago Anasagasti *et al.*-en (2019: 489) lanean.

nagusia eta, 1937an, EBBko kidea²¹—, Javier Gortazar —Jaurlearitzako delegatua Baionan— edota José Amuriza —Ogasuneko idazkari nagusia—, kasurako. Jeltzale-tasunari lotuta, D. Manuel (Ortuzar) ere aipatzen du, adibidez, Erraztik, senarrak bidalitako berri labur bat dela eta.

1937ko azaroaren 15ean, urria eta azaroa bitartean egindako beste bidaia batetik bueltatu berritan, Jemeinek gutun bat bidali zion Jose Antonio Agirreri, bere orduko egoera azaltzeko eta laguntza eskatzeko. Erraztiren bost gutunen edukia —batik bat senitartekoei buruz egindako hainbat aipamen— hobeto ulertzen laguntzen du Jemeinek Agirre lehendakariari bidalitako gutunaren pasarte honek (EAH. Funtsa: Manuel de Ynchausti Romero artxiboa. Erreg. inf.: 3363655):

Ya sabe Ud. cómo me encuentro en esta al servicio de la Delegación y del Partido, en todo lo que quieran mandarme. Yo dejé en Bilbao toda mi hacienda y parte de mi industria, que ha sido toda confiscada por el Gobierno de Franco, por Decreto aparecido en la prensa facciosa de allá. La mejor maquinaria de mi Taller fue llevada a Santander, por orden del Gobierno de Euzkadi, al evacuar la margen izquierda de la ría días antes de la toma de Bilbao. Tengo en Madrid para cobrar más de 180.000 pesetas, que el Gobierno de la República no me hace efectivas, a pesar de las gestiones de mi representante que se quedó allí y de la intervención, que agradezco, del amigo Irujo.

Estoy, pues, “crucificado” por el Gobierno de Franco, por el de Euzkadi y por el de España, en cuyas manos está todo mi capital. Yo no he podido ahorrar nada, porque no he cobrado lo que me debe el Gobierno de la República, y porque el de Euzkadi me obligaba a poner todo en cuentas corrientes, que ahora no me hacen efectivas.

Cuando el Jefe Superior de Sanidad Militar me reclamó, yo acudí abandonando mi Taller con evidente quebranto del mismo y de mis ingresos personales. Todo lo he dado por la guerra y por la Patria, viniendo aquí con unas pocas pesetas que consiguió cobrar en Bilbao mi hermano Cipri en los últimos días, costándole ello el no poder ya salir y ser recluso en la cárcel del Carmelo, donde se encuentra, según me dicen, en situación muy grave, con la creencia de un fatal desenlace.

Tengo también noticias de que mi Jefe de Taller, Iñaki Agirre (Deba), se encuentra igualmente en la cárcel, por no haber podido justificar dónde se evacuó la maquinaria.

Y ahora resulta que esas pocas pesetas que trajimos yo y mis cuñados Errazti y su familia, y mi hermana Mercedes, todos socios del Taller, se nos niegan por la Delegación, que bloquea nuestras cuentas, al cerrar la Caja desde el 15 de este mes.

Yo tengo en mi casa recogida a mi hermana Mercedes, con dos neños, uno de pecho, y una criada leal que no ha querido abandonarle en el destierro. Mi referida hermana dejó a su marido preso en Laredo y confiscada en Bilbao su tienda de tejidos. Tiene aquí una libreta de cuentas corrientes, con saldo de más de 50.000 pesetas, de las que no le han hecho efectivas ni un céntimo. Es decir, que teniendo suficiente dinero para vivir en esta, no puede hacerlo y tiene que acogerse a mí, que tampoco puedo sostenerla si mi situación no se resuelve.

Su cuñada, mujer de mi hermano Cipri, se decidió a ir a Bilbao, por si podía aliviar la situación de su marido preso, atendiendo a una llamada que consideraba de su

²¹ Santanderretik ebakuatu zuten Alfredo Ruiz del Castaño, 1937ko ekainaren amaieran, EBBko beste kide batzuekin batera (Arrien & Goigana 2002: 162). Nolanahi ere, Erraztik aipatutako «Ruiz del Castaño» (1.3a eta 2.1b) Guillermo Ruiz del Castaño alderdikidea ere izan liteke —besteak beste, Sabindiar-Batzaren sortzaileetakoa bat—.

deber de esposa. Y por ello, desde aquel mismo momento, le han dejado de pagar las decenas que le corresponden y que las dejaba para ayudar a mi hermano. [...]

Resulta, además, que yo contaba con una gratificación de 5.000 pesetas que me habían dado en una carta de crédito, pagadera precisamente en Francia, y ahora me la niegan, con el agravante de que en los primeros días de la pasada decena pude yo haber cobrado la parte correspondiente, como lo hicieron otros, de haberme encontrado en esta. Pero, por hallarme cumpliendo una orden del Partido, como Ud. sabe, sin sueldo, no pude presentarme y ahora se niegan a hacerme efectiva esa decena que han cobrado otros que se encontraban aquí. Es decir, que yo salgo perdiendo por todas partes, por haberme entregado al Partido.

Y es el objeto de la presente solicitar de Ud. me encuentre la manera de que yo pueda arreglar mi situación. [...]

Al reclamarme en Bilbao y al ordenarme salir de Santander, se me prometió toda la ayuda, que ahora no veo por ninguna parte, quedando mi familia destrozada, unos en la cárcel, otros prisioneros en Laredo, y otros aquí en la miseria, con los bienes confiscados y entregados al Gobierno de Euzkadi máquinas y dinero que ahora no podemos hacer efectivas.

Senideekin eta lagunekin lotutako berriez gain, egunerokotasuneko hainbat xehe-tasun azaltzen ditu Erraztik bere gutunetan: zer egin duen egunean zehar, zer bazkaldu duen, norekin egon den eta abar. Gertuko emakumeekin nolabaiteko ahizpata-sun-sare bat eraikita zeukala ere aditzera ematen du zenbaitetan: «Suspendo pues las chicas me esperan para ir al molino» (1.3d); «Yo estoy muy bien: por las mañanas hacemos lo que podemos y por las tardes vamos con la merienda al molino, a la playa de Ainhoa. Voy con las chicas, y Ángeles con sus 2 nenas; lo paso bien. Después de cenar tomamos el fresco de la noche, paseando por el pueblo» (2.1.a).

Halaber, gerra aurretik Parisera eta Lourdesera egindako bidaia batzuen berri ematen dute Erraztiren gutunek. Hauxe irakur dezakegu, adibidez, laugarren gutunaren pasarte batean: «Anda bien y distráete en París recordando a tu Karmele que te acompañará con el pensamiento, como lo hizo hace 17 años en persona. Me alegre que os venga bien pasar por esa hermosa capital y que disfrutéis, aunque sea a vuelo de pájaro, de sus bellezas» (4.1d); eta hauxe, bosgarrenaren beste pasarte batean: «De mi salida a Lourdes a tu encuentro, me agrada sobremanera; ya sabes cuánto me encanta ese rincón de los Pirineos, y cuántos gratos recuerdos tiene para nosotros» (5.1c).²²

Bestalde, Gerra Zibilaren garapenari buruzko berriek abertzaleengan eragindako etsipena ere jasotzen du Erraztik bere gutunetan: «Ayer al regresar de nuestro paseo,

²² Erraztik berak azaltzen du, 1911n eta 1950ean idatzitako artikuluko banatan, jeltzaletasunaren-tzat Lourdesek zeukan garrantzia (San Juan Manso 2025). Jemeinek, era berean, irailaren 11n Soles-mesetik bidalitako gutunean, emaztearekin Versallesera egindako bidaia aipatzen du: «El domingo por la mañana fuimos a Versalles y me acordé mucho de nuestro viaje». Horrez gain, Erraztirekin Pariseko zoor egindako irteera ekartzen du gogora, 1937ko urriaren 31n Parisetik igorritako postal batean: «Hoy hemos pasado la tarde en el Parque Zoológico. Contaré de palabra. Yo solo me acordaba de los osos a los que dimos de comer pasteles *il-y-a longtemps*. Gomutetan zara?». Orobat, 1937ko azaroaren 2an Parisetik bidalitako beste posta-txartel batean, xehetasun hau aipatzen du Jemeinek —bere horretan ematen dut Jemeinen testua, zuzenketarik gabe—: «Je me rappel quand tu aviez acheté, il y a longtemps, un façon d'origon de Coty, et je t'ai acheté un outre. ¿Combien coûte ça? N'importe pas. C'est pour toi et je suis tres heureux».

nos anunciaron la caída de Santander. Anuncio nada agradable, que nos confirmaron los cohetes de Dancharinea» (2.1.b).

1.4.2. *Jemeinen misioa*

1938ko ekainean, EAJk Euzko-Anaitasuna sortu zuen, Angeluko Villa Endararen beheko solairuan. Bartzelonatik heldu berria zen Elias Etxeberriak zuzendu zuen euskal errefuxiatuei laguntzeko erakunde hori, Jemeinen laguntzarekin eta Euskal Ogasunetik Eliodoro de la Torrek zuzenean helarazitako diruarekin (Jiménez de Aberásturi 1999: 40-43). Nolanahi ere, Euzko-Anaitasuna sortu baino lehenago hasi zen euskal errefuxiatuentzako laguntza-sarea ehuntzen, 1936an bertan, Gipuzkoa Francoren armadaren mende geratutakoan (Astigarraga 1989; Sanz & Álvarez 2010: 145-149). Frankistek Bizkaian aurrera egin ahala, handituz joan zen Frantzia zehar sakabana-tutako euskal herritarren kopurua, eta, horiei guztiei laguntzeko asmoz, EAJren misio batean parte hartu zuen Erraztiren senarrak, 1937ko abuztua eta iraila bitartean.

Misio horretan, Jemeinek beste hiru lagun izan zituen bidaide: Luis Astorki medikua —La Roseraieko sendagileetako bat; bere azken gutunean aipatzen du Erraztik (5.1.d)—, Cándido Arruabarrena auto-gidaria eta Mitxelena apaiza —ziurrenik, Alberto Mitxelena—. ²³ Jemein-Errazti senar-emazteek beren gutunetan aditzera ematen dutenagatik, EAJko kide batzuek gertutik jarraitu zioten misio horren garapenari, eta badakigu Manuel Ynchaustik ere jaso zituela Jemeinek idatzitako txostenak (EAH. Funtsa: Manuel de Ynchausti Romero artxiboa. Erreg. inf.: 3363655). ²⁴

1.4.3. *Compañía Naviera Amaya S.A. ren akzioak*

1937ko abuztuan, ondasun gehienak galduta edo blokeatuta zeuzkaten Jemein-Errazti senar-emazteek. Bai Jemein bai Errazti Compañía Naviera Amaya S.A. zela-koko akziodun ziren, eta, Jemeinek bidaia egin artean, beren akzio horiek ez galtzeko eginahalean aritu ziren; gutunetan, beraz, gai horren gainean Ainhoara heldutako albisteen berri ematen dio Erraztik senarrari, eta Jemeinek beharrezko baimenak bidaltzen dizkio emazteari, kanpoan dagoen bitartean Errazti beraren izenean jardun dadin.

Constantino Zabalak —Jose Antonio Agirreren emazte Mari Zabalaren aitak— sortu zuen Compañía Naviera Amaya S.A. izenekoa, xx. mendeko 10eko hamarkadan. ²⁵ 1937ko abuztuan, Constantino Zabala eta haren seme Manuelek bilera batera deitu zituzten konpainiako akziodun guztiak, frankistek akzioak konfiskatu baino

²³ Informazio Zerbitzuko buru José (Pepe) Mitxelenaren anaia zen Alberto Mitxelena, eta Clément Mathieu monsinorearen —Daxeko apezpikuaren— kolaboratzailea (Jiménez de Aberásturi 1999: 295). Hazparnekoa zen Mathieu, eta, besteak beste, *Gure Herriako* zuzendaritzako kide izan zen; 1960an, berak eman zuen Agirre lehendakariaren hileta-elizkizuna (Jiménez de Aberásturi 1999: 84-85).

²⁴ Jemeinen mezuei eta misioari buruzko datu gehiago emateko asmoa dut, beste artikuluko batean.

²⁵ Cf. *Aunamendi Entziklopedia* [online], “Zabala, Constantino”. Eskuragarri hemen: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/zabala-constantino/ar-144607/> (2025-04-18). Abuztuaren 23an Constantino Zabalak Karmele Erraztiri bidalitako gutun batek —ikus beherago— Compañía Naviera Amaya S.A. ren logoa dauka. Bertan, konpainiaren datu hauek ageri dira: «Bilbao Apdo. n. 281»; «Dirección telegráfica: Zabalari»; «Teléfono n.º 11471».

lehen beharrezko neurriak hartzeko asmoz.²⁶ Bilera hori abuztuaren 28an izan zen, Espainiako Kontsulatuko Merkataritza Ganberaren Baionako egoitzan. Zabalatarrek Bilboko bulegoan utzi omen zuten akziodunen zerrenda,²⁷ eta, hori dela eta, bilera baino lehen, akziodunei idatzi zieten, galdetuz ea bakoitzak zenbat akzio zituen. Abuztuko egun horietan Jemein kanpoan zegoenez, Constantino Zabalak Jemeinen ahalorde bat eskatu zion Erraztiri, Errazti edo Zabala bera Jemeinen eskuorde gisa jardun zitezen bileran. Senarrari bidalitako hiru gutunetan (1.4b, 2.1c, 3.1a), beraz, Amayako akzioen inguruan hitz egin zion Erraztik, eta emazteak eskatutakoari erantzuten saiatu zen Jemein. Hona hemen, taula batean laburbilduta, Amayako akzioen inguruan zabalatarrek eta Jemeinek bidalitako mezuak (SAF-PNV-227-01):

3. taula

Compañía Naviera Amaya S.A.ren akzioen harira zabalatarrek eta Jemeinek bidalitako mezuak

Data	Igorlea	Hartzailea	Euskarria eta zenbait jakingarri
1937-08-12	Manuel de Zabala	Carmen Errazti de Jemein	Gutuna [ES]. Zabalak eskerrak ematen dizkio Erraztiri abuztuaren 9ko gutunagatik eta senar-emazteen akzioei buruz bertan ematen dizkion xehetasunengatik.
1937-08-23	Constantino de Zabala	Carmele E. de Jemein	Gutuna [ES]. Senarra kanpoan dela jakin du Zabalak. Erraztiri eskatzen dio senarrak gutun bat idatz dezan, beste norbaiti beraren izenean jarduteko baimena eman. Jemeinek ikusten badu gutuna ez dela garaiz helduko, bidal dezala baimena telegrafoz.
d.g.	Constantino de Zabala	Karmele de E. de Jemein	Gutuna [ES]. Ahalorde-eredu bat bidaltzen dio Erraztiri, senarrari helaraz diezaion, hark Erraztiren izenean edo Zabalarenean sina dezan. ²⁸
d.g.	Ceferino Jemein	Constantino Zabala	Telegrama baten zirriborroa [ES]. Jemeinek baimena ematen dio Erraztiri, beraren eskuorde moduan jardun dezan.
1937-08-28	[Ceferino] Jemein	Julián Estévez	Telegrama [ES]. Jemeinek baimena ematen dio Erraztiri, bileran Erraztik beraren eskuorde moduan jardun dezan.

²⁶ Datarik gabeko gutun batean —ikus beherago—, zera esaten dio Constantino Zabalak Erraztiri: «El tiempo urge y de lo que se trata es de evitar que en el peor de los casos tomen en Bilbao el acuerdo de confiscarlas u otros acuerdos que modifiquen los estatutos para conseguir lo propuesto».

²⁷ «Como a la salida de Bilbao dejamos en la oficina la lista de los accionistas, es por este motivo el que tenemos que andar molestando a los accionistas» idatzi zion Manu Zabalak Karmele Erraztiri, abuztuaren 12ko gutun batean —ikus beherago—.

²⁸ SAFeko «PNV-227-01» karpetan, ahalorde baten kopia gorde da, Jemeinen izena eta abuztuaren 23ko data arkatzez idatzita dituen.

1.4.4. *Idazketaren zertarakoa*

Jemein kanpoan zegoela, senarraren eskutitzak nahiz postalak irakurtzea poz-tasun-iturri bilakatu zen Erraztirentzat, Erraztik berak bere gutunetan adierazten duenez: «Muchas ganas tengo de recrearme con tu correspondencia, pues ya sabes que los días son muy largos sin ti, pero si no puedes largo, escíbeme cortito; una tarjeta del hotel donde pares, no es mucho pedir ¿verdad, laztantxu? Y para mí será mucho-mucho» (1.3c); «Un rayo de alegría ha inundado mi alma al recibir una tarjeta tuya llena de buenas noticias» (1.3d); «Hoy 25, mayor alegría: me he reído y todo con tu carta» (1.4b); «Bien, laztantxu mío, así te quiero yo, un pequeño recuerdo, unas líneas no te cuesta mucho trabajo y para mí es una grande, una grandísima satisfacción» (4.1a); «Nueva y grande satisfacción. Tu carta escrita ayer 2 en ese Grand Hôtel de Yvetot acabo de recibir; parece que hasta el correo quiere darme esta magnífica, ni sé lo que digo, legítima alegría y llega cada vez más pronto» (5.1a).

Beste adibide hauek erakusten dute, halaber, Erraztik eguneko edozein momentu libre baliatzen zuela senarrari idazteko: «Hemos terminado de secar el fregado y continuo» (1.2a); «Como tenía sueño y no podía dormir, he empezado esta carta» (3.2a); «Aprovecho un momento antes de comer y te escribo» (5.1a). Izan ere, senarrari idaztea —eta idatzitako hori irakurtzean senarrak pentsatuko edo egingo zuena irudikatzea— bizitzeko akuilu eta senarrarengandik hurbilago sentitzeko bide bihurtu zen, nolabait, Erraztirentzat: «Ayer sábado espero te esperarían mis dos cartas [...] y todo el día te tuve en mi pensamiento, más aún que otros días y (casi me parece imposible, pues tú llenas todas las horas de todos los días y aún algunas de las noches), porque veía la satisfacción que te produjeron mis cartas» (3.1.a); «Así te podré escribir todos los días aunque no te diga más que tontearías; pero ya sabes que entre tú y yo no hay tonterías ni cosa que se le parezca, pues todo lleva un sello de amor, cimentado en el amor de Dios. Así pues, te escribiré y con ello pasaré un rato bien agradable y tú también» (3.2a); «Keperintxu laztana, ¿quiero yo algo más que eso en tu ausencia? ¿Hay para mí mejor trabajo y mejor distracción que esa? Escribirte y escribirte, te escribiría todo el día, pues como ves dejo mi pluma que corra sin preocuparme para nada del estilo ni de la forma; el corazón manda, y yo le dejo que diga en el papel todo lo que él quiere, pues así me hago la ilusión de que estoy hablando contigo, y tú me oyes, pero sin distraerte y decirme que sí cuando es que no» (3.2b).

1.4.5. *Gutunen hizkuntzaz*

Hizkuntzari dagokionez, azpimarragarria da Erraztiren gutun guztiak gaztelaniaz idatzita egotea, Jemeinek bidalitako mezu gehienak bezala. Biek ala biek behin eta berriro baieztatu zuten oso garrantzitsua zela euskara ikastea eta euskaraz bizitzea; prentsa abertzalean Erraztik argitaratutako lehen artikuluan, adibidez, ezinbestekotzat jotzen zuen euskararen salbazioa aberriaren salbazioa erdiesteko —«¡Vascos! ¿Queréis salvar vuestra Patria? ¿Sí? Pues salvad primero vuestra lengua» (E. tar K. Euzkera'ren aldez. Fausta nueva. *Aberrri* 1907-10-5)—, eta, orobat, honela adoretu zituen Euzko-Gaztediko kideak euskara ikastera, EABko lehendakari gisa

1922an emandako hitzaldi batean (Euzko-Gastedija'n "E.A.-B"ren lendakarijaren euzkel-itxeikixuna. *Aberti* 1922-10-21):

Jayotzetik euzkeldun diranak eztakije zelako ogasun ederra dauken Euzkerea jakitiaz; baña neronek bai-dakit ogasun ori lortuteko zelako alegiñak egin biarr-ixan do-dazan: orregatik maitiago dot nik Euzkerea, amaren magalian ikasi eben batzuk baño geyago. Zerorrek be, iñoz ikasten ba-dozube, atsekabez lortuten diran gauzak maite ixaten diran garraz, maite-ixango dozube.

Ostera, baña, ez uste ixan Euzkerea ikasi-eziña dala, askok esaten daben lez. Euzkerea ikasteko abertzaletasuna bakarrik biarr-da.

Eta orixe da neuk zuberi eskatzen dautzubedana: Euzkerea ikasteko biarr dan beste abertzaletasuna euki dagixubela.

Gerraren ondoren ere, euskararen aldeko hainbat artikulu argitaratu ziren aldizkari abertzaletan (Barandiaran 2024);²⁹ *Azkatasunaren* hasierako zenbakietan, adibidez, behin eta berriro egin zuten euskara erabiltzearen aldeko deia, eta, independentzia lortzeko, zenbaitek ezinbestekotzat jo zuten euskara nazio-hizkuntza izatea (Barandiaran 2024).³⁰ Era berean, *Alderdi* aldizkariaren lehen bi urteetan (1947-1948), aldizkariaren % 12 bete zuten, batez beste, euskarak, eta haren ezinbestekotasuna azpimarratzen zuten artikuluak argitaratu ziren (Barandiaran 2024); «Euzkadi Euzkaldun ezpada, ezta Euzkadi» baieztatu zuten, kasurako, «Abertzaleok eta Euzkera» izeneko artikuluaren egileak (*Alderdi* 15 [1948-06]. 12-14). 1949tik aurrera, euskarak espazio are handiagoa bete zuten *Alderdi*n,³¹ eta, 1949ko martxoko alean *Amandarro* ezizenarekin sinatutako artikulu batean, esaterako, honela jardun zen Jemlein (1949) euskarak izan beharreko lekuaz:³²

Ludiko erri guztijetan, eta aro edo gixaldi orotan jazo dan gauza berberea da. Ele bat beste ele baten azpijan indarrez jausten danian, edota, erri bat beste erri batek azpiratuba danian, edota, erri azpiratzalliak bere elia nagusitzat jartzen dau ta azpiratubena ostendu, jarki ta erail. [...]

¿Zelako ondoreak [...] atara biar doguz guk? Alegin gitxi egin biar dogu ondorek atarateko, Arana-Goiri'tar Sabin'ek atarata bai-doguz. Ona emen zer esan euskun: «Euzkerea jagi ta bixi daitetzat, gauza bi batera nai-ta-ezkuak dira: Bixitzarako biarrezkua egitia, bere erri-barru; eta biar orrek berorrek betetzeko gai edo duin egitia». [...]

Orra or, argi ta garbi, gure egin-biarra.

Aurrerago ere euskaraz egitearen alde eta euskarazko terminologia adostearen alde agertu zen Erraztiren senarra. Horren adibide da zazpi urte geroago —*Belandia* ezize-

²⁹ Torrealdaik (1997: 105) 1876-1935 urtealdiko euskal aldizkariaren «ezaugarri batzuk» seinalatzen ditu, eta hauxe adierazten du euskarak garai hartako aldizkarietan zeukan presentziari dagokionez: «Euskararen presentzia aldakorra da batetik bestera, ehuneko 5etik ehuneko 100era. Elebidunak dira gehienak, eta, zoritxarrez, euskararen presentzia ez da bakarrik urria baizik eskasa».

³⁰ «Es fundamental, para conseguir nuestra independencia, la implantación del euzkera como lengua nacional. [...] Un patriota sin euzkera es un patriota de... café. Sea quien sea» idatzi zuten, kasurako, Ikaslek aldizkariaren lehen aleko «Patriotas de... café» izeneko artikuluan (*Azkatasuna* I [1946]. 14).

³¹ Aldizkariako bigarren editoriala, adibidez, euskaraz idatzi zen, eta, aldizkariaren aleren batean, artikuluen % 40 argitaratu ziren euskaraz. Euskararen presentziak beherantza egin zuten nabarmen 50eko hamarkadaren erditik aurrera (Barandiaran 2024).

³² Aranaren pentsamenduan euskarak zeukan lekuaren inguruan, ikus, adibidez, Iztueta (2003: 855-857).

narekin— *Euzko-Gogoarako* idatzitako beste artikulua bat; nolahi ere, testu horretan, Jemeinek (1956: 58-63) garbi esan zuen aberriaren salbazioak zeukala lehentasuna, euskararen salbazioaren aurretik:

Eundi erdi bat dala, nik euzkerearen alde diñardut, aletin-alegiñez ta nekiaren-nekez. Irakurten ondo dakit eta idazten naiko ondo. Beintzat nire irakurlerik askok ori esaten dauste. Baiña euzkeraz parra-parra itz egiten... gaitz.

Orraitiño, enaz lotsatuten. Eztaust iñok ukatuko Sabin ixan zala euzkereari bulzada aundijena emon eutsona. Argi eta garbi Zaitegi jaunak Paris'en esan eban. Eta ez ikaratu; Sabin'ek ezaban euzkeraz parra-parra itz-egiten... gaitz.

Campión jauna be etzan euzkel-jakintzan makala. Bere izkinde edo eliztija (*Gramática de los cuatro dialectos vascos*) orain arte argitaldu diranen benagua da. Eta ez ikaratu; Campión jaunak ezin eban euzkeraz parra-parra itz-egiten.

Azketzi, baiña eredu aitatuten daskubezan atzerritar euzkeltzaliak, jakitun-jakin-tsubak ixan-arren, euzkeraz parra-parra itz-egiten dabeni nik eztot uste. [...]

Nik bai-dakit euzkeldun jatorrak euren kolkorako esango dabena: Belandia geyentsuba da, ao-berua dogu; naimen oneko euzko-erdeldunak, euzkeraz ikasteko gogoa dabena, biotzindu, bijozkatu egiten dauz, ta adoria kentzen dautze. Ez olakorik [...].

Geikerija da, ostera, ao-berokerija da [...] erdeldunei euzkerea erraza dala esatia. Euzko-erdeldunei esan biar dautsegu euzkerea euren aberriaren elia dala, euren guraso ta gurasuen gurasuaren elia dala, ta naiz gatxa dala, oso aberatza dalako alegiña egin biar dabela ikasteko. Baiña orretarako, geronek lagundu biar dautsegu maitero ta ikaspidiak emon eta alkartasuna gertatu. [...]

Euzkerea ezta gaizkatuko eun edo berreun erdeldun ikastiagaitik. [...] Aberrija, ba, azkatu biar dogu lenengo.

Onk eztau esan gura, bitartian eztogula euzkerearen alde ezer egin biar, ez; baiña lan au euzkeldunei batez-be dagokigu. [...]

Aberkide euzkeldun maitiak: itxi daiguzan betiko eztabaida gogaikarriak, erdeldunak dirala-ta, ta guazan danok batera, euzkeldunak eta erdeldunak, aberrija azkatzen, bein aberrija azkatuta euzkerea gaizkatuba ixango da-ta.

XX. mende hasieratik prentsa abertzalean euskararen alde argitaratutako artikuluek agerian uzten dute abertzale askok beren artean gaztelaniaz aritzeko joera zutela, eta, 1937an idatzitako gutunetatik ondoriozta daitekeenez, Jemeinek eta Erraztik ere ez zioten hizkuntza-ohitura horri ihes egin, gutun horiek idatzi zituzten garaian behintzat. Kontuan hartu behar dugu, hala ere, euskararen erabileraren kasuan, diskurtsoek eta praktikek ez dutela beti bat egiten: hizkuntza-ohiturak aldatzea ez da erraza, eta ohitura eta erraztasun faltak eragina izan ohi dute hizkuntza jakin baten erabileran.

1.5. Ondorioak

1. Erraztik 1937an senarrari idatzitako bost gutunek Bilboko EABko lehendakari izandakoaren figura eta testugintza sakonago ezagutzeko aukera ematen digute, literatur genero nagusietatik kanpoko testuetatik abiatuta.

2. Erraztiren eskutizak gutungintzan ohikoa den hiruko eskemaren arabera egituratuta daude, eta orduko gorabeherekin lotutako gaiak nahiz Erraztiren egunerokotasunaren xehetasunak dituzte, batez ere, hizpide.

3. Erraztiren gutunek haren biografia osatzen laguntzen dute, beste testu batzuetan ageri ez diren datuak aipatzen baitituzte. Horrez gain, Euskal Herriaren mikrohistoriaren parte bat ezagutzeko aukera ematen digute, nolabait, emakume baten ikuspuntutik: nola bizi ziren 1937an Ipar Euskal Herrira erbesteratutako errefuxiatuak, nola jakiten zuten elkarren berri, nola laguntzen zioten elkarri, nolako ahizpatasun-sareak eraikitzen zituzten emakumeen artean, etab.

4. Erraztiren gutunek erakusten dute, orobat, 1937ko abuztuan eta irailean idazketak balio handia izan zuela harentzat; izan ere, senarra kanpoan egon zen bitartean, Erraztik eguneko momentu libre oro baliatu zuen Jemeini idazteko, horrek senarrarengandik hurbilago sentitzen laguntzen baitzion.

5. Jemein-Errazti senar-emazteen hizkuntza-ohituren berri ere ematen dute Erraztiren gutunek; zehazki, erakusten dute, biek beren artikuluetan euskararen alde idatzitakoa gorabehera, elkarren artean gaztelaniaz aritzeko ohitura zutela, orduko euskaltzale askok bezala.

1.6. Bibliografia

- Alonso Carballés, Jesús J. 2007. «El primer exilio de los vascos, 1936-1939». *Historia Contemporánea* 35. 683-708. <https://doi.org/10.1387/hc.4117>
- Alvarez Uribe, Amaia. 2024. *Zuzi iraxegia. Euskal emakume idazleak eta literatura klasikoa*. Bilbo: Testu Zaharrak.
- Anasagasti, Iñaki, Jean Claude Larronde & Koldo San Sebastián. 2019. *Los años oscuros. El nacionalismo vasco en la posguerra. 1937-1946*. Irun: Alberdania.
- Arana Martija, José Antonio. 1993. *Julio Urkixo (1871-1950)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Arrien, Gregorio & Iñaki Goigana. 2002. *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939*. Barcelona & Bilbo: Fundació Ramon Trias Fargas & Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Askoren artean. 1988. *Jose Ariztimuño Aitzol. Biografía y rasgos mayores de su obra. Biografía eta bere ekintzaren alderdi nagusiak*. Donostia: Erein.
- Astigarraga, Andoni de. 1989. «Evacuaciones y exilios vascos». *Muga* 71. 30-37.
- Barandiaran Contreras, Miren. 2024. *Publicaciones periódicas del Partido Nacionalista Vasco (1939-1975)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Camino, Iñigo & Luis de Guezala. 1991. *Juventud y nacionalismo vasco. Bilbao (1901-1937)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- [Errazti, Karmele] Etxakin. 1950. «Nire Eretxija». *Alderdi* 38. 13.
- Ezkurdia Arteaga, Gurutze, Karmele Perez Urraza & Begoña Bilbao Bilbao. 2024. «Miren Josune Ibaseta Mendizabal maistrak, sendia oinarrian, emakumeen prestakuntza, euskara eta aberria ardatz». In Luis M. Naya Garmendia (koord.), *Pauli Dávila. Euskal Herriko hezkuntzaren historiaren bidezidorretan argi*, 79-117. Madril: Delta.
- Goikoetxea Agirre, Nekane. 2022. *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Gorriti, Iban. 2002. «El cariñoso legado humano de una bilbaina de mundo». *Deia* 2002-02-21. <https://www.deia.eus/bilbao/2021/02/02/carinoso-legado-humano-bilbaina-mundo-1986412.html> (2025/04/18).
- Iztueta, Paulo. 2003. «Sabino Arana eta bere eragina Euskal Pizkundean». *Euskera* 48(2). 850-930.

- Jemein, Keperin. 1933. *Las bellezas de Aralar*. Bilbo: F. Zubiri y Cia.
- Jemein, Keperin. 1935. *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e Historia gráfica del nacionalismo vasco*. Bilbo: Editorial Vasca.
- [Jemein, Keperin] Amandarro. 1949. «Euzkeraz irakurten eta idazten ¿ete dakizu?». *Alderdi* 24 13. 19.
- Jemein, Keperin. 1952. «Laburrkiro». *Euzko-Gogoa* 3(3/4). 25.
- [Jemein, Keperin] Belandia. 1956. «Euzkel-Ikaskintza», *Euzko-Gogoa* 7(5/6). 57-63.
- Jiménez de Aberásturi, Juan Carlos. 1999. *De la derrota a la esperanza. Políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*. Oñati: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Jiménez de Aberásturi, Juan Carlos & Rafael Moreno Izquierdo. 2009. *Al servicio del extranjero. Historia del Servicio Vasco de Información (1936-43)*. Boadilla del Monte: A. Machado Libros.
- Lamikiz, Xabier, Manuel Padilla-Moyano & Charles Videgain. 2015. «Aitzin-Solasa». In Xabier Lamikiz, Manuel Padilla & Charles Videgain. *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757) (Lapurdum, Zenbaki Bereziak 2)*, 9-13. Baiona: Iker. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2531>
- Larrañaga, Policarpo de. 1978. *Emakume Abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco*, 1.-3. lib. Donostia: Añamendi.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2015. «Le Dauphin itsasontziko gutuneria (1757) edo euskaren historia behetik». In Xabier Lamikiz, Manuel Padilla & Charles Videgain. *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757) (Lapurdum, Zenbaki Bereziak 2)*, 45-77. Baiona: Iker. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2553>
- Padilla-Moyano, Manuel. 2022. «Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays. Ana Ürrüti (1826-1900) ebanjelista eta itzultzailearen bizitza eta gutunak». *ASJU* 56(2). 245-302. <https://doi.org/10.1387/asju.24116>
- Perez Urraza, Karmele, Begoña Bilbao Bilbao & Gurutze Ezkurdia Arteaga. 2022. *Emakumeak aberria eginez*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- San Juan Manso, Enara. 2025. «Karmele Erraztiren testuak: corpus osatua eta azalpen laburra». *ASJU* 59(2). 163-193. <https://doi.org/10.1387/asju.27563>
- Sanz Goikoetxea, Eneko & Óscar Álvarez Gila. 2010. «Entre dos guerras (1936-1940)». In Josu Legarreta Bilbao (zuz.), *Delegaciones de Euskadi (1936-1975). Antecedentes históricos de los siglos XVI al XIX, origen y desarrollo*, 99-154. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Tápiz, José María. 2002. *El PNV durante la II República (organización interna, implantación territorial y bases sociales)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Torrealdai, Joan Mari. 1997. *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Donostia: Jakin.
- Ugalde Solano, Mercedes. 1993. *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Zabala Agirre, José Ramón (zuz.). 2007. *Non zeuden emakumeak? La mujer vasca en el exilio de 1936*. Donostia: Saturrarán.

2. Karmele Erraztik senarrari idatzitako gutunak³³

1

[1a] Ainhoa, 22 de agosto 1937

Neure Keperintxu kutun-kutuna:

Hace media hora he recibido unas pocas líneas, que dicen mucho a mi corazón. Tu tarjeta fechada el 18 en Tours ha llegado hace pocos minutos y me ha llenado de alegría.

La de Julián llegó anteayer a Mimosas,³⁴ pero no la vi hasta anoche, y, como no estaba muy segura de la dirección que confiando en su memoria me daba Julián, no te he escrito.

Espero me avisarás con alguna anticipación a dónde debo escribirte, porque de lo contrario mis cartas se convertirán en periódicos que te mandaré ^[1b] dentro de un sobre para que te alimentes de su lectura durante varios días.

Hoy te escribo como ves al buen tun-tun, para que cuando reciba la que me prometes,³⁵ si me mandas señas, aprovechar el primer correo. Como sé cuánto te interesas por nuestros amigos, te daré una buena noticia. Julián salió anoche para Bordeaux al encuentro de Miren. Ya era hora. ¡Cuánto ha sufrido el pobre! Ayer [por la] mañana fui con él a Bayona; yo para continuar viaje a Ciboure. En el autobús me dijo: «Kar mele, si algún día no vengo por la noche, será que he ido a Bordeaux; le advierto para que lo sepa». «¡Ojalá sea hoy mismo!», ^[1c] le dije más o menos; «de todos modos, yo creo que ya no tendrá Ud. que esperar mucho». Ayer de vuelta de Bayona, vine sola. Julián no se presentó a la hora, y pensé: «¿Habrá tenido noticias?».

Efectivamente. Cuando llegué a casa, salió a mi encuentro y me dijo: «María ha salido ya de Santander», y vino a nuestra sala-dormitorio a contármelo. «Esta tarde», me dijo, «ha llegado Taramona en el avión y me ha dicho “María ha salido ya de Santander”»; yo no le he creído, porque he pasado un día horrible; las noticias que venían de todas partes eran que Santander caería hoy en poder de ellos, así que yo estaba como loco, y no podría creer lo que Tara^[1d]mona me decía; mi incertidumbre era tal, que no sabía qué hacer, pero he decidido esperar a ver el contenido de la valija.

La noticia me ha sido confirmada por una carta de Julen, léala Ud.; entretanto voy a cenar un poco y salgo en el tren de las 11 de la noche para Burdeos, porque no sé dónde desembarcará y quizás tenga que esperarle algunos días».

³³ Erdal hitzen orto(tipo)grafia (*Agosto > agosto, 1.937 > 1937, líneas > líneas, cojeré > cogeré, ú hotel > u hotel, gozes > goces...*) eta puntuazioa gaur egungo arauetara egokitu ditut. Gutunetan ageri diren euskal hitz bakaneñ dagokienez, berriz, dagoeneko erabiltzen ez diren ikur grafikoak gaur egungo ikurren arabera transkribatu ditut (*agur > agurr...*).

³⁴ Baionako avenue Cardinal Lavigerieko 8. zenbakian zegoen Villa Mimosas. Bertan zabaldu zuen EAjk Ipar Euskal Herriko lehen bulegoa (Astigarraga 1989: 30), eta, 1937ko abuztuaren 18an, bertara bidali zion Jemeinek Estévezi postal bat (SAF-PNV-227-01).

³⁵ «Bijarr luzaruago», esaten dio Jemeinek, abuztuaren 18an Toursetik bidalitako postalean.

